


OROITIDAZKIA



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren
Txosten Adierazgarrienak

Edizioa:

© Datuak Babesteko Euskal Bulegoa

Argitaratzailea: Datuak Babesteko Euskal Bulegoa

Internet: www.avpd.es

Jabego Intelektualaren Eskubideak babesten du lan hau. Gordeta daude Legeak babesten dituen eskubide guztiak, bai eta itzultzeko, berriro inprimatzeko, irratiz, telebistaz edo internetez (web orria) hedatzeko, fotomekanikaren bidez edo beste edozein eratarik kopiaatzeko eta datuak prozesatzeko instalazioetan gordetzeko eskubideak ere, nahiz eta lanaren zati bat izan.

Aurkibidea	Orrialdea
1. UDAL BATEK DATUAK LAGATZEA ORDEZKARI SINDIKALEI	5
ONDORIOAK	12
2. EGUNEKO EGOITZA BATEN ERABILTZAILEEN DATUAK LAGATZEA UDALBATZARREKO TALDE POLITIKO BATI	13
AURREKARIAK	13
GOGOETAK	13
ONDORIOA	16
3. OSAKIDETZAK LARRIALDIETAN ARTATUTAKO ETA AUTO ISTRIPUENGATIK INGRESATUTAKO PERTSONEN DATUAK LAGATZEA	17
AURREKARIAK	17
GOGOETAK	18
ONDORIOAK	21
4. ERROLDAREN DATUAK LAGATZEA UDALEKO BESTE SAIL BATZUEI	22
AURREKARIAK	22
GOGOETAK	22
ONDORIOA	25
5. EAEKO LURZORUAN POTENTZIALKI KUTSAGARRIAK DIREN EKINTZEN KOKALEKUEN INBENTARIOA BERRITZEKO IHOBE ENPRESA ESLEIPENDUNARI EAEKO ERROLDAREN DATUAK LAGATZEA	26
AURREKARIAK	26
GOGOETAK	26
ONDORIOAK	29
6. ZIGOR ETA ADMINISTRAZIO ARAU-HAUSTEEN IZAERA PERTSONALEKO DATUAK BATZORDEAN SARTZEKO AUKERA	30
AURREKARIAK	30
GOGOETAK	30
ONDORIOAK	33
7. IZAERA PERTSONALEKO DATUAK JASOTZEN DIREN INPRIMAKIETAN LEGE OHARRA SARTZEKO BETEBEHARRA	34
AURREKARIAK	34
GOGOETAK	34
ONDORIOAK	41
8. BOEN ETA TUEN ETXEBIZITZAK LORTZEKO ZOZKETETAN PARTE HARTUTAKO PERTSONEN ZERRENDAK ETA ESLEIPEN ZERRENDAK AGERTZEA HERRITARRENTZAKO ARRETA BULEGOAN ETA WEB ORRIAN	42
AURREKARIAK	42
GOGOETAK	42
ONDORIOAK	44
9. GOGOAN IZAN BEHARREKO DATUEN BABESAREN INGURUKO ALDERDIAK UNIBERTSITATEKO LAN-ESKAINZA PUBLIKOAN	46
AURREKARIAK	46
GOGOETAK	47
ONDORIOAK	50
10. ENERGIA ELEKTRIKOA EKOIZTEKO INSTALAZIOEK UKITZEN DUTEN PERTSONA FISIKO EDO JURIDIKOEN ONDASUNEN BURUZKO DATUAK HIRUGARREN BATI LAGATZEKO ZILEGITASUNA	51
AURREKARIAK	51
GOGOETAK	52
ONDORIOA	55
11. ALDI EXEKUTIBOAN ZUZENBIDE PUBLIKOKO ZERGA-BILETAREN DATUAK BILTZEKO BESTE ADMINISTRAZIOEI ESKATUTAKO DATUEN LAGATZEA	56

	AURREKARIAK	56
	GOGOETAK	57
	ONDORIOAK	65
12.	LANGILE FUNTZIONARIENTZAKO GORDETAKE LANPOSTUAK ESKURATZEKO LEHIAKETEN DEIALDIETAKO HAUTAGAIEI BURUZ JAKINARAZI DAITEZKEEN DATU IDENTIFIKAGARRIEN INGURUKO INFORMAZIO ESKAERA	66
	AURREKARIAK	66
	Datuak Babesteko Euskal Bulego honi dagokio, arestian aipaturiko araudiaren arabera, jasotako kontsultari erantzuteko txostena egitea.	66
	GOGOETAK	66
	ONDORIOAK	69
13.	DIPUTAZIO BATEAN LANPOSTU HUTSEN ZERRENDA LAGATZEA	71
	AURREKARIAK	71
	GOGOETAK	72
	ONDORIOA	75

1. UDAL BATEK DATUAK LAGATZEA ORDEZKARI SINDIKALEI

TXOSTEN JURIDIKOA. UDAL BATEK EGINDAKO KONTSULTA BATEN INGURUKOA. UDALAK JAKIN NAHI DU ZEIN INFORMAZIO EMAN BEHAR DIEN ORDEZKARI SINDIKALEI

CN07-003

I

XXX-(e)ko Udalak Gizarte Ordezkarientzako Informazio Plan bat eratu du DBLOn esaten dena eta ekintza sindikalaren jarduera bateratzeko. Plana egiteko, Udalak erreferentzia gisa hartu ditu DBLO, ekainaren 12ko 8/1987 Ordezkaritza Organoak eta Herri Administrazioetako Langileak Legea, Langileen Estatutua eta Datuak Babesteko Madrileko Erkidegoko apirilaren 3ko 1/2006 Gomendioak.

Aipaturiko planean agertzen diren zenbait eztabaidagai ez dira baketsuak, eta hori dela-eta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari gai gatazkatsuei buruzko txostena egiteko eskatu dio:

a) DBLO urratzen duen ala ez ordezkari sindikalei lanpostuen zerrenda emateak, izan ere pertsonak identifikatzen dira (izen-abizenak eta NAN-a) eta bakoitzak betetzen duen lanpostua agertzen da. Beharrezkoa ote den haien adostasuna berariaz jasotzea.

b) DBLOrekin bateragarria den edo ez ordezkari sindikalei erabakitako funtzio publikoko ebazpenen kopia bat ematea, ebazpen honetan langile publikoen izaera pertsonaleko datuak agertzen badira (izen-abizena, NAN edo seme-alaben izena, adin txikiko ume bat zaintzeko lanaldia laburtzeko eskaera ematen bada).

Otsailaren 25eko 2/2004 Legeak, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoak, bere 17. artikuluan n) atalean Zuzendaritza honi esleitzen dion zereginetako bat izanik, Txosten hau egin du

II

Arazoa sortzen da, kasu honetan, Udalak eta ordezkari sindikalek partekatzen dituzten datuak direla-eta. Udaletxeak ulertzen du orain arte egin duen trataera, hau da, ordezkari LZ eta langile publikoen izaera pertsonaleko datuak agertzen diren funtzio publikoko txostenen ebazpenak lagatzea, izaera pertsonaleko datuen babesaren eskubideen kontra egin dezakeela. Ordezkariek, bestalde, uste dute Udalak lanpostuen zerrendak ez emateko egindako proposamena eta ebazpenen kopia bat eman beharrean beren edukiaren laburpen bat ematea askatasun sindikala erabiltzea mugatzen eta hertsatzen duela.

Hemen agertzen dena, finean, oinarritzko bi eskubideek talka egin dezaketela da. Alde batetik, izaera pertsonaleko datuak babesteko eskubidea, eskubide autonomo bezala onartua, EKren 18.4 artikuluan eta KAE 292/2000 azaroaren 30eko Konstituzio Testuan. Eta, bestalde, askatasun sindikalaren eskubidea, EK-ko 28.1 artikuluan jasotzen den oinarritzko eskubidea.

III

1978ko Konstituzioak, 1. atalean, oinarritzko eskubide batzuen zerrenda jasotzen du, eta horien artean 18.4 artikulua dago, eta ondorengoa xedatzen du:

"legeak mugatuko du informatikaren erabilera, bermatzeko herritarren ohore eta intimitate partikularra eta familiarra eta beren eskubideak garatzea "

Konstituzio arau horretatik izaera pertsonaleko datuak babesteko eskubidea edo informazio autodeterminazioaren eskubidea dator. Konstituzio jurisprudentziak jasotzen du eskubideok oinarritzkoak eta autonomoak direla, eta zenbait doktrinek *XXI. mendeko funtsezko eskubide berria* izena eman diote.

Konstituzio Auzitegiak adierazi du EKren 18.4 artikuluan dagoenak, 254/1993 KAEren arabera, baduela

“intimitatearen eta ohorearen eskubidea eta bestelako eskubide guztiak erabili ahal izateko bermea, eskubide edo funtsezko askatasuna dena bere horretan, izan daitezkeen erasoen aurreko duintasunerako eta askatasunerako eskubidea da, datuen trataera mekanizatuaren erabilera legitimoaren aurrean, Konstituzioak “informatika” deitzen duena, “informatika askatasuna” deitu dena (6.oinarria, ondoren KAEren 143/1994, 11/1998, 94/1998 eta 202/1999 epaietan berretsia)”

Datu pertsonalak babesteko funtsezko oinarri hau, zabalagoa da intimitaterako eskubidea baino. Era berean, Konstituzio Auzitegiak, 292/2000 KAEan, horrela adierazi du:

“datuen babesa ez da pertsonaren datu intimoetara soilik mugatzen, baizik eta izaera pertsonaleko edozein datutara, intimoak izan edo ez. Eta hirugarren baten trataerak edo ezagutzak beren eskubideei eragin diezaieke, funtsezkoak izan edo ez, bere helburua ez delako norbanakoaren intimitatea soilik, horretarako EKren 18.1 artikulua ematen du babesa, baizik eta izaera pertsonaleko datuak. Hori dela eta, publikoak diren datu pertsonaletara ere zabaltzen da, edozeinek ezagutzeko eskura badaude, ez diote ukituaren norberaren ahalmenari ihesik egingo, horrela bermatzen duelako datuen babeserako bere eskubideak.... Babestutako datuak pertsona identifikatzen duten edo identifikatu dezaketen datuak dira, bere profil ideologikoa, arrazakoa, sexuala, ekonomikoa edo bestelakoa osatzen dutenak, edo beste helburu baterako erabiltzen direnean, egoera batzuetan, pertsona mehatxatu dezaketenak (FJ 6).

“pertsonak bere datu pertsonalak lagatzeko edo kontrolatzeko ahalmenean datza, hirugarren bati zein datu lagako dizkion ahalmenean, bai estatua bai partikular bat izan, edo hirugarren honek bil ditzakeenak zeintzuk izan daitezkeen, bai eta pertsonari bere datu pertsonalak nork dituen jakiteko aukera ematen diona, jabetza edo erabilera honi kontra egin ahal izateko. Datu pertsonalak izateko eta kontrolatzeko ahalmena, datuen babeserako funtsezko eskubidea osatzen duena, juridikoki zehazten da datu pertsonalak jasotzean eta lortzean, ondorengo gordetzea eta tratatzea, bai eta izan ditzaketen erabilerak ere, hirugarren baten aldetik, nahiz eta estatua edo partikular bat izan. Eta datu pertsonalen ezagutza eta trataera, informatikoa edo ez, onartzeko eskubidea, nahitaezkoak diren gehigarriak eskatzen ditu, alde batetik, datu pertsonalak noren esku dauden eta ematen ari zaien erabilera jakiteko ahalmena, eta bestetik, datuak izatera eta erabiltzera uko egitea.(...) (FJ7).

Hauek dira, beraz, Konstituzio Auzitegiak datu pertsonalak babesteko funtsezko eskubidearen inguruan egin duen definizioaren elementuak. Egun, azaroaren 13ko 15/1999 Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko Lege Organikoak arautzen du eta Erkidego honetan Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 legeak, 17.1 artikuluan, arautzen du.

Aipaturiko BDEBak eta 2/2004ko Erkidegoko Legeak izaera pertsonaleko datuak honela definitzen ditu “ identifikatua edo identifikagarria den edozein pertsona fisikoaren inguruko informazioa” eta datuen lagapena “interesduna ez den beste edozein pertsonari egindako datuen agertzea”.

Datuen lagatzeari buruz, DBLOk, 11. artikuluan, honakoa ezartzen du:

“Tratamenduaren objektu diren izaera pertsonaleko datuak hirugarren bati komunika dakizkioke soil-soilik datu-lagatzailearen eta datu-hartzailearen eginkizun legitimoekin zuzeneko lotura duten xedeak betetzeko; interesdunak aurretiaz horren inguruko adostasuna eman beharko du.”

Lege agindu honekin bat etorrira, ikusten dugu, orokorrean, beharrezkoa dela izaera pertsonaleko datuak lagatzeko, dagokien pertsonak lagapen hau onartzea. Eta gainera, lagatze hau helburu legitimo bati erantzun behar dio, lagatzailearen eta jasotzailearen artekoa. Hala ere, arau orokor honek salbuespen bat du aipaturiko 11. artikulua 2. atalean: *Legeak lagapena baimentzen duenean (11.2 a) edo "Jendearen esku dauden iturrietatik jasotako datuak direnean".*

Hau guztia esan ondoren, ez dago zalantzarik XXXko Udalak ordezkari sindikalei komunikatutako izaera pertsonaleko datuak, izaera pertsonaleko datuen lagapen bat izan dela, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko 15/1999 abenduaren 13ko Lege Organikoan aipatzen den 3i) artikuluan esaten den bezala.

Hori dela-eta, txosten honetan argitu beharreko arazoa ondorengoa da: XXXko Udaleko langile publikoen datu pertsonalak lagatzea ordezkari sindikalei (langile hauen adostasuna izan gabe), BDEBko 11.2 artikuluan agertzen diren salbuespenen batean babesik ote duen.

Horretarako, jokoan dagoen funtsezko beste eskubideari arreta jarri behar diogu.

IV

Askatasun sindikalaren eskubidea EKren 28.1 artikuluan funtsezko eskubidetzat hartzen da.

Eskubide honen hedadura zein den ezagutzeko gogoan izan behar da azaroaren 11ko 231/2000 KAE epaia (FJ4). Hemen Konstituzio Auzitegiak adierazi du EKren 28.artikulua dela-eta: *“askatasun sindikalaren edukieraren murrizketa soilik antolakuntza edo asoziazio alderdi batera muga daiteke. Auzitegi honek behin baino gehiagotan adierazi du... arau honen edukiera eskubidearen funtzio alderdiaren barne ere badagoela, hau da, sindikatuen eskubidea, langileen interesen eskubideen defentsarako eta sustapenerako ekintzak aurrera eramateko. Hau da, konstituzionalki dagozkien funtzioak aurrera eraman ahal izateko beharrezkoak diren ekintza bitartekoak zabaltzea (KAEren 105/1992, uztailaren 1ekoa; 173/1992, urriaren 29koa; 164/1993, maiatzaren 18koa; 145/1999, uztailaren 22koa eta 308/2000, abenduaren 18koa). Sindikatuek antolatzeke eta beren ekintzak eraginkorrak izan daitezen, askatasun eremu nagusi bat dute, Konstituzioa eta Legea errespetatuz, betiere.*

EKren 28.1 artikuluan, beraz, ekintza sindikal askearen eskubidea aurrera eramatea jasotzen da. Bidezkoak diren baliabide guztiak eta hirugarrenen interjerentziarik gabekoa (KAEren 94/1995, ekainaren 16koa; 127/1995, uztailaren 25ekoa; 168/1996, urriaren 29koa; 107/2000, maiatzaren 5ekoa eta 121/2001, ekainaren 4koa). Eta konstituzio eduki honekin esaten denarekin bat, 11/1985 Askatasun Sindikalaren Lege Organikoa, abuztuaren 2koa (aurrerantzean ASLO), bere 2.1d) artikuluan onartzen du “ekintza sindikalerako askatasuna”, enpresaren borneyan beren jarduna mugatuz 8. eta 11. artikuluetan. Azalpen zorrotz baten beharrik izan gabe, Askatasun Sindikalaren Lege Organikoak, ordezkari sindikalei langileen estatutuak enpresa batzordeen kidei eta langileek hautatutako ordezkariari ematen dien eskubide eta berme berak guztiak ematen dizkie. Horrela, LETeko 64. artikuluan ezartzen denari zuzenean igorritz, ordezkari sindikalei onartzen zaie enpresak batzordearen esku utzi behar duen informazioa eskuratzeko eskubide bera.

Hori bai, ordezkari hauek ez dute soilik enpresariak eman nahi dien informazioa jasotzeko eskubidea. Haien gain, beren ordezkatuak informatuta izateko betebeharra daukate, “aipaturiko gai eta arazo guztietan... lan harremanetan zuzenean edo zeharka daukaten edo izan dezaketen ondorioetan”. Aurreko egoera batzuetan esateko aukera izan dugun bezala, interes sindikaleko albiste horiek jakinaraztea, sindikatuaren eta bere afiliatuen arteko informazio jario hori, ordezkari sindikalen eta langileen artean, “parte hartzearen oinarria da, ekintza sindikal baten zentzuzko jardura ahalbidetzen du, demokraziaren eta aniztasun sindikalaren garapena sustatzen du, eta, oro har, askatasun sindikalaren funtsezko eskubiderako elementu nagusia da (94/1995, ekainaren 19koa eta 168/1996, azaroaren 25ekoa).

Egia da, ordezkari sindikalen informaziorako eskubide eta beharra – langileen ordezkari hautatuak edo unitarioak eta funtzionario publikoena bezalaxe- ez da mugaezina, baizik eta “isilbidezko profesional” lege inposaketarengatik baldintzatua dago. (10.3.1 artikulua, LETeko 65.2 artikulua harira eta). Honen bidez, langileen ordezkariari ezartzen zaie, enpresak ematen dien ordezkarien eskumenean dauden funtzioen gaineko informazioa emateko betebeharrak legala betetz, informazio zehatz batzuk ez jakinaraztea. Baina isilbidezko beharra ere ez da ez-murriztailea, aurretik, aldiz, LETaren 65.2 artikuluan murrizten da, ordezkari itza lana aurrera

eramateko aukera ematen duena, konfiantzazko oinarri bat bermatuz informatzailearen (enpresaria) eta informatutakoaren artean (ordezkaria) eta horrela, enpresariaren beldurak edo dudak murrizten dira.

V

Behin KAre doktrina adierazita, Askatasun Sindikalaren edukia eta mugei buruzkoa, neurtu beharko dugu zer nolako eragina daukan funtsezko eskubide honek izaera pertsonaleko datuak babesteko funtsezko eskubidean. Horretarako, ordenamendu juridikoak ordezkari sindikalei dagozkien eskumenak aztertu beharko ditugu eta egiaztatu, ahal bada, udaletako langile publikoen datu pertsonalak lagatzeko salbuestea

Honek, lehenik eta behin, aipatu behar dugu Askatasun Sindikaleko 11/1985 Lege Organikoa, abuztuaren 2koa, eta zehatzago IV. Atalean "ekintza sindikala" deiturikoa. Atal honetan, ordezkari sindikalek dituzten eskumenak, ahalmenak eta bermeak jasotzen dira.

Lege horretako 8.2 artikuluan arautzen da ordezkariaren dauden sindikatuen sekzio sindikalen eskubideak eta enpresa batzordeetan ordezkariak daukatenak eta Herri Administrazioen ordezkariak organoetan; edota, langileen ordezkariak dituztenak (iragarki-ohol baterako eskubidea lantokian, guztien arteko negoziatzearako eskubidea eta egokia den lokal bat erabiltzera).

Bestalde, lege testu beraren 10.3 artikulua ezartzen du ordezkari sindikalek, enpresaren batzordearen barne baldin badaude, Herri Administrazioen ordezkariak organoetan edo enpresa batzordeen kideek lege dituzten berme berdinak izango dituzte. Gainera azpimarratzen du, modu zehatzean, enpresak daukan informazio eta dokumentazio berdina eskuratzeko eskubidea dutela, eta ordezkari sindikalak behartuta egongo dira isilbidezko profesionaletara gordetzerak behartuta daude, horrela dagoen duen gaien inguruan.

Errege Dekretu Legegilearen 64.1 artikuluan, martxoaren 24koak, Langileen Estatutuaren Legearen Testu bategina onartzen duenak, enpresa batzordeen eskumenak ezartzen ditu:

64. Artikulua. Eskumenak.

Hauek dira enpresa-batzordeak dituen eskumenak:

Lehenengoa.- Informazioa jasotzeko eskumena. Hiru hilero eman behar zaio, gutxienez, eta honako gaiak hartu behar ditu: enpresaren arlo ekonomikoaren bilakaera orokorra, enpresaren ekoizpenaren eta salmenten egoera, enpresaren ekoizpen-egitaraua eta ziurrenera enpresako enpleguak izango duen bilakaera, enpresaburuak kontratu berriak egiteko dituen asmoak, kontratuon kopurua eta moduak aipatuz, horien artean direla lanaldi partzialeko kontratuak ere, lanaldi partzialeko langileek sartuko dituzten ordu osagarriak, eta erabiliko diren kontratu motak eta azpikontratazio-kasuak.

Bigarrena.- Lege honetako 8. artikuluko 3. paragrafoko a) lerroaldean aipatutako moduan, kontratuaren oinarritzako kopia jasotzeko eskumena; baita kontratuon luzapenen eta salaketan jakinarazpenak ere, gertatzen direnetik hurrengo hamar eguneko epean.

Hirugarrena.- Balantzea, galera eta irabazien kontua eta memoria ezagutzeko eskumena, eta sozietatea akzioak edo partizipazioak bada, bazkideei ezagutzeko ematen zaizkien beste agiri guztiak ezagutzeko eskumena, bazkideen baldintza berberetan.

Laugarrena.- Enpresaburuak berak hartutako erabakiak gauzatu baino lehen irizpena emateko eskumena, ondorengo gaietan:

- a) Plantillaren berregituraketak, eta plantilla kentzeak, bai osorik zein zati batean, bai behin betiko zein aldi baterako.
- b) Lanaldiak gutxitzea, eta instalazio guztiak edo zati batzuk lekuz aldatzea.
- c) Enpresako lanbide-prestakuntzako planak.
- d) Lanaren antolamendu eta kontrolerako sistemak ezarri edo berrikustea.

e) Denborak aztertzea, prima-sistemak edo pizgarri sistemak ezartzea, eta lanpostuen balorazioa.

Bosgarrena.- Enpresaren fusioak, zurgapenak edo "status" juridikoaren aldaketak enplegu-kopuruari eragiten badio, irizpena emateko eskumena.

Seigarrena.- Enpresan lan-kontratuatarako erabiltzen diren eredu idatziak ezagutzeko, eta lan-harremanak amaitzeko erabiltzen diren agiriak ezagutzeko eskumena.

Zazpigarrena.- Hutsegite oso larriengatik ezarritako zigor guztien berri izateko eskumena.

Zortzigarrena.- Hiru hilero, gutxienez, gai hauen berri izateko eskumena: absentismo-mailari buruzko estatistikak eta horien arrazoiak; laneko istripuak eta laneko gaixotasunak, eta horien ondorioak; ezbehar tasa; laneko ingurumenari buruzko aldian aldiko azterketak edo azterka bereziak; eta aurrezaintzarako erabiltzen diren mekanismoak.

Bederatzigarrena.-

a) Lan-arloan, Gizarte Segurantzaren eta enplegu arloan dauden arauak betetzen diren zaindu behar du, baita enpresan indarrean dauden itun, baldintza eta usadioak ere; eta, premiazkoa bada, bidezko diren lege-egintzak aurkeztu ahal izango dizkio enpresaburuari eta eskumenak dituzten erakunde edo epaitegiei.

b) Enpresan lana egiterakoan behar diren segurtasun eta higieneko baldintzak zaindu eta kontrolatu behar ditu, lege honetako 19. artikuluan aurreikusitako berezitasunak kontuan hartuta, eta hurrenkera hartan.

Hamargarrena.- Langileen edo beren sendikoen onerako enpresan eratutako lan sozialen kudeaketan parte hartu behar du, hitzarmen kolektiboan zehaztutako moduan.

Hamaikagarrena.- Produktibitateari eutsi eta produktibitatea gehitzeko bideratutako neurri guztiak ezartzea lortzeko, enpresako zuzendaritzarekin lankidetzan aritu behar da, hitzarmen kolektiboetan indututakoaren arabera.

Hamabigarrena.- Artikulu honetako lehenengo zenbakian aipatutako gai eta arazo guztien berri eman behar die bere ordezkariak, gaiok lan harremanetan zuzenean edo zeharka eragina daukaten edo eduki dezaketen neurrian.

Aipatutako araudian ezarritakoarekin bat etorrira, berariazko baimenik gabe sindikatuei laga dakizkien datuak dira LEaren 64.1 artikuluan berariaz jasotakoak.

Administrazio Publikoetan diharduten langileen ordezkari-entzako organoen eskumenei dagokienez, adierazi behar da ordezkari-entzako organo horiek araututa zeudela ekainaren 12ko 9/1997 Legearen bidez, baina lege hori indargabetu egin du duela gutxi (7. artikulua izan ezik, eta Estatutu berriaren DT5ean ezarritako aizan ezik) apirilaren 12ko 7/2007 Legeak, Funtzio Publikoaren Oinarriko estatutuarenak, indarrean baitago 2007ko apirilaren 13tik aurrera.

Funtzio Publikoaren Oinarriko Estatutu beraren 40. artikuluan, ordezkari-entzako erakundeei (Langileen Batzordea eta Langileen ordezkariak) ondorengo funtzioak egozten dizkie:

40. artikulua. Ordezkari-entzako erakundeen funtzioak eta legeztazioa:

1. Langileen Batzordeak eta Langileen Ordezkariak, hala balegokio, hurrengo funtzioak izango dituzte, dagozkien esparruetan:

a) Langileen politikari buruzko informazioa jaso, bai eta ordainketen garapenari, lanean egon daitekeen garapenari dagokion esparruan eta etekinak hobetzeko programari buruzko datuak ere.

b) Dagokion Herri Administrazioak eskatuta, txosten bat jaulki, instalazioen lekualdatze osoa edo zatikakoa eta ezarpena edo bere antolakuntza sistemak berrikustea eta lan prozedurak

c) Hutsegite oso larri bat dela eta ezarritako isun guztien gainean informazioa izatea.

d) Jakinaren gainean egotea eta entzunak izatea lanaldia eta lan orduak ezartzeko, bai eta oporren eta baimenen arauak ezartzeko ere.

e) Lan baldintzen, lan arriskuen prebentzioan, gizarte segurantzaren eta lanaren gaineko arauak betetzen direla zaintzea, eta, hala balegokio, eskumena daukaten erakundeen aurrean beharrezkoak diren lege akzioak erabiltzea.

f) Dagokien Administrazioarekin lan egiteko produktibitateari eusteko edo areagotzeko beharrezkoak diren neurri guztiak ezartzeko.

2. Langileen Batzordeak, elkarrekin, kideen gehiengoak horrela erabaki duelako eta, hala balegokio, Langileen Ordezkariek,, interesdunak direlako, legeztatuak izango dira, administrazio prozedurak hasteko eta beren funtzioen esparruari dagokien administrazio edo judizial bidezko akzioak erabiltzeko.

Ondorioz, langile publikoen ordezkariei laga dakizkiekeen datuak, adostasunik gabekoak, aipaturiko lege arauan agertzen direnak izango lirarteke.

Aurrekoa aipatu ondoren, eta eztabaida funtzio publikoko gaien inguruan aurkezten dela eta ikusita, ordezkariek sindikalei lanpostuen zerrendak jakinarazteko aukera, postuok betetzen dituzten pertsonen datuekin, bai eta langile publikoen izaera pertsonaleko datuak agertzen diren funtzio publikoko esparruko xedapenen kopia ere, funtzio publikoaren inguruko legedia aztertu behako genuke.

Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legeak, uztailaren 6koak, 16. artikuluan lanpostuen zerrenden izaera publikoa ezartzen du (Tokiko Udalbatzarrei badagokie beren Lurralde Historikoko Aldizkarian agertu beharko dute). Baina lanpostuen zerrenda hauek ez dute, Lege honen 15.1 artikuluan arabera, lanpostu bakoitza betetzen duten pertsonen datuak agertzen, baizik eta lanpostu bakoitzaren ezaugarriak, hau da *"bere izendapena; atxikita dagoen saila edo zuzendaritza zentroa; dedikazio erregimena; lana betetzeko eskatutako baldintzak, eta horien artean derrigorrez egokitutako hizkuntz eskakizuna eta derrigorrezkotasuna data; atxikitako Talde edo Eskala edo lan kategoria eta lanpostuaren maila, horniketa sistema eta langile funtzionarioek postuak betetzen dituztenean dagokien berariazko osagarria."*

Era berean, Funtzio Publikorako Erreformatarako Neurrien 30/1984 Legeak, abuztuaren 2koak, 15.3 artikuluan lanpostuen zerrenden izaera publikoa ezartzen du, baina ez du, ezta ere, 1b) paragrafoan, zerrenden barne, langile publiko bakoitzaren izaera pertsonaleko datuak agertzea. Zentzu honetan, Funtzio Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 7/2007 legeak, apirilaren 12koak, 74. artikuluan gauza bera ezartzen du.

Agertu duguna dela eta, ikusten dugu, lanpostuen zerrendak lege, postuen zerrenda gisa eratzten dira, baina ez pertsonen zerrenda gisa.

Beraz, funtzio publikoaren inguruan indarrean dagoen araudia aztertuta (estatukoa eta erkidegoarena), ondoriozta daiteke araudi honek ez duela pertsonen datuak jakinarazterik baimentzen, kontsulta honek erreferentzia egiten dion terminoetan.

VI

Ezarri daitekeen araudia aipatu ondoren, aztertutako aipaturiko lege arau guztiak aztertu ondoren, ez dirudi ordezkariek sindikalei lanpostu bakoitza betetzen duten pertsonen informazio zehatza jasotzeko eskubiderik ez dutela, ez eta funtzio publikoaren inguruan egondako xedapen guztiak, udal langileen datu pertsonalekin, ezagutzeko aukera ere

Ez dugu uste, bestalde, Udalari langile publikoen informazioa ematera behartu daitekeenek, SALOaren 2.1d) artikuluko jardura sindikaleko eskubide orokorretik.

Une honetan, beraz, beharrezkoa da aipatzea aztertutako jurisprudentzia konstituzionala, funtsezko eskubide bat ere ez dela absolutua esaten duena (guztiengatik, 156/2001 eta 70/2002

KAE) eta aipatzen ari den doktrina iraunkorra, funtsezko bi eskubide hauen arteko lotura, proportzionaltasun eta oreka oinarrian egin behar dena, eta ez hierarkia oinarri batean, eskubide bat bestearen gainetik ez egoteko.

Zentzu honetan, gogorarazi beharko genuke izaera pertsonaleko datuak babesteko oinarrik nagusia datuen kalitatearen oinarria da, DBLOren 4.1.artikuluari jasotzen dena:

Izaera pertsonaleko datuak tratatzeko bil daitezke bakarrik, bai eta tratamendu horren mende jartzeko ere, datu horiek egoki eta bidezkoak izateaz gain, gehiegizkoak ez direnean, datu horiek zein esparrutan eta zein xederekin lortu eta halakoei begira. Gainera, esparru eta xedeak zehatzak, argiak eta legítimoak izan beharko dira.

DBLOren proportzionaltasun oinarriak ezartzen du izaera pertsonaleko datua guztiak eragin dituen helbururako ematea.

Ez da egokia oinarriaren inguruko Konstituzio Auzitegiaren doktrina zehatz aipatzea. Guri dagokigunari, honakoak aipatu genitzake: 66/1995 KAE, 5. oinarri juridikoa; 55/1996 6., 7., 8. eta 9. oinarri juridikoak eta 2077/1996 4. oinarri juridikoa), proportzionaltasun irizpideak funtsezko eskubidea gainditzeko duen jakiteko, beharrezkoa da hiru baldintza hauek betetzen dituen zehaztea: neurriak nahi den helburua lor dezakeen (egokitasun irizpidea); helburua eraginkortasun berarekin lortzeko bestelako neurri apalagorik ez dagoenean beharrezkoa den (**behar irizpidea**) eta azkenik, neurria orekatua eta neurtutakoa ote den, onurak eta abantailak kalteak baino gehiago izateko (**proportzionaltasun irizpidea zentzu zehatzean**).

Emandako konstituzio jurisprudentziarekin bat, Bulego honek uste du XXX Udalak langile publikoen datu pertsonalak orokorrean lagatzea, askatasun sindikalaren eskubidea garatu ahal izateko, gehiegizkoa, zentzugabekoa, eta ondorioz, datuen babesaren kontrakoa izango litzatekeela, lege babesik ez baitu.

Udalak ordezkari sindikalen esku utzi behar du hauek legea aitortuta dauzkaten eskubide eta zereginak(informazioa, zaintza...) bete ditzaten behar duten informazioa. Hori eztaba daezina da. Baina, guri eustez, zeregin horiek betetzea ez du eskatzen, oro ohar, herri langileen datu pertsonalak lagatzea, legeak adierazitakoetan izan ezik.

Gure ustez, datu horiek bakarrik komunika litezke baldin eta ezinbestekoa eta justifikatua bada legeak ordezkari sindikalei aitortzen dizkien zereginak bete daitezkeela bermatzeko, eta halakoetan, proportzionaltasunaren printzipioa aintzat hartuta, sakrifika daiteke datuak babesteko eskubidea. Bestela, informazio hori eman beharko da banandurik, DBLOren 3 f) artikulua ezarritako prozedurari jarraiki, edo beharrezkoa izango da interesdunaren baimena lortzea. Baimen hori berariazko aizan beharko da lagatzen diren datuak babes berezikoak badira, halaxe arautzen baitu DBLOren 7. artikulua.

Edonola ere, Udalak egin beharko du neurketa lan hori, jaso diren helburua kontuan hartuta.

Zentzu honetan, ezinbestean aipatu behar da datuak babesteko defentsak bat egin behar duela askatasun sindikalaren eskubidearekin, doktrina batzuek esaten dutenez, *“persona eremuaren eskubide eta askatasunak arriskuan jarrita, langilearen eskubide eta askatasunak arriskuan jartzen dira baita ere.”*

Baieztape honek esanahia du kontuan hartzen badugu aske sindikatzeko eskubideak daukan dimentsio indibiduala, edozein sindikatura lotzeko langile guztiek daukaten eskubidea. Eta, aske sindikatzeko eskubide hau bereziki babesten da Datuak Babesteko Lege Organikoan, sindikatu afiliazioaren datua bereziki samurra den datutzat hartzen delako, eta horregatik datu honen trataera aurrera eraman daiteke ukituak idatziz eta zehazki onartzen duenean (DBLOA 7.2 artikulua).

Izan ere, KA epai asko daude, eta horietan Auzitegiak uste izan du askatasun sindikalari eta datuak babesteko askatasunari min eman zaiola, helburu zehatz baterako emandako datu samur

bat (sindikatu afiliazioa), guztiz kontrakorakoa den beste helburu baterako erabiltzean (sindikatu zehatz batek deitutako greba dela eta langileen lansariak murrizteko), (urtarrilaren 13ko 11/1998 KAE; eta honen harira, maiatzaren 4ko 94/1998 KAE eta martxoaren 22ko 44/1999 KAE)

Azaldu denagatik, DBEBak Datuak Babesteko Madrileko Bulegoak apirilaren 3ko 1/2006 txostenean aipatzen dituen irizpideekin bat dator, funtsezko bi eskubideek kontra egiten dutenean.

Aipatu beharra dago, gainera, Datuak Babesteko Espainiako Agentziak 171/2004 txosten honen inguruan ere iritzia eman duela. Eta honen harira, sindikatu batek Valentziako Aldundiko lanpostuen zerrendak Internet bidez argitaratzeko, postua betetzen duten pertsona zehatza aipatuz, DBLOrekin egokia ote zen Bulegoari galdetu zionean, bulego honek 171/2004 txostena hartu zuen oinarritzat.

DBEBaren txosten hau bukatzen da datu hauek jakinarazteak ez du lege babesik aurkitzen 30/1984 Legean. Eta, gainera, aurreko txostenetan izandako irizpideak errepikatzen ditu, zehatzago, 2000ko martxoaren 19ko txostenean esandakoa (Administrazioko langileen ordezkariak beren nominen inguruko datu batzuk jakinaraztekoa). Eta bestea, 1993ko uztailaren 23koa. Honetan ondorioztatzen du langile publikoen izaera pertsonaleko datuen gehiegizko lagatzea beren adostasuna izan gabe, Legea zehazki bere izaera publikoa ezartzen duen datuak izan ezik. Hau guztia DBLOren kontrakoa da.

Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren doktrina hau Datuak Babesteko Euskal Bulegoak bere gain hartu du CN 11/2005 Txostenean, Bizkaiko Foru Aldundiko funtzionario publiko batzuen ordainsarien datuak izateko aukeraren ingurukoa.

ONDORIOAK

1. Lanpostuen zerrendak ordezkari sindikalei ematea lanpostu bakoitza betetzen duten pertsonak zehatzuz, datuen babeserako inguruko araudian ez du lege babesik.
2. Langile publikoen izaera pertsonaleko datuak ordezkari sindikalei lagatze orokorra, langileen adostasunik gabe, Legeak aurreikusten dituen ustezkoetan izan ezik, kontrakoa da, baita ere, datuen babesaren inguruko araudiari, babesek legalik ez baitu.
3. Kotsultak erreferentzia egiten dion informazioa lagatzea eskubidearekin bat etorriko da behin banandu ondoren, DBLOren 3f) artikularen prozeduraren arabera, edo datuen titularraren adostasuna aurretik dagoenean, zehatz izan beharko dena bereziki babestutako datuekin, lege organikoaren 7. artikuluan esaten den bezala.
4. Izaera Pertsonaleko datuen defentsa askatasun sindikalarekin bateratuko da, eta Udaletxeari dagokio funtsezko bi eskubide hauen artean oreka mantentzea.

2. EGUNEKO EGOITZA BATEN ERABILTZAILEEN DATUAK LAGATZEA UDALBATZARREKO TALDE POLITIKO BATI

ABC-ko UDALAK EGINDAKO KONTSULTA DELA-ETA EGINDAKO TXOSTENA, OPOSIZIOAREN TALDE BATEK EGUNEKO EGOITZA BATEKO ERABILTZAILEEN DATUAK ETA ESKAINTZEN DIREN ZERBITZUEN GAINEKO DATUAK ESKATZEARI BURUZKOA.

CN07-007

AURREKARIAK

2007ko otsailaren 12an Datuak Babesteko Euskal Bulegoan ABCko Udalak igorritako posta elektronikoa jaso zen, eta honakoa aipatzen zuen hitzez hitz:

Izandako elkarriketaren ondoren, XXX Udal Taldeak XX eguneko egoitzari buruz egindako eskakizuna igortzen dut.

Talde politikoaren hitzez hitzezko eskaera honako hau da:

1. 2006ko abuztutik gaur arte Gizarteratze soziokulturaleko Eguneko Egoitzaren erabiltzaileen zerrenda.

2 Erabiltzaile bakoitzak jasotzen dituen zerbitzu motak.

Egoera honetan uste dudanez udalaren ordezkari politiko batek gobernu taldearen gaineko kontrola aurrera eramateko eskubideak, informaziorako eskubidearekin eta izaera pertsonaleko datuen babeserako eskubidearekin elkar jotzen duela, posta hau bidaltzen dizuet eskaeraren inguruan zein jokabide izan behar dudan jakiteko.”

2/2004 LEGEak, otsailaren 25ekoak, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoak funtzio hau egokitzen dio:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkieten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkieten galderei erantzutea.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio, aurretik aipaturiko legedia dela eta, egindako kontsultari buruzko txostena egitea.

GOGOETAK

I

Kontsulta honen oinarrian izaera pertsonaleko babeserako eskubidearen eta gai publikoetan parte hartzeko eskubidearen artean dagoen tirabira argitzea dago. Eskatzaileak datuen lagatzea nahi du, eta DBLOren 3i) artikuluan honela definitzen da: datuak jakinaraztea interesduna ez den beste pertsona bati

Gai publikoetan parte hartzeko eskubidea Konstituzioaren 23. artikuluan betetzen da:

1. Herritarrek eskubidea dute gai publikoetan parte hartzeko, zuzenean edo ordezkarien bitartez; ordezkariok libreki aukeratuko dira, sufragio unibertsalez, aldian behingo hauteskundeetan.

2. Herritarrek eskubidea dute funtzio eta kargu publikoetara berdintasunean iristeko, legeek ezarritako betekizunekin.

Era berean, berdintasunean funtzio eta kargu publikoetara iristeko eskubidea dute, legeek adierazten dituzten betebeharren arabera.

Gai Publikoetan parte hartzeko konstituzio oinarrian islatzen da, eta Toki Araubidearen Oinarrien Legearen 77. artikuluan dago.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 77. artikulua ondorengoa esaten du:

Udalbatzaren kide guztiek honako eskubidea dute: Alkate edo Presidentearengandik edo Gobernu Batzordearengatik eta Udalbatzaren zerbitzuen esku daudenengatik edozein aurrekari, datu edo informazio edozein informazio eskuratzeko eskubidea dute.

Toki Udalbatzen antolakuntza, funtzionamendua eta Erregimen Juridikoaren 14tik 16rako artikuluetan zehazten da eskaera egiteko modua, bai eta kontsulta egiteko xehetasunak zeintzuk diren ere.

Gainera, bertako hautetsien informaziorako eskubidea dela eta, 1995ko abenduaren 9ko Auzitegi Gorenaren Epaia aipatu beharra dago:

“Udalbatzaren kide guztien eskubidea da beren karguetarako beharrezkoa den informazio guztia izatea. Hau beharrezkoa da Udalbatzen jardunbide demokratikorako eta gai publikoetan parte hartzeko funtsezko oinarria betetzeko (EKren 23. artikulutik datorrena). Informazio egokia derrigorrezkoa da Osoko Bilkuretako deliberamenduetan eta bozketetan parte hartzeko, eta fiskalizazio kontrol jarduera zuzenerako edo erantzukizunen kudeaketarako.”

Zinegotziek informazioa eskatzeko duten eskubidea egiaztatzen denean, baieztatu behar dugu, eskubide honetan salbuespen bat dagoela eta honek datu pertsonalen titularren beharrezko adostasuna ez izateko aukera ematen duela.

Datuen Babeserako Lege Organikoaren 11.2 artikuluan, datuen babesaren inguruko adostasunaren oinarri orokorraren salbuespenak arautzen dira. Eta horietako bat, a) atalean agertzen da.

“lagatzea legeak onartzen duenean”

Toki Araubidearen Oinarrien Legeak, beraz, datuen titularren adostasuna salbuetsi dezake. Udal taldeei, horrenbestez, titularren adostasunik gabe informazioa laga dakieke, baina informazio hau ñabartu behar da.

II

Zinegotzien funtsezko eskubidea argi dagoen arren, argiago dago funtsezko eskubide bat ere ez dela absolutua.

“... konstituzionalki garrantzitsuak diren interesen aurrean etsi daiteke, baina beharrezkoa izango da murrizketa hori, baldin eta konstituzionalki legezkoa bada, neurrikoa, eta, edonola ere, aintzat hartzen badu eskubidearen funtsa (SSTC 57/1994, otsailaren 28koak, F. 6; 143/1994, maiatzaren 9koa, F. 6 98/2000, apirilaren 10ekoa , F. 5, 186/2000, uztailaren 10ekoa , F. 5; 156/2001, uztailaren 2koa, F. 4) (STC 70/2002, apirilaren 3koa, F. 10).”

Konstituzionalki garrantzitsuak diren interesen arteko oreka aurkitzea zaila da, tokiko gobernuaren eta oposizioaren arteko harremanen barnean baitago. DBLOk ezin du, eta ez luke, eremu honetan esku hartu behar, Espainiako Datuen Babeserako Bulegoak 327/2005 txostenean aipatzen duen bezala.

“...Ez dagokio Espainiako Datuen Babeserako Bulegoari arau honen interpretaziorik egitea ,hau da, jakinarazi beharreko datuen proportzionaltasunaren balorazioa egitea..”

Talde politikoaren eskaera ondorengoa da:

“2006ko abuztutik gaur arte Gizarteratze soziokulturaleko Eguneko Egoitzaren erabiltzaileen zerrenda.”

Udal taldeak “*erabiltzaileen zerrenda*” eskatzen du. “Zerrenda” terminoa, horrela definitzen da:

“Edozein motatako izen edo elementuen zerrenda”

Gure ustez hau da udal taldeak bere eskaeran zerrenda eskatzeko erabilitako adiera. Eskaera, beraz, pertsonen izen-abizenen zerrenda batean datzala dirudi. Bulegoari emandako datuekin, ezinezkoa da zehaztea aipaturiko datu pertsonalak laga daitezkeen edo ez, eta bestalde, ez da Bulego honen betebeharra.

Datuen edozein trataeraren aurrean, beti jarri behar da aurretik datuen babesaren inguruko araudiaren oinarri nagusia; hau da, datuen kalitatearen oinarria, eta honekin lotuta,

” Izaera pertsonaleko datuak beren tratamendurako soilik jasoko dira, egokiak, zehatzak eta ez gehiegizkoak direnean, jaso diren helburu zehatza, agerikoa eta legezkoa betetzeko.”

Udal zerbitzuek neurtuko dute datuak egokiak diren edo gehiegizkoak diren eskaera legeztatzen duen eskubidearekin lotuta; hau da, parte hartze politikorako eskubidearekin. Gehiegizkoa izango litzateke erabiltzaileen izen-abizenen datuak lagatzea, zinegotzien informazio eskubidea urratu gabe, eta horretarako izen-abizenak eman beharrean eskatutako datetan agertzen den erabiltzailearen zenbakia eman daiteke. hau da, joera bermatzaileago bat hartuz datuen babesaren inguruan. Hala ere, tokiko zerbitzuek egin beharko dute neurketa.

Erantzun bera eman diezaiokegu udal taldeak egindako bigarren eskakizunari, hau da, “*erabiltzaile bakoitzak jasotzen duen zerbitzu mota*”

Kontuan hartu behar da erabiltzaile bakoitzaren zerbitzu moten datuak lagatzea eskatzean, balitekeela bereziki babestutako dauden datuak laga izatea, DBLOren 7. artikuluan araututakoak. Bakoitzaren zerbitzuen datuak jakinaraziz gero, udal gobernuaren kontrol lanerako nahikoa izango balitz, BDEBaren joerarekin adeitsuagoa izango litzateke.

III

Datuak Babesteko Euskal Bulegoa oso arduratsua izan behar da bere eskumenen kanpo dauden esku-sartzeak ekiditeko, eta aldi berean, udal autonomia errespetatzeko, Bulego honen betebeharra ere badelako datuen babesean ezarri beharreko arauak ezartzea.

Illo horretatik, eta laguntzea baino nahi ez delako, aipatu behar da egoera askotan, baliteke, hobeto formulatutako eskaera batek bilatzen den helburua lortzen lagunduko lukeela, datuen titularraren funtsezko eskubidean eraginik izan gabe.

DBLOren 11.6 artikuluan agertzen da funtsezko eskubideak ez duela inolako eraginik izango ageriko ustezkoa agertzen denean

“Jakinaraztea bereizitako prozedura aurretik egiten bada, aurreko ataletan ezarritakoa ez da aplikagarria izango.”

Bereizitako datuen lagatzea, datuen babesaren ikuspuntutik, ez du arazorik azaltzen, eta Bulego honen aburuz, identifikatutako edo identifikagarriak diren pertsonen inguruko datuak lortzeko helburua bera lortzea ahalbidetzen du.

Gai honen inguruan praktika egoki batek, datu pertsonalen babeserako funtsezko **oinarriarekin** bat, eskaeraren motibazio argi bat eskatuko luke, nahi den helburua zein den agertzea eta zergatik eskatzen diren pertsona bat identifikatu ditzaketen datuak, eta are gehiago, **bereziki babestuta dauden datuak direnean**. Egoera honetan argi dago Administrazioak zuhurtziaz jokatu behar duela datuak jaso, tratatu eta lagatzerakoan.

Bestalde, Bulego honetan uste dugu udal taldeak badakiela Datuen Babeserako Lege Organikotik ondorioztatzen diren **betebehar eta erantzukizunak zeintzuk diren eta informazio hori erabili behar den eremuak zeintzuk diren**. Hala ere, Bulego honek ez du betebehar hauek

gogorazteko oztoporik ikusten, erreferentzia txiki baten bidez baino ez bada, DBLOren II. atalean adierazten diren datuen babeserako oinarri orokorrak eta ustezko honi aplikagarriak izan daitezkeen kasuak aipatzeko (sekreturako betebeharra, datuen segurtasuna, bereziki babestutako datuak, etab...).

ONDORIOA

Eskatutako datuen lagapena ez da izaera pertsonaleko datuen babeserako araudiaren kontrakoa, txosten honetan agertzen den terminoetan, eta bereziki erreferentzia eginez III atalean agertzen diren gogoetei.

3. OSAKIDETZAK LARRIALDIETAN ARTATUTAKO ETA AUTO ISTRIPUENGATIK INGRESATUTAKO PERTSONEN DATUAK LAGATZEA

“OSAKIDETZAK SAILEKO ZUZENDARITZA BATI ZENBAIT DATU LAGATZEKO AUKERA ETA ONDOREN HORIETAKO DATU BATZUK BARNE SAILEKO ZUZENDARITZARI LAGATZEKO” AUKERAREN INGURUAN EUSKO JAURLARITZAKO OSASUN SAILAK EGINDAKO KONTSULTA DELA ETA EGINDAKO TXOSTENA

CN07-009

AURREKARIAK

2007ko martxoaren 15ean Datuak Babesteko Euskal Bulegora Eusko Jaurlaritzaren XXX Zuzendaritzaren idatzi bat iritsi zen, aurretik aipaturiko gaiaren inguruan kontsulta egiteko.

Bidalitako idatziaren kontsulta ondorengoa adierazten da:

"Gure eskumenen ekintzarako beharrezkoak diren datuak jaso nahi genituzke; Osakidetzako ospitaletan auto istripuen ondorioz larrialdietan artatu eta ingresatutako pertsonen datuak, alegia. Beharrezko datua hauexek izango lirateke: ingresatu dituzten zentroaren kodigoa, izena, abizenak, sexua, jaioteguna, OTIa, probintzia, udalerria, kalea, ingresatu zeneko data eta ordua, alta jaso zueneko data eta ordua, altaren nondik norakoak, diagnostikoa, E kodigoa, araubide ekonomikoa eta jasotako laguntzaren kostua".

"Eskatutako datuak Zuzendaritza honen Epidemiologia fitxategian sartuko dira.... Eta adierazitako helburuen artean.... Osasun eta auto istripuen prebentziorako eta ikerketarako kanpainak egiteko helburua dago."

"Eskatutako datuek epidemiologia helburuetarako eskatzen dira, auto istripuen banaketa eta arrazoiak aztertu ahal izateko. Helburu hauek lortzeko epidemiologiak indibidualizatutako eta pertsonalizatutako informazioa behar du, eta horretarako, populazioaren lagin zabala behar da EAEko arazoaren benetako irudi bat emateko eta bere prebentzio eta kontrolerako beharrezkoak mekanismoak ezartzeko".

...

"Epidemiologia zaintza sistema bezala, Osasun Sailak beharrezkotzat jo du auto istripuen gaineko datuak jasotzeko erregistro bat ezartzea."

"Aipaturiko araudia oinarritzat harturik, Osasun Sailak aurreikusi du funtzio horiek aurrera eramateko datuak izaera pertsonaleko Epidemiologia fitxategian sartu behar direla".

"Datuak beharrezkoak zaizkigu istripu tasaren arrazoiak zeintzuk diren jakiteko, honek aukera ematen digulako Osakidetzan auto istripuak direla eta ingresatutako pertsonen azterketa estatistikoa egiteko. Estatistika azterketa honek, istripuaren kanpo arrazoiaren kodifikazioa eskatzen du, E kodigoa deiturikoa, eta Gaixotasunen Nazioarteko Estatistikaren eta osasunarekin lotutako arazoen araberako sailkapena egiten du, -bederatzigarren berrikustea-. Kode honek istripua nola gertatu den jakiteko aukera ematen du, ondoren egingo den azterketarako garrantzitsua. Era honetan, ingresatutako eta artatutako gaixoen bolumena zein den jakin dezakegu, bai eta beren zaurien larritasuna, kokapena edo erabilitako osasun baliabideak ere. Azterketa estatistikorako hurrengo aldagaiak erabiltzen dira: Sexua, adina, bizilekua, barrutia, saila, ingresatu zuteneko data, alta data, diagnostiko nagusia, bigarren mailako diagnostikoa, kanpo-eragina, bermatzailea eta prozesuaren kostua.

" Osakidetzan jaso diren auto istripuen zauritutakoak identifikatzeko beharra Sailaren eta Osakidetzako Antolaketa Zerbitzuen arteko kontratu-programen barruan izenpetu da, kalitate konpromiso gisa. E kodigoaren kodifikazioak istripuaren kanpo arrazoiak ezagutzeko aukera

ematen du eta zauri traumatikoak izan diren istripuetan lesioa eragin duen istripuaren nondik norakoa bezala ulertzen da”.

“ Zuzendaritza honetara Osakidetzak datuak lagatzea onartuko balitz, Osasun Sailak Barne Saileko XXX Zuzendaritzari etorkizunean datuen lagapen baten bideragarritasunari buruzko informazioa izan nahi genuke. Lagatzea istripu baten ondorioz Osakidetzan zaindutako pertsona baten heriotzaren datuetara murriztuko litzateke, uste baitugu berau oinarritzko datua dela”.

“Lagatze honen arrazoia, Osasun Saila eta Barne Saila Euskal Autonomia Erkidegoko Bide Segurtasun Batzordearen (urriaren 9an 22/1993 Dekretupean sortua) partaide direlako da. Batzorde hau aholkularitza eta topaketa organo gisa eratu da, Euskal Administrazio Publiko ezberdinen partaidetzarekin, bide segurtasunaren inguruan aritzeko.

“”Osasun Saila, bestelako Sail eta Instituzioen modura, Bide Segurtasunaren, Istripuen ondorengo arretaren, Ikerketa Zientifiko eta Teknikoaren eta Informazio Sistemen Zuzendaritza Komitearen eta Sektoreen Mahaiaren partaide da. XXX Zuzendaritzaren bidez bideratzen da mahai honetan daukan presentzia eta ekintza zerrenda batean islatzen da”.

“Barne Saileko XXX Zuzendaritzak istripua bera gertatu den unean izandako heriotzen berri du, baina ez istripua izan eta 30 egunera hil direnena. Datu honen berri izatea beharrezkoa zaio Estatuko gobernuarekin elkarlanean aritzeko zirkulazio istripuen estatistika bat osatzeko, 1993ko otsailaren 18ko Aginduari (istripuen estatistika aldatzen duena), 2. artikulua jasotzen duen bezala.

““Osakidetzak Osasun Sailari datuak lagatzea datuen babesaren araudiaren egokitzen bazaio, aurretik aipaturikoa, ZUZendaritza honek 30 egunerako hildakoen datuak izango lituzke. Eta beraz, uste dugu, datuok gobernu zentralari luza dakizkiokeela 15/1999 Legearen 21.1 artikulua babesean edo lege honen beraren 11.2 e) artikulua babesean, Administrazio Publikoari helburu estatistikoetarako datuen lagatzea delako.

2/2004 LEGEAK, otsailaren 25ekoa, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoak, Bulego honi 17. artikuluan honako eginkizuna ematen dio:

”Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkieten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkieten galderei erantzutea.

Goian aipatutako arautegiaren arabera, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egindako kontsultari erantzuteko txostena egitea.

GOGOETAK

I

Kontsulta honetan bi gai planteatzen dira. Lehenengoa egokia den ala ez datuen babeserako araudiaren arabera “Osakidetzak Osasun Saileko XXX Zuzendaritzari datuak lagatzea; auto istripuen ondorioz Osakidetzako larrialdietan artatu eta ospitaletan ingesatutako pertsonen datuak (izen-abizenak, sexua, jaioteguna, TISA..), hain zuzen ere.

Bigarrena, Eusko Jaurlaritzako Barne Saileko XXX Zuzendaritzari datuak lagatzeko aukera.

Lehenengo gaiari erantzuna eman aurretik, eskatzaileak Bulego honi egindako kontsultan oso argi agertzen ez diren zenbait alderdiren inguruko gogoetak egin beharko lirateke.

Lehenengo gogoeta, aipaturiko datuak lortzeko fitxategi edo fitxategien inguruan gordetzen den isiltasunaren ingurukoa da.

Aurrekoa aipatu da 200eko ekainaren 19an Osakidetzako Erakunde Publikoaren Administrazio Batzordeak izenpetutako Hitzarmenaren ondorioz sortutako fitxategia gainetik ikusiz gero ondoriozta daitekeelako eskatutako datuak jaso ditzaketen fitxategiak hainbat izan daitezkeela. Datuak jaso nahi den fitxategiaren arabera lagatze erregimena ezberdina izango da.

Bi fitxategi azpimarra daitezke:

“*Historia Klinikoa*”. Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritza da arduraduna.

“*Larrialdietako Asistentzia jardueraren Erregistroa*”. Larrialdietako kudeatzailea da arduraduna.

“*Trafikoa*”, larrialdietako kudeatzailearen ardura.

Bulego honi arduratzen dion beste gai bat kontsultan aurkezten den baieztapena. Honen arabera, “Eskatutako datuek epidemiologia helburuetarako eskatzen dira, auto istripuen banaketa eta arrazoiak aztertu ahal izateko. Helburu hauek lortzeko epidemiologiak indibidualizatutako eta pertsonalizatutako informazioa behar du, eta horretarako, populazioaren lagin zabala behar da EAEko arazoaren benetako irudi bat emateko eta bere prebentzio eta kontrolerako beharrezkoak mekanismoak ezartzeko”.

Bulego honen aburuz, eta kontuan hartuta ez dela epidemiologiak gaietan aditua, gai hau are gehiago korapilatzen da, planteamendu bera, aurrerago, modu honetan egiten denean:

“Datuak beharrezkoak zaizkigu istripu tasaren arrazoiak zeintzuk diren jakiteko, honek aukera ematen digulako Osakidetzan auto istripuak direla eta ingresatutako pertsonen azterketa estatistikoa egiteko. Estatistika azterketa honek, istripuaren kanpo arrazoiaren kodifikazioa eskatzen du, E kodigoa deiturikoa, eta Gaixotasunen Nazioarteko Estatistikaren eta osasunarekin lotutako arazoen araberrako sailkapena egiten du, -bederatzigarren berrikustea-. Kode honek istripua nola gertatu den jakiteko aukera ematen du, ondoren egingo den azterketarako garrantzitsua. Era honetan, ingresatutako eta artatutako gaixoen bolumena zein den jakin dezakegu, bai eta beren zaurien larritasuna, kokapena edo erabilitako osasun baliabideak ere. Azterketa estatistikorako hurrengo aldagaiak erabiltzen dira: Sexua, adina, bizilekua, barrutia, saila, ingresatu zuteneko data, alta data, diagnostiko nagusia, bigarren mailako diagnostikoa, kanpo-eragina, bermatzailea eta prozesuaren kostua. (azpimarratutakoa guk egin dugu)”

Adierazi nahi da, eta Bulegoak epidemiologiaren gaineko espezializazio falta berriro ere azpimarratuz, identifikazio pertsonalizatu eta indibidualizatutako beharren gaineko baieztapen bat egon arren, Bulego honek ezin dituela behar honen arrazoiak zeintzuk diren ikusi, are gehiago aurretik azpimarratutakoak kontuan hartuta.

II

Azterketa hauek egin ondoren, azaldutako gaiaren inguruko erantzun egokia ematen saiatu behar da. Lehenengoa:

Saiakera hau kontsulta egileak aurkezten duen ikuspuntu beretik egingo da, hau da, “epidemiologiaren” ikuspuntutik. Eta, beraz, DBLOren 12f) artikularen ikuspuntutik, ez Bulego honek aukera bakartzat jotzen duelako, ez eta egokiena delako erakundeak bere jarduerak garatzeko beharrezkoak dituen datuak jasotzeko ere, baizik eta kontsulta egileak berak aukeratu duelako.

Ikuspuntu honetatik ez luke zentzurik izango Bulego honek eztabaidatzea kontsulta egin duen erakundeak aitortzen duen helburua “ikerketa epidemiologikoa” egitearena den edo ez, 12f) artikularen terminoetan.

Arrazoi askok eramaten gaituzte aurreko gogoeta horretara.

Lehenik eta behin, kontsulta egin duen erakundeari, azaroaren 6ko 268/2001 Dekretuaren arabera, Osasun Saileko egitura organikoa onartzen duena, beste batzuen artean, honako

eskumena aurrera eramatea egokitzen zaio: "zaintza eta *azterketa epidemiologikoa egitea eta gaixotasunen prebentzioa*". Beraz, berak baino ezin du hobeto zehaztu nola ulertu behar den azterketa epidemiologikoa.

Bigarrenik, "Epidemiologia" fitxategiak 2005eko ekainaren 1eko Agindua, Osasun sailburuak Osasun saileko fitxategien izaera pertsonaleko datuak arautzen dituen, helburuetako bat bezala "*osasun prebentziorako eta auto istripuetarako kanpainak egitea eta ikerketak*" ezartzen du. Honek baieztatzen du Sailak gaiaren inguruan duen ikuspuntua, Osasunaren Munduko Erakundeak daukan izaera jasotzen duena.

Ikuspuntu honetatik beraz, DBLOren 11. artikuluko 2f) paragrafoak izaera pertsonaleko datuak lagatzeko baimena salbuesten du, lagatzea azterketa epidemiologikorako erabiltzen denean, erkidegoko edo estatuko osasunaren inguruko legeriak bat esaten duenarekin.

Azterketa epidemiologikoetarako izaera pertsonaleko datuak lagatzeko araubide juridikoa da, beraz, bi araudien edukia.

Edo, bestela esanda, puntu honetan, osasun araudiak DBLOrena arautzen du, Konstituzio Auzitegiaren doktrinara egokitzen den aipamena egiten duelako

Bi araudi hauen harremana, Bulego honen ustez, ez da bat bestearen gainetik egongo, maila edo zehaztasunagatik, baizik eta bien aplikazioan egongo da, DBLOk erkidegoko edo estatuko osasun legeriari egiten dion aipamenean ikus daitekeen bezala.

Zentzu honetan, apirilaren 25eko 14/1986 Osasun Orokorreko Legeak eta ekainaren 26ko 8/1987 Euskadiko Osasun Plangintzako Eusko Legebiltzarreko Legeak, alde batetik, osasun erakunde publikoetan izandako egonaldia eta prozesuaren inguruko informazioaren babesa bermatzen dio gaixoei (10.3 eta 10.1 artikulua hurrenez hurren). Bestetik, osasun sistemaren jardueratzat hartzen da azterketa epidemiologikoak egitea osasun arriskuen prebentzioan eraginkorragoa izateko (8.1 eta 9a) artikulua hurrenez hurren).

Bi arau hauek, bestalde, ez dute arautzen azterketa epidemiologikoa egiteko osasun sistemak garatuko duen modua, eta are gehiago, azterketa hauek historia klinikoaren datuak eskatzen dituztenean, kontsultan aipatzen den ustezkoan bezala.

Azaroaren 14ko 41/2002 Gaixoaren Autonomiaren, Eskubideen eta Betebeharren inguruko Informazio eta Dokumentazio Klinikoaren Lege Arautzaile Orokorrak, bere 16.artikuluaren aurreikusi du historia klinikoaren erabilera. 3. paragrafoan ezartzen du epidemiologiko, osasun publikoko, ikerketako edo irakaskuntzako helburuetarako historia klinikoa izateak, gaixoaren datu identifikagarriak babestu behar dituela asistentzia kliniko izaeratik banandu beharrekoa. Beraz, orokorrean, anonimatua gorde beharko da, gaixoak kontrakoa egiteko baimena eman ez badu.

Aurrekotik atera daitekeen ondorioa da, arau orokor bezala, historia klinikoan azaltzen diren Txertaketa datuak ezin zaizkiola hirugarren bati laga azterketa epidemiologikoak egiteko. Horretarako ukituaren adostasuna izan beharko du.

"Arau orokor gisa" adierazpena sartzeak adierazten du posible dela komunikazioa egitea titularra identifikatzean eta bere adostasunik gabe, egoera berezietan.

III

Araubide juridikotik Bulego honek atera dezakeen ondorioa da hau, eta laguntzeko borondatearekin, beste irizpen batzuetan uste izan duelako kontsulta egileak beharrezko zituen datuak beste bide batzuetatik lortzeko aukera zuela.

Aukera hau, beti Bulego honen ustez, zailagoa da azaltzen zaigun kasu honetan. Beste kasu horietan (berezi txertaketarena) ikusten zen beharrezkoa zela titularraren datuak izatea nahi zen helburua lortzeko, kasu honetan, aldiz, eta txostenaren lehenengo puntuan azaldu den bezala, Bulego honi zaila iruditzen zaio identifikazio honen beharra finkatzea.

Aurrekoari gehitu behar zaio ez Zuzendaritzaren azalpenek ez eta epidemiologiaren inguruko araudiak ere,oro har, ez dutela titularrak identifikatzeko beharrik argitzen.

IV

Azaldutako bigarren gaiaren inguruan, ikusi behar da kontsulta egin duen Zuzendaritzari lehenengoari emandako erantzunak baldintzatzen diola. Baina kontsulta egileak berak datuen muga ezartzen dute, eta "Osakidetzan artatutako pertsonen heriotzen datuak" jaso nahi dituela soilik aipatzen du.

Hori horrela izango balitz, ulertu beharko litzateke, datuaren izaerarengatik, datu honek beti hildako bati erreferentzia egingo diola. Eta, beraz, Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren doktrinarekin bat, ezingo litzateke datuak babesteko araudia ezarri, DBLOk bere eremua mugatzen duelako pertsonen eskubideen alde, eta heriotza da pertsonalitatea galtzearen arrazoiatariko bat.

Era honetan, eta datuak hildako pertsona bati beti erreferentzia egiten dionean, eta identifikatutako edo identifikagarria den beste pertsona bati buruzko informaziorik ez duenean, datua lagatzeak ez luke arazorik izango datuen babesaren ikuspuntutik, edo Datuak Babesteko Espainiako Agentziak ezartzen duen bezala:

"Hala, bada, datuak babesteko oinarrizko eskubidea da norbanakoak erabakitzea berari buruzko informazioa hirugarren batek jakin dezakeen edo ez, edo erabili dezakeen; horren ondorioz, interesdunak baimena eman behar du datuak laga eta beste batek erabil ditzan, eta horren berri izan behar du. Argi dago eskubide hori desagertu egiten dela heriotzarekin batera, eta, beraz, **hildakoen datuen erabilera ez dago DBLOren aplikazio-eremuaren barruan**. Horrenbestez, datuen jabeak ez beste inork erabil dezake datu horietara jotzeko eskubidea, eta, beraz, interesdunaren heriotzak berekin dakar hirugarren batek ezin erabili izatea eskubide hori e hildakoaren izenean."

ONDORIOAK

Eskatutako datuen lagapena ez zaio DBLOren 11.2 f) artikuluan aurreikusten denari egokitzen.

Datuak lagatzeko planteaturiko gaia Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren eskumenen kanpo dago txosten honen IV gogoetan adierazten denarekin bat etorrita.

4. ERROLDAREN DATUAK LAGATZEA UDALEKO BESTE SAIL BATZUEI

XXX UDALAK BERTAKO UDALEKO BESTE SAIL EDO ZERBITZUEI BEREN UDAL ESKUMENAK AURRERA ERAMAN AHAL IZATEKO DATUAK LAGATZEAREN INGURUAN EGINDAKO KONTSULTARI ERANTZUTEKO EGINDAKO TXOSTENA

CN07-010

AURREKARIAK

2007ko martxoaren 19an XXX Udaleko Idazkaritzaren idatzia jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Goian aipatutakoari buruzko kontsulta egiten zuen idatziak.

Igorritako idazkian ondorengo esaten da, hitzez hitz:

“Udal honetan ohikoa da udalaren beste sail batzuetatik biztanleen errolden datuak eskatzea dagozkien eskumenak aurrera eraman ahal izateko (euskara, kultura, gizarte laguntza sustatzeko...).

Adibide gisa:

- Euskara Sailean jaioberrien euskarazko abestiak dituen CD bat oparitzeko, azken hilabeteen jaiotako umeen zerrenda eskatu dute (izen-abizenak, jaioteguna eta helbidea).
- Ingurumen Sailak, zuhaitzaren eguna ospatzeko eta azken urtean jaio den ume bakoitzaren izena zuhaitz bakoitzari jartzeko, epe honetan jaiotakoen izen-abizenak eta helbidea eskatu dute.
- Gizarte Ongizatearen Sailean, hildakoen zerrenda eskatzen da espedienteak artxibatze.
- Kultura Sailak adin tarte batean dauden emakumeen izen-abizenak eta helbidea eskatu dute Udalak antolatzen dituen eskulan, margolaritza eta abarreko ikastaroei buruzko informazioa bidaltzeko.

Kasuistika zabal hau alde batera, hainbat zalantza sortzen zaizkit datuok lagatzeko zuzentasunari buruzkoak, udal-erroldaren araubide juridikoari erreparatzen badiogu eta kontuan hartuta udal-errolda bere pean dagoela.

Egokia al da udal-erroldako datuak sailei edo Udalaren zerbitzuei, kasu honetan, bere eskumenak aurrera eramateko datuok beharrezkoak direnean lagatzea?

Otsailaren 25eko 2/2004 Legeak, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoak, 17. artikularen n. Paragrafoan Datuak Babesteko Euskal Bulego honi ondorengo funtzioak esleitzen dizkio:

Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea.

Goian aipatutako arautegiaren arabera, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egindako kontsultari erantzuteko txostena bidaltzea.

GOGOETAK

I

Kontsultaren azalpenetatik ondorioztatzen da, eskatzaileari arduratzen dion arazoari erantzun bat emateko, araudi juridikora hurbildu behar dela, udal-errolda bere pean dagoena.

Beste alde batetik, eta interesekoa den neurrian, komeni da udal-errola zein araudiren pean dagoen jakitea. Toki-araubidearen Oinarrien Legearen 15., 16. eta 17. artikuluetan dago, eta, bestetik, TOL aldatzeko urtarilaren 10eko 4/1996 Legearen eta azaroaren 20ko Atzeritartasuneko 14/2003 Lege Organikoaren idazkuntzan.

Interesgarria da 16. artikulua aipatzea:

“1. Udalerriko errolda udalerriko auzotarrak jasota agertzen dituen administrazio-erregistroa da. Erroldako zehaztasunak udalerrian bizileku aizan eta bertan ohiko egoitza izatearen froga dira. Zehaztasun horien gainean emandako ziurtagiriak agiri publiko eta fede-emaileak izango dira administrazio-ondorio guztietarako.

Udalerriko erroldan inskribatzeak lege honetako 15. artikuluan xedatutakoaren arabera baino ez du izango eraginik, eta inskripzioa eragin duen gertaerak dirauen artekoa izango da; nolanahi ere, aldiro berritu beharko da, bi urtetik behin, bizileku iraunkorra izateko baimeni ez duten Europako Erkidegokoak ez diren atzeritarren inskripzioaren kasuan.

Aurreko lerroaldean aipatutako epea igarotzea, baldin eta interesatuak inskripzioa berritu ez badu, aldiro berritu behar diren inskripzioen iraungipena erabakitzeak arrazoi izango da. Kasu horretan, interesatuari aldeztu aurretik entzun beharrik izan gabe aldarrikatuko da inskripzioaren iraungipena.

2.- Udalerriko erroldako inskripzioan hauek dira nahitaez jaso beharreko zehaztasun bakarrak:

Izena eta abizenak.

Sexua

Ohiko egoitza

Naziotasuna

Jaiotekua eta jaioteguna

f) Nortasun-agiri nazionalaren zenbakia; edo, atzeritarren kasuan:

Espainiako agintariak emandakoa izan eta indarrean dagoen bizileku-txartelaren zenbakia, edo halakorik eduki ezean, jatorrizko herrialdeko agintariak eman eta indarrean dagoen nortasuna egiaztatzeko agiriaren edo pasaportearen zenbakia, bai Europar Batasuneko kide diren estatuetako herritarren kasuan, zein Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioan parte diren beste estatuetako herritarren kasuan, nahiz nazioarteko itunen baten indarrez aipatutako estatuetako herritarrentzat aurreikusitako araubide juridikoa zabaltzen zaien estatuetako herritarren kasuan. Akordioan part ediren beste estatuetako herritarren kasuan, nahiz nazioarteko itunen baten indarrez aipatutako estatuetako herritarrentzat aurreikusitako araubide juridikoa zabaltzen zaien estatuetako herritarren kasuan.

Espainiako agintariak emandakoa izan eta indarrean dagoen agirian datorren atzeritar-identifikazioaren zenbakia, edo halako agirien titular ez direlako halakorik eduki ezean, jatorrizko herrialdeko agintariak eman eta indarrean dagoen pasaportearen zenbakia, paragrafo honetako aurreko puntuan jaso ez diren estatuetako herritarren kasuan. g) Bakoitzak daukan eskolako ziurtagiria edo titulua, edo titulu akademikoa.

h) Hautesle-errolda egiteko beharrezkoak diren beste zehaztasun guztiak, Konstituzioan onartutako oinarriko eskubideen errespetua bermatuta betiere.

3. Udalerriko erroldako zehaztasunak doakionaren aldeztu aurretik gabe emango zaizkie zehaztasunok eska ditzaten beste administrazio publikoei, bakoitzari bere eskumenak betetzeko beharrezkoak dituenen bakarrik, eta bizilekuari zein egoitzari dagokienez zehaztasunok esanguratsuak diren gaietarako soil-soilik. Balio dezakete, halaber, estatistikako isilekotasunaren menpeko estatistika ofizialak egiteko, Estatistikako Funtzio Publikoaren

maiatzaren 9ko 12/1989 Legean eta gai horren gainean eskumenak dituzten autonomia-erkidegoetako estatistika legeetan aurreikusitako eran.

II

15/1999 Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko Legeak, 11.1 artikuluan, honakoa ezartzen du:

Tratamenduaren objektu diren izaera pertsonaleko datuak hirugarren bati komunika dakizkioke soil-soilik datu-lagatzailearen eta datu-hartzailearen eginkizun legitimoekin zuzeneko lotura duten xedeak betetzeko; interesdunak aurretiaz horren inguruko adostasuna eman beharko du.

Artikulu honen 2. paragrafoan adostasunaren oinarriaren salbuespenak azaltzen dira, eta guri dagokigunaren ingurukoa a) paragrafoa da:

Aurreko idatz-zatian ezarritako adostasuna ez da beharrezkoa izango:

a) Legeak baimentzen duenean lagapena.

b) Iturriek jasotako datuak direnean

Toki-araubidearen Oinarrien Legearen 16.3 artikulua osatzen du "legea", DBLOren 11.2 artikulua aipatzen duena. Artikulu honek ahalbidetuko luke interesdunaren adostasuna ez izatea bere izaera pertsonaleko datuak lagatzeko.

Bestalde, jurisprudentziak behin eta berriro ondorengoa adierazi du:

"Errolda datuak isilpekoak dira, erroldatutakoen inguruko datu pribatuak dituelako, Toki-araubidearen Oinarrien Legearen 16.2 artikuluan ikus daitekeen moduan. Araudi honetan ezartzen da derrigorrez Erroldan egon behar diren datuak zeintzuk diren eta Datu Pertsonalen Babeserako Lege Organikoaren pean daudenak, Aipaturiko Oinarrien Legearen 16.3 artikuluan duela salbuespen bakarra:

Toki-araubidearen Oinarrien Legearen 16. artikuluan esaten denarekin bat etorrira, "udal-eroldaren datuak" adierazpenak erreferentzia egiten dio Udal Erroldari egokitzen zaion helbururako datuak erabiltzea: udalerrian duen helbidea eta normalean bizi denarena, bizilagunaren baldintzaren eskuduntza, udalerriaren populazioa zenbatekoa den ikusteko. Helburu desberdin baterako erroldaren datuak erabiltzea, Izaera Pertsonaleko Datuen Babeserako araudian agertzen denaren arabera agintzen da, bere datuen trataerarako ukituaren adostasuna beharrezkoa.

Datuen babeserako kontrol organoen arteko bateragarritasun bat dago, uste dutelako 16.3. artikulua, alde batetik, erroldaren helburua lortzeko egindako datuen lagatzeari erreferentzia egiten diolako (helbidea edo ohiko bizilekua zehaztea, bizilagunaren baldintzaren eskuantza, udalaren populazioaren zehaztea, bizilekuaren eta helbidearen egiaztatzea, finean, nortasun datuak eta helbidearenak, ez bestelakorik). Eta bestalde, datu zehatz hauen lagako dira hartzailearen eskumenak garatzeko, (helbidea edo bizilekua datu garrantzitsu bat denean). Eta hartzaileak egiaztatu beharko du bere eskumenaren eta udal-eroldaren garrantzia.

Eskumenaren exijentziak suposatzen du helbururako oinarria izaera pertsonalen datuen babeserako 14/1999 legearen 4.2 artikuluan jasotzen dena:

2. Tratatu beharreko izaera pertsonaleko datuak zein xederekin bildu eta ezin izango dira erabili xede horrekin bateraezinak diren xedeetarako. Ez da bateraezina izango datu horien gainean etorkizunean egin daitekeen tratamendua, xede historiko, estatistiko edo zientifikoekin.

III

Eskumena bermatzeko beharra dela eta, aipatu behar da Tokiko-araubidearen Oinarrien Legeak ezartzen duenaz gain, Erroldari ezarriko zaio 15/1999 Legearen Bigarren Xedapen gehigarrian agertzen dena:

“Populazioaren fitxategi eta erregistroen xedea izango da Administrazio Publiko bakoitzaren organoak eta kasuan kasuko lurraldeetan bizi diren interesdunak komunikatzea, Administrazio Publiko bakoitzaren eskumenek eratorri harreman juridiko administratiboei dagokienez.”

Agindu hau Audientzia Nazionaleko Administrazioarekiko Auzietako Salak 21-4-2004 epaiak interpretatu du, bosgarren oinarri juridikoan:

“Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko Legearen agindu honetatik herritarren fitxategi edo erregistroak ulertu behar dira, eta horien artean udal-errolda dago, herri administrazioen eta herritarren arteko komunikazio organo gisa. Eta bere erabilera egokitzen zaion araudi juridikoaren eskumenarengatik ezarriko da.”

Epai berdinen seigarren oinarri juridikoak gaiarekin jarraitzen du:

“... ezin da esanko udalaren alkateak udal-erroldatik ... n jaiotako herritarrei eskutitzak bidaltzeko datuak eskatzeak ez du DBLOren 15/1999 legearen 4.2 artikulua urratzen du, datuok jaso zirenerako baino beste helburu desberdin baterako erabili ez direlako, baizik eta udal eskumen batzuk aurrera eramateko, gizarteratzekoak bezalakoak...”

Zentzu berean, Madrilgo Erkidegoko Datuak Babesteko Bulegoaren apirilaren 14ko 1/2004 Gomendioak erkidego honetako udalen udal-erroldaren datuak erabiltzeari eta tratatzeari buruz hitz egiten du (Zuzendariak xedapenean onartutako 2004ko apirilaren 14an (BOCM 104zbk. maiatzaren 3ko). Honakoa esaten du:

"Hala ere, eta erroldan derrigorrez egon behar duten datuen tipologiatik eratorria, izena eta helbideaz gain, adina, ikasketa maila etab., ulertu behar da udalak beste helburu baterako erabil ditzakeela, helburu nagusiekin bateragarria ez izanda, errolda datuak erabiltzea baimenduko dute.

Hau da, Tokiko-araubidearen Oinarrien Legearen 25 eta 26. artikuluetan legalki onartzen dituen Udalen eskumenen erabiltzea. Honen ondorioz, ulertzen da, udal-erroldaren datuak udalaren eskumenak ondo burutzeko beharrezkoak diren udal-erroldaren datuak erabiltzea ulertzen da, erroldaren erabilera nagusiarekin bateragarria delako.”

Aipaturiko oinarri juridikoak ezarri gero, ondoriozta dezakegu udal zerbitzu ezberdinek errolda datuak erabili ditzaketela, ardura baitzuen pean egon narren:

- 1.- Udalaren eskumenak aurrera eramateko beharrezkoak direnean erabiltzea (TAOL 25. eta 26. artikulua)
- 2.- Pertsonaren eta helbidearen datu identifikatzaileak soilik erabiltzea, azken hau, betiere, eskumenaren ariketarako garrantzitsua denean.

Hau da, errolda datuen eskaera bakoitzean udal eskumena egiaztatu beharko da, bai eta helbidearen datuaren garrantzia ere. Soilik eskaera bakoitzaren haztapan egokia egin ondoren, erabaki ahalko da eskaeraren zilegitasuna edo zilegitasun eza.

Edozelan ere, behin datuak lagata, hauen segurtasuna eta konfidentziasuna bermatuko duten neurriak aztertu beharko dira. Datu hauek komunikazio ekintzetarako soilik erabiliko dira, eta ezingo dira inoiz beste fitxategi batera gehitu.

ONDORIOA

Kontsultan azaltzen diren terminoetan, erroldari datuak lagatzea, eskubideari eta, zehazki, izaera pertsonaleko datuen babeserako araudiari lotu beharko zaio, betiere udal eskumena baieztatzen denean. Udalbatzaren zerbitzuek neurtu beharko dute egoera bakoitzean egin beharrekoa.

5. EAEko LURZORUAN POTENTZIALKI KUTSAGARRIAK DIREN EKINTZEN KOKALEKUEN INBENTARIOA BERRITZEKO IHOBE ENPRESA ESLEIPENDUNARI EAEko ERROLDAREN DATUAK LAGATZEA

XXX UDALARI IHOBE S.A INGURUMENA KUDEATZEKO SOZINETATE PUBLIKOAK EGINDAKO ESKAEREN INGURUAN BIDALITAKO KONTSULTARI BURUZ EGINDAKO TXOSTENA

CN07-016

AURREKARIAK

2007ko maiatzaren 7an XXX Udalaren Idazkaritzak bidalitako fax bat iritsi zen Datuak Babesteko Euskal Bulego honetara, goian aipaturiko gaiaren inguruan kontsulta egiteko:

Kontsulta idazkian ondorengo gaiak aipatzen ziren:

...” Idazki honekin batera datorren eskutitzaren arabera, 2007ko martxoan Udalean lagun bat agertu zen ekintza ekonomikoen udal-errola eskatzeko.”

Errola horretatik, ekintzei buruzko informazioa eta hauek egiten diren lekuari buruzko informazioa jaso zuen.

Ondoren, informazio guztia eskatzera etorri zen eta esan nion ez niola emango Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren iritzia jakin aurretik.

Horregatik, atxikitzen den eskaera dela eta, jakin nahiko nuke zein informazio eman dezakedan, edo inolako informaziorik eman behar ote ez dudan.”

Igorritako idazki honekin batera IHOBE S.A.k igorritako eskutitzaren fotokopia atxikitzen da. Eskutitz honetan, Udalari jakinarazten diote Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoruan dauden eta ekintza potentzialki kutsagarriak diren kokalekuen inbentarioa berritzeko lanak egiten ari direla, horretarako kontratatutako ZZZ enpresaren bidez. Udalari jakinarazten zaio, bestalde, kontratatutako enpresako langileak udal bulegoetara joango direla beharrezkoak diren datuak eskatzera.

Otsailaren 25eko 2/2004 Legeak, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoak, zeregin hau esleitzen dio:

Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea.

Datuak Babesteko Euskal Bulego honi dagokio kontsultari erantzuteko txostena egitea.

GOGOETAK

I

XXXko Udalak Datuak Babesteko Euskal Bulegoari eskatu dio txosten bat egiteko, ekintza ekonomikoen erroldan dauden espedienteen datu pertsonalak lagatzeko aukera dela-eta.

Lagatzea ZZZ enpresak eskatzen du, IHOBE S.A. sozietate publikoak deitutako lehiaketa publiko bateko enpresa esleipenduna. Helburua, Bizkaiko Lurralde Historikoko lurzoruan izan litezkeen ekintza kutsagarrietako kokalekuen inbentarioa egitea da.

Kontsultaren helburua ez denez, ez dugu Datuak Babesteko Lege Organikoaren 12. artikuluan agertzen diren betebeharrak, Fitxategiaren arduradunaren eta trataeraren arduradunaren harremanari buruzkoak, betetzen ote diren aztertuko.

Eusko Jaurlaritzaren IHOBE S.A. sozietate publikoa, 218/1982 dekretuaren bidez eratu zen, azaroaren 8an, Lurralde Antolamendua eta Garraioa eta Ekonomia eta Ogasuna sailek egindako proposamenaren ondorioz.

Sozietate Publiko hau industria hondakinen kudeaketarako instalakuntzen sozietate sustatzaileak izatetik, Euskadiko gizarte agente ezberdinen arteko ingurumenaren aldaketarako erakunde eragilea izatera pasa da, bereziki industria alorrean. Zentzu honetan, egindako ekintzen artean lurzoruaren dauden ekintza potentzialki kutsagarrien kokalekuen inbentarioa egitea izan da horietako bat.

IHOBE S.A.ren web orrialdean, www.ihobe.net, enpresa paragrafoa, lurzoruaren kalitatearen informazioa azpi-paragrafoa, aplikazio informatiko baten hiru leiho daude.

Lehengo leihoak "lurzoruarekin lotura duten jardueren datuak jasotzeko leihoak du izena.

Bigarrena "*lurzoruaren jasotako laginen datuak jasotzeko leihoa*" eta hirugarrena "inbentariatuak lursailen irudikapen kartografikoa" da.

Hiru leiho hauek aztertu ondoren, hiruretako batean ere ez da datu pertsonalik agertzen. Hainbat eremu agertzen dira, jarduera, industriako sailkapena, industriako erregistroa, planta mota, prozesu mota, hasiera urtea, bukatze urtea, jabetasun mota, identifikazioa, etab.

Aztertutako hiru leihoetan agertzen diren datuak ez dira izaera pertsonaleko datuak, eta hori dela, gehiegizkoa dirudi ZZZ enpresak agertutako beharra, Udaletxera egindako bisitan, jarduera ekonomikoetako erroldan dauden datu guztiak eskuratzeko eskaera egitearena.

Ezin dugu ahaztu oinarri nagusi bat, datuen babesaren gaiaren inguruan, datuen kalitatearen oinarria dena, legearen 4.1 artikuluan jasotakoa:

Izaera pertsonaleko datuak tratatzeko bil daitezke bakarrik, bai eta tratamendu horren mende jartzeko ere, datu horiek egoki eta bidezkoak izateaz gain, gehiegizkoak ez direnean, datu horiek zein esparrutan eta zein xederekin lortu eta halakoei begira. Gainera, esparru eta xedeak zehatzak, argiak eta legítimoak izan beharko dira.

Badirudi, beraz, behintzat eman diren datuekin, ez dela egiaztatuta agertzen emandako dokumentazioaren proportzionaltasuna eta helburua.

Bestalde, datu pertsonalak jakinarazteari dagokionez, Izaera Pertsonaleko Datuen Babeserako 15/1999 Lege Organikoak, abenduaren 13koa, datuak hirugarren bati jakinaraztea arautzen du 11. artikulua, 11.1 artikuluan adostasuna bereziki eskatuz.

."Tratamenduaren objektu diren izaera pertsonaleko datuak hirugarren bati komunika dakizkioke soil-soilik datu-lagatzailearen eta datu-hartzailearen eginkizun legítimoekin zuzeneko lotura duten xedeak betetzeko; interesdunak aurretiaz horren inguruko adostasuna eman beharko du."

11.2 paragrafoan, adostasunaren oinarri orokorraren salbuespenak arautzen dira, eta horietako bat ere ezin zaio kontsultaren helburuari ezarri. 11. artikulua ez litzateke, beraz, aplikagarria izango interesdunaren adostasuna izan gabe.

11. artikuluan, gainera, beste lege kasu bat dago titularraren adostasuna behar ez duena, 21. artikuluan jasotzen dena. Datuak Babesteko Lege Organikoaren 21. artikuluan, Herri Administrazioen artean datuak jakinaraztea arautzen du:

Administrazio Publikoek euren eginkizunak betetzeko bildu edo prestatutako izaera pertsonaleko datuak ez zaizkie komunikatuko beste Administrazio Publiko batzuei, eskumen desberdinak edo gai desberdinei buruzko eskumenak egikaritzeko,

Kasu honetan, lortu nahi den komunikazioa IHOBE S.A. kontratatutako enpresari dagokio.

IHOBE S.A. Sozietate publiko bat da 218/1982 Dekretuaren bidez eratutakoa, azaroaren 8koa, eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikotzat hartzen da, baina jada ez Institutuzio Administraziokotzat.

Hori dela eta, kasu honetan, ez litzateke lehenengo baldintza emango, Datuen Babeserako Lege Organikoaren 21. artikuluan aipatzen den betebeharra datuak jakinarazteko.

Baina, gainera, dagokigun kasuan, XXX Udaletxeak datuak jaso zituen hasiera batean Ekonomia Jardueren Gaineko Zergak kudeatzeko. IHOBE S.A enpresak, bestalde, datuak eskatzen ditu, kontratatutako enpresaren bidez, jarduera potentzialki kutsagarriak diren kokalekuen inbentarioa berritzeko.

Arauk eskatzen duen gaien edo eskumenen izaera ez da kasu honetan ere betetzen, hasieran jasotako datuak zergak kudeatzeko zirelako eta lagatzearen helburua ingurumena kudeatzea delako. Horregatik, ez da legeak ezartzen duen bigarren betebeharra betetzen adostu gabeko komunikaziorako.

II

Aurretik egindako gogoetek zerikusia daukate datu pertsonalen lagatzearekin. Beharrezkoa da, bestalde, bestelako gogoetak batzuk egitea banakako enpresariaren gainean, bere datuak datu pertsonaltzat har daitezkeen edo ez jakiteko.

Hori dela eta, Jardun Ekonomikoaren gaineko Zergaren araubideari erreparatu behar diogu.

Maiatzaren 5eko 2/2004 Errege Dekretu legegileak, Tokiko Ogasunen araudia arautzen duen legearen testuategina onartzen duenak, Ekonomia Jardueren gaineko Zergen kudeaketarako 90. artikuluan esaten du.

“Zerga hau matrikulatik kudeatzen da. Matrikula hau termino bakoitzerako urtero eratuko da eta ekonomia jardueren, subjektu pasiboen, gutxieneko kuotaren eta, bere kasuan, erkidego gainordainen erroldak osatuko dute.”

192/1991 Foru Dekretuaren 2. artikuluen arabera, abenduaren 27koa, jarduera ekonomikoen gaineko zergen kudeaketarako arauak ezartzen dituenaren arabera, Udalek zergaren errolda kudeaketa haien gain har dezakete.

Udalek, beraz, jardun ekonomikoen gaineko zergen errolda kudeatu dezakete. Eta horietan banakako enpresarien erroldak ager daitezke

Illo horretatik, adierazgarria da Espainiako Datuak Babesteko Agentziaren 2001eko otsailaren 27ko Ebazpena:

“... abenduaren 13ko 15/1999 Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko Lege Organikoak ematen duen babesa ezin zaie pertsona juridikoei ezarri, legean agertzen diren bermeetariko baten onura ere izango ez dutenak, eta beraz, gauza bera gertatuko da beren jarduera enpresa baten bidez antolatzen duten langileekin. Bai eta merkataritza jarduera garatzen duten enpresari indibidualekin ere eta beren merkataritza jarduera bere jarduera pribatutik desberdindu dezaketenekin, 15/1999 Lege Organikoaren aplikazio eremutik kanpo egonda...”

Ondorioz, beraz, bai pertsona juridikoak zein profesionalak eta banakako merkataria ere (azken bi hauek goian dagoen paragrafoan ezartzen diren termino zehatzetan bakarrik, hau da, datuak

enpresariak soilik tratatu dituztenean) 15/1999 Lege Organikoaren esparru babesgarritik kanpo daude.

Ondorioz, bai profesionalak zein banakako merkataria ere 15/1999 Lege Organikoaren esparruaren pean egongo lirатеke. Eta, beraz, honen babespean profesionalak beren lan jarduna antolatuta izango ez balute, merkataria baldintza izan gabe -profesional liberalen kasua da, beren jarduerak 3/1993 Oinarritzko Legearen ezarpen esparrutik kanpo daudenak 6. artikulua arabera-, eta merkatariek, beren merkataritza jarduerak, jardura pribatuetatik desberdintzerik ez dutenean.

Espainiako Bulegoaren irizpide hau Entzutegi Nazionalak hartu du hurrengo epaietan; 2002ko azaroaren 21ekoan, 2004ko otsailaren 11koan eta 2005ko apirilaren 27koan.

Laburbilduz, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren eta Audientzia Nazionalaren irizpideak, enpresariaren datuak DBLOren aplikazio esparrutik kanpo utzi ahal izateko, horrela laburtu daitezke:

Irizpide subjektiboa: pertsona fisikoa merkataria izan beharko da.

Irizpen objektiboa: datuek merkataritzako jarduerari erreferentzia egin behar diote.

Horrenbestez, datuen babesaren araudiak banakako enpresariaren datuak babesten ote dituen zehazteko, kasuz kasu neurtu beharko da, Espainiako Bulegoak esaten duen bezala.

“ustezko bakoitzean interesdunen pertsona fisikoen, edo, aldiz, mehatxatua ez dagoena bere merkataritza edo enpresaritza jardueran eragina duelako, izaera pertsonaleko datuak babesteko funtsezko eskubidea ez urratzeko muga aurkitzeko, zalantza izanez gero, datu indibidualak babesten dituen irtenbidea hartu beharko da.”

Dagokigun kasuan, zentzuzkoa dirudi ekonomia jardueren errolda batean, banakako enpresariaren identitatea eta bere merkataritzako jardueren inguruko datuak egotea. Kasu honetan ez luke izaera pertsonalik izango. Hala ere, udal zerbitzuen lana izango da, egoera bakoitzean, datuak izaera pertsonalik ote duten zehaztea. Izaera hau izatekotan, enpresa eskatzaileari datuak ematea galaraziko litzaioke, aurretik aipaturiko gogoetak direla eta.

ONDORIOAK

XXX Udalak Jarduera Ekonomikoen gainera zergen erroldan agertzen diren izaera pertsonaleko datuak lagatzea, Bizkaiko Lurralde Historikoaren lurzoruan dauden eta potentzialki kutsagarriak diren jardueren kokalekuen inbentarioan sartzeko, kalitate eta helburu oinarriak urratzen ditu, txosten honetan aipatzen den 15/1999 legearen 4. artikuluko 1 eta 2 paragrafoetan azaltzen den bezala.

6. ZIGOR ETA ADMINISTRAZIO ARAU-HAUSTEEN IZAERA PERTSONALEKO DATUAK BATZORDEAN SARTZEKO AUKERA

EUSKO JAURLARITZAKO XXX SAILAK ADIERAZITAKO GAIA DELA ETA EGINDAKO TXOSTENA, ARAU-HAUSTE PENAL ETA ADMINISTRATIBOEI BURUZKO IZAERA PERTSONALEKO DATUAK XXX ZUZENDARITZAREN FITXATEGIAN SARTZEARI BURUZKOA

CN07-020

AURREKARIAK

LEHENGOA. 2007ko ekainaren 6an Datuak Babesteko Euskal Bulego honetan Eusko Jaurlaritzako XXX Saileko Zuzendaritzaren idazki bat jaso zen eta bertan goian aipaturiko gaiari buruzko kontsulta bat egiten da.

BIGARRENA. Kontsultaren idazkiak ondorengo terminoetan aztertzen du bere arazoaren helburua:

Honen bidez, zuengana jotzen dut Zuzendaritzatik, honako kontsulta helarazteko:

KONTSULTA

Harrera juridiko-sozialerako Zerbitzuetako fitxategietan EAEko Zuzendaritzaren kideen arau-hauste penal edo administratiboen inguruko izaera pertsonaleko datuak sartzeko aukera.

HIRUGARRENA. Otsailaren 25eko 2/2004 Legeak, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoak, 17. artikuluan ondorengo funtzioa egokitzen dio Bulegoari:

"Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkieten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkieten galderei erantzutea.

Goian aipatutako araudiaren arabera, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egindako kontsultari erantzuteko txostena egitea.

GOGOETAK

I

XXX Saileko XXX Zuzendaritzak Datuak Babesteko Euskal Bulegoan bi fitxategi aitortuta ditu:

- 1.- "Laguntzak eta Dirulaguntzak". Fitxategi honek irabazi asmorik gabeko elkarteei immigrazio gaietan diru-laguntzak kudeatzeko helburua dauka.
- 2.- "Immigrazio jardunaldiak". XXX Zuzendaritzak antolatzen dituen jardunaldiak kontrolatzeko helburua du.

Hauetako bi fitxategi batean ere ez dugu uste lekua izango lukeenik etorkinen lege-hauste penalen eta administratiboen inguruko datuak sartzea. Beraz, oraindik aitortu gabeko fitxategi berri bat izango litzateke, datuok barne hartu nahi dituen.

Urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoak, Espainian dauden atzerritarren eskubide eta askatasunen eta beren gizarteratzearen ingurukoak, 31.4 artikuluan ondorengo ezartzen du:

"Atzerritarren aldi baterako egotaldia baimentzeko, Espainian edo aurretik bizi izan zen herrialdeetan zigor-aurrekaririk -Espainiako ordenamenduan agertzen diren delituengatik- ez izatea beharrezkoa izango da. Eta Espainiak hitzarmena sinatuta daukan herrialdeetan ukagarri

bezala ez agertzea. Aztertuko da, kasu bakoitzaren egoeren arabera, atzerritarrei egotaldi baimena berritzea delitu batengatik zigortu dituztenean eta zigorra bete dutenean, indultatu dituztenak edo baldintzapeko zigor-kentzea dutenean.

Sailak, bere fitxategietan, aurrekari penal eta administratiboen datuak izatea arrazoitzen du, etorkinen populazioari ABCren aldetik zerbitzu hobea emateko (Euskal Autonomia Erkidegoko etorkinentzako arretarako Zerbitzu juridiko-soziala).

ABCa Eusko Jaurlaritzaren Sailaren eta Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako Abokatuen Elkargoaren artean izenpetu zen, EAEko atzerriko etorkinei laguntzeko, Arreta juridiko-sozialerako Sare moduan. Sailaren web orrialdean jasotzen den informazioaren arabera:

“Zerbitzu honen helburua da oinarritzko gizarte-zerbitzuekin lankidetzan aritzea, atzerriko etorkin herritarrei berme handiagorekin arreta eman ahal izateko, Espainian egoitza izateko baimenik gabe daudenean gizarte-bazterketarako arrisku handia edo gizarte-zaurgarritasun larria pairatzen dute-eta.”

“Ildo horretatik, zerbitzu honek informazioa ematen du, aholkua eta laguntza, eta doan egiten ditu izapideak atzerriko etorkinentzako egoitza-baimenak, edo egoitza- eta lan-baimenak lortze aldera. Era berean, zerbitzu honek aholkua ematen die oinarritzko gizarte-zerbitzuetako profesionalei Atzeritartasunari buruzko Lege Organikoak legeria orokorrean duen eragin bereziaz, profesional horiek baldintza berberetan arreta egin ahal diezaieten zerbitzu eske joaten zaizkien atzerriko etorkinei.”

Kontsulta idazkiaren arabera *“nahitaezkoa da arreta juridikorako datu hauek izatea, baimen bat eskatzeko edo baimen-berritzea eskatzeko.”*

II

Aurretik aipatu dugun bezala, “Ildo horretatik, zerbitzu honek informazioa ematen du, aholkua eta laguntza, eta doan egiten ditu izapideak atzerriko etorkinentzako egoitza-baimenak, edo egoitza- eta lan-baimenak lortze aldera, EAEko gizarte zerbitzuetara bidalitako pertsona etorkinak laguntzeko”.

Kontsulta ebazteko funtsezko gaia, uste dugu, Sailaren eskumena egokia izateko datuok bere fitxategietan sartzea beharrezkoa ote den ikustea dela.

Honen inguruan, Konstituzio Auzitegiaren 1999/144 Epaiak, 3460/1996zbk babes-errekurtsoan emana, argia da. Zortzigarren oinarri juridikoan, zigortuen eta auzi-iheslarien Erregistro nagusiak Eskualdeko hauteskunde batzordeari zigor aurrekarien orria bidaltzeari dagokionez, pertsona honek hautagarritasun betebeharrak betetzen dituen baieztatze, ondorengo xedatzen du:

“... ondoriozta daiteke, ez soilik pertsona edo familia baten bizitza pribatuarentzat – bere zigor historialean agertzen dena, jakina denez- muga bat suposatzen duela egoera hauei buruzko informazioa eskuratzeak. Datu hauen gordetze eta tratatze automatizatua mugatze estu baten pean dago, eta zabaldu edo hedatu daitekeen informazio hori- bai eta estatuaren organo ezberdinen artean ere- terminoen interpretazio murriztaile eta zorrotz batera behartzen gaitu”.

“...pertsona baten bizitzan lege-aurrekariak bezain samurra den informazioa, modu indibidual batean, bere osotasun moralean eragina daukana, ukituak onartu ez duen bidegabeko informazioaren publizitatetik ongi gordeta egon beharko da; eta, nahiz eta lege-mailako arau batek pertsona zehatz batzuei informazio hau eskuratzeko aukera ematen dien, ukituaren adostasuna izan ala ez, eskuratze hauek, dauden fitxategi edo artxiboaren izaera azaltzen duten justifikatutako helburu bati erantzun beharko diote. Helburu hauek konstituzioak norbanakoaren eta familiaren inguruan jarritako murrizketaren batekin bat etorri beharko dute.”

“... HOLAren 19. artikulua ez du gaitzen, ez eta generikoki ere, informazio hori eskuratzea, soilik hautagaitzarekin aurkeztutako hautagaiek 6.1. artikuluan eskatzen diren hautakortasun baldintzak betetzen dituela egiaztatzea, 2. eta 3. artikuluetara bidaltzen gaituena, denak HOLArenak.”

Konstituzio Auzitegiak pertsona baten zigor historiala gordetzeko eta jakinarazia izateko aukera dela eta, egiten duen interpretazio murriztailearekin bat, zaila ikusten dugu kontsulta egin duen Zuzendaritzaren fitxategietan datuok sartzea justifikatzea.

Zehazki, doan informatzeko, aholkatzeko, laguntzeko eta bideratzeko, egotaldiei eta lan baimenei dagokionez, -Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuetatik eratorritako atzeritar etorkinenak-, hasiera batean, gehiegizkoa dirudi aurrekari penalen datuak Zuzendaritzak fitxategi batean izatea. Etorkinak berak, benetan agertu behar duena, zigor ezaren ziurtagiria baita. Berdina esan dezakegu, zigor administratiboei buruz, Espainian dauden etorkinen eskubide eta askatasunen 4/2000 legeak, urtarilaren 11koak, ez du aipatzen egoitza baimena emateko arautzerako orduan.

Kontsulta egilearen fitxategietan datuok sartzeko nahia otsailaren 25eko 2/2004 Legean, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoan, aurkitzen du erantzuna,

DBLOren 7.5 artikulua honakoa ezartzen du:

Arau-hauste penal eta administratiboen inguruko izaera pertsonaleko datuak Administrazio Publiko eskudunen fitxategietan bakarrik jaso daitezke, kasuan kasuko arauetan ezarritako kasuetan.

Gure ustez, datuen kalitatearen oinarriaren eskakizuna gauzatzea da artikulua honen helburua. Hau da, helburu baterako jasota eta artxibatuta izan direla, eta ezin direla beste helburu desberdin baterako erabili (etorkinen arreta juridiko-soziala).

XXX Saileko egitura organiko eta funtzionaleko Dekretuaren 16. artikulua Zuzendaritza kontsultagilearen funtzioak ezartzen ditu:

a) Euskal Autonomia Erkidegorako immigrazioari buruzko estrategia propioa zehaztea

b) Immigrazio-jarduerak planifikatzea eta immigrazioari buruzko arauzko proiektuak lantzea, EAEko eskumen- esparruaren barruan.

c) Etorkinak gizarteratzeko eta gizartea babesteko sistemetan txertatzeko ekintzak eta neurriak proposatzea.

d) Immigrazioari dagokionez Estatuarekin eta bestelako Administrazio Publikoekin koordinatzeko mekanismo eta tresnak proposatzea, Jaurkitzearen Lehendakariaren eskumenak bazter utzi gabe.

e) Harrera-biztanleak sentsibilizatzeko eta elkarteen eta kulturen arteko jarduerak sustatzeko neurriak proposatu eta gauzatzea.

Ez dugu ulertzen, Dekretu honetan emandako funtzioen babesean, Zuzendaritzak bere fitxategietan horrelako datu sensibleak sartu nahi izatea ulergaitza da. DBLOren 7.5. artikulua eskatzen duen aurreikuspen zehatza ez da Dekretuaren izaera organikoan aurkitzen. Beraz DBLOren 7.5 artikulua erreferentzia egiten dion datuen bilketak ez du legeko babesik.

Gainera, bi dira egin beharreko gogoetak:

Alde batetik, pertsona etorkinei zerbitzu juridiko bat emateak suposatzen du nahitaez fitxategian egongo diren datuak tratatzea. Fitxategia aitortu beharko da eta DBLOren 20. artikuluan ezartzen diren baldintzak bete.

Bestetik, pertsona etorkinei zuzendutako arreta juridiko-sozialaren zerbitzua Abokatuen Elkargoekin izandako hitzarmenen bidez onartu da eta orain administrazio kontratu bereziko forma

juridikoa hartu du. Lehiaketa publikoaren bidez eskaini zen (EAO 196, 2006ko urriaren 13koa). Lehiaketa hau CDE enpresak 2006ko abenduaren 14ko Ebazpenaren bidez esleitu zen.

Datuen babesaren ikuspuntutik, esleipendun enpresak datuak tratatzeko eginkizuna onartzen du, laguntza juridikoa jasotzen duten pertsona guztien datuak tratatzen dituelako, eta Arduradunaren kontura egiten du, kontratuaren organo esleipen emailearena, hau da, Sailarena.

Arduradunaren eta kargudunaren arteko harreman honek DBLOren 12. artikuluan agertzen diren baldintzak bete beharko ditu.

."12. artikulua. Datuetan hirugarrenen bidez sartzeara.

1. Ez da datuen komunikaziotzat joko hirugarren bat datuetara sartzeara, hori beharrezkoa denean tratamenduaren arduradunari zerbitzu bat emateko.

2. Kontratuan arautu beharko da hirugarrenen bide tratamenduak egiteko aukera; kontratu hori idatziz jaso beharko da, edo kontratua egin dela eta kontratu horren edukia egiaztatzen duen beste edozein forma erabilita. Esan-bidez ezarri beharko da tratamendu-eragileak tratamenduaren arduradunak emandako jarraibideen arabera bakarrik tratatuko dituela datuak, datu horiek ez dituela aplikatu edo erabiliko kontratu horretan jaso gabeko xedeekin eta datu horiek ez dizkiela komunikatuko beste pertsona batzuei, ezta datuok gordetzeko ere. Kontratuan hitzartuko dira, berebat, lege honen 9. artikulua aipatzen dituen segurtasun-neurriak. Tratamendu-eragileak nahitaez ezarri beharko ditu halakoak.

3. Behin kontratu-prestazioa beteta, izaera pertsonaleko datuak suntsitu edo tratamenduaren arduradunari itzuli beharko zaizkio. Beste horrenbeste egingo da edozelako euskarri edo agirirekin ere, halakoek tratamenduaren objektu izan den izaera pertsonaleko datuen bat jaso badute.

4. Tratamendu-eragileak datuak beste xede batekin erabiltzen baditu edo kontratuaren baldintzak bete gabe komunikatu edo erabiltzen baditu, tratamendu eragilea tratamenduaren arduradun gisa hartuko da, eta modu pertsonalean erantzungo du egin dituen arau-hausteen gainean.

Txosten honen helburu ez den atal hau azpimarratu gabe, beharrezkoa da azpimarratzea datu pertsonal hauen trataeraren garrantzia datuen babeserako alderdi guztiak betetzen dituela. Honen inguruan, Sailak eta, ondorioz, kontratatutako enpresak, zorrotzak izan beharko dute hau betetzeko.

ONDORIOAK

1.-Lege-hauste penal eta administratiboen inguruko datuak aipaturiko Zuzendaritzaren fitxategietan sartzeak, izaera pertsonaleko datuen babeserako araudiaren kontrakoa da.

2.- Arreta juridiko-sozialaren zerbitzua eskatzen duten etorkinen datuak dituen fitxategiak DBLOren 20.artikuluaren baldintzak bete beharko ditu.

3.-Fitxategiaren arduradunak, zerbitzuaren adjudikaziodun enpresarekin gauzatu beharko du DBLOren 12. artikuluan eskatzen den dokumentua.

7. IZAERA PERTSONALEKO DATUAK JASOTZEN DIREN INPRIMAKIETAN LEGE OHARRA SARTZEKO BETEBEHARRA

FORU ALDUNDI BATEK AURKEZTUTAKO GAI BATEN INGURUAN EGINDAKO TXOSTENA, DATUAK BABESTEKO ETA ESKUBIDEAK GAUZATZEKO LEGE ORGANIKOAREN 5.5 ARTIKULUAN JASOTZEN DEN INFORMATZEKO BEHARRARI BURUZKOA

CN07-021

AURREKARIAK

2006ko otsailaren 13an, arestian aipatutako gaiari buruz kontsulta egiteko, XXXk bidalitako posta elektronikoa, iritsi zen Datuak Babesteko Euskal Bulegora, eta Foru Aldundi bateko ABC Sailari egindako kontsulta atxikitzen zen.

Kontsulta egiteko bidalitako idazkian honakoa adierazten zen

1.- Foru Aldundiak aitortutako "Zergadun" fitxategian jasotako datuak sartzeko, Datuak Babesteko Lege Organikoaren 5. artikuluan ezartzen dena, hau da, jakinarazteko betebeharra ezarri behar ote den, edo, aldiz, aipaturiko lege testuko 5.5 artikuluan jasotzen den salbuespena ezarri daitekeen.

2.-Sartzeko, zuzentzeko eta kontra egiteko eskubideak aurrera eramatea, "Zergadunak" fitxategian (Foru Aldundiaren ABC Saila arduraduna dena) agertzen diren datuak direla eta.

Otsailaren 25eko 2/2004 Legeak, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoak, Bulego honi 17. artikuluan honako eginkizuna esleitzen dio:

"Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea."

Goian aipatutako arautegiaren arabera, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egindako kontsultari erantzuteko txostena bidaltzea.

GOGOETAK

I

Lehenengo arazoa dela eta, hau da, Foru Aldundiak aitortutako "Zergadun" fitxategian jasotako datuak sartzeko Datuak Babesteko Lege Organikoaren 5. artikuluan ezartzen den jakinarazteko betebeharra ezarri behar ote den, edo, aldiz, aipaturiko lege testuko 5.5 artikuluan jasotzen den salbuespena ezarri daitekeen. Lege salbuespen hau aztertzen hasi beharko dugu.

DBLOren 5.5 artikulua salbuespenak erreferentzia egiten dio 5.4 artikuluan agertzen den betebeharrari, eta hurrengo azpimarratzen du:

"Izaera pertsonaleko datuak interesdunarengandik jaso ez direnean, fitxategiaren arduradunak edo horren ordezkariak esan-bidez informazio zehatza eta zalantzarik gabea eman beharko dio interesdunari, datuak erregistratu eta hurrengo hiru hilabeteetan, tratamenduaren edukia, datuen jatorria eta artikulua honen 1. idatz-zatiko a), d) eta e) letretan jasotakoaren inguruan, salbu eta interesdunari aurretiaz eman zaionean horren gaineko informazioa.

DBLOren 5.5 artikulua ezartzen du:

Aurreko idatz-zatian xedatutakoa ez da aplikatuko, legeren batek esan-bidez horixe ezartzen duenean, tratamenduak xede historiko, estatistiko edo zientifikoak dituenen, edo Datuak Babesteko Agentziaren zein horren pareko autonomia erkidegoko erakundearen arabera ezinezkoa denean interesdunari informazioa ematea, edo neurritz kanpoko ahaleginak egin behar direnean, interesdunen kopurua, datuen antzintasuna eta izan daitezkeen konpentsazio-neurriak kontuan hartuta.

"Era berean, ez du aurreko paragrafoan ezartzen dena zuzentzen, datuok publikoaren eskura dauden iturrietatik datozenen eta jarduera publiko baterako edo merkataritza prospekziarako erabiliko direnean. Horrela bada, jakinarazpen bakoitzean datuen sorburua zein den eta trataeraren arduradunaren identitatea jakinaraziko zaio, bai eta dagozkion eskubideak"

Foru Aldundiak "zergadunak" fitxategiaren egindako adierazpena aztertu ondoren, honako ondorioa atera dezakegu: estatistika jarduera, funtzio estatistiko publikoaz eta beste helburuez gain, fitxategiaren helburu nagusia hau da: "zergadunen zerga betebeharrak betetzen direla kontrolatzea eta hauek kudeatzea", datuon jatorria ezberdinak direnean; entitate pribatuak, Herri Administrazioak, interesduna bera edo bere legezko ordezkaria, interesduna ez den beste pertsona bat edo bere legezko ordezkaria eta erregistro publikoak. Bestalde, datuen bilketan aurreikusitako prozedurak hiru dira: inkestak edo elkarrizketak, adierazpenak edo galde-sortak eta datuen igortze elektronikoa.

Herritarrek, batez ere, beren zerga-aitorpenen bidez ekartzen dituzten datuek osatzen duten fitxategia da, gure ustez. Egoera hauetan, datuen jatorria kontuan hartuta, ezin da 5.5 artikulua salbuespena ezarri -5.4 artikuluekin lotura daukana-, artikulua honek erreferentzia egiten diolako interesdunaren datuak hirugarren batek jaso dituenen jakinarazteko betebeharrari.

Hori dela eta, eta interesdunak jaso duen datuen trataerari dagokionez, aplikagarria da 5. artikuluko 1 eta 2 paragrafoetan agertzen dena.

5.1. Datu pertsonalak eskatzen zaizkien interesdunei aurretiaz eta esan-bidez informazio zehatza eta zalantzarik gabea eman beharko zaie, ondoko hauen inguruan:

a) Izaera pertsonaleko datuen gaineko fitxategi edo tratamendua, bai eta datu horiek biltzeko xedea eta informazio horren jasotzaileak ere.

b) Egingo zaizkien galderei erantzutea nahitaezkoa edo borondatezkoa den.

c) Datuak lortzearen ondorioak edo datu horiek ez ematearen ondorioak.

e) Tratamenduaren arduradunaren identitatea eta helbidea edo, hala denean, arduradun horren ordezkariarenak.

Trataeraren arduraduna Europar Batasuneko lurraldean finkatua ez badago eta Espainiako Lurraldeko datuak erabiltzen dituenen, Espainian ordezkari bat izendatu beharko du, datuak tramiteetarako erabili ezean, trataeraren arduradunaren kontra ekin daitezkeen ekintzei kalterik egin gabe.

52. Datuak biltzeko galdera-sortak edo beste inprimaki batzuk erabiltzen badira, aurreko idatz-zatian aipatutako ohartarazpenak jasoko dira halakoetan, argiro irakurtzeko moduan jaso ere.

Bestelako datuei dagokienez, hau da, interesdunak datuak jaso ez dituenen eta hirugarren batek egin duenean, 5.5 artikulua salbuespena ezartzeko, espresuki horrela adierazten duen lege bat beharrezkoa izango litzateke.

Kontsulta egileak aipatzen duen araua Foru Arauaren 90.1 artikulua da, eta arauak ondorengoa esaten du:

"Pertsona fisiko edo juridikoak, publikoak edo pribatuak, bai eta Foru Arau honen 35. artikuluko 3. paragrafoan aipatzen diren erakundeak ere, Zerga Administrazioari mota guztietako zerga

ondorioak dituzten datuak, txostenak, aurrekariak edo frogagiriak ematera behartuta egongo dira, beren zerga betebeharrak betetzearekin harremana daukatenak edo beste pertsona batzuekin dituzten beren jarduera ekonomiko, profesional edo finantzarioak."

Arau honek legezko gaikuntza bat jasotzen du, Zerga Administrazioari zerga ondorioak dituzten mota guztietako datu, txosten, aurrekari edo frogagiri lagatzeko.

Gaikuntza honek informaziorako betebeharraren salbuespena adierazten duen edo ez jakiteko, 5.5 artikuluan jasotzen dena, azterketa zehatz bat eskatzen du.

DBLOren 5.5 artikulua barne eskubidearen tokialdaketa dakar, Europar Legebiltzarreko eta Kontseiluaren 95/46/KE Zuzentarauaren, 1995eko urriaren 24koa, 11.2 artikuluan ezartzen denaren arabera.

"1. paragrafoaren xedapenak (hainbat iturritatik datuak jaso direnean titularrari jakinarazteko betebeharraren ingurukoa) ez dira ezarriko, batez ere helburu estatistiko edo ikerketa historiko edo zientifikorako datuen trataerarako, interesdunari jakinaraztea ezinezkoa denean edo ahalegin neurrigabea eskatzen duenean edo hirugarren bati jakinaraztea legeak zehazki agintzen duenean".

Espainiako Datuen Babeserako Bulegoak bere 60/2004 txostenean azpimarratu du 5.5 artikuluko salbuespena 95/46 zuzentarauaren arabera interpretatu behar dela, eta ondorioztatu du, "15/1999 Lege Organikoaren 5.5 artikulua interpretazio koherenteak, 95/46/KE Zuzentaruaren ezartzen denaren arabera, suposatzen du ukituari informatzeko betebeharra salbuetsia izango dela trataera edo lagatzea Legearen arauan zehazki adierazten denean"

Edonola ere, beharrezkoa da 5.5 artikulua salbuespena ezartzea, aplikagarria izango dena hemen aztertutako ustezkoei. Horietan, izaera pertsonaleko datuak tratatzea edo lagatzea Legearen arauan zehazki jasotzen da, baina ez legeak baimentzen dituen ustezko horietan.

Espainiako Agentziak bere txostenean aipatzen duen ustezkoa dela eta, udal erroldako datuetara Poliziaren Zuzendaritza Nagusia sartzeko egiten den lagapena da, 7/1985 Tokiko Arauen Oinarrien Legearen Zazpigarren Xedapen gehigarrian aurreikusia. Arau honek haxe ezartzen du:

"Espainian dauden atzeritarrentzako eskubideen eta askatasunen Lege Organikoan ezartzen diren eskumenak aurrera eramateko eta bere bergizarteratzerako, Espainiako atzeritarren kontrol eta egonaldiari buruz, Poliziaren Zuzendaritza Nagusiak udal erroldetan dauden atzeritarren errolda inskripzioetara sartzeko aukera izango du, ahal bada telematika bidez."

Gainera, Datuak Babesteko Espainiako Agentziak, 2004ko urriaren 8ko ebazpenean, honako azpimarratzen du:

"5.5 artikulua informatzeko betebeharra salbuesten du, Legeak zehazki horrela aurreikusten duenean. Artikuluaren interpretazio literaletik ondorioztatzen da informatzeko beharra Lege batean zehazki salbuetsia egon behar dela, ustezkoan agertzen diren baldintzak bete daitezela. Hala ere, 95/46 KE Zuzentaruak, 15/1999 legearengatik tokiz aldatutakoa, 11.2 artikuluan zehazten du helburu estatistiko edo ikerketa historiko edo zientifikorako datuak tratatzeko ez dela informatzeko beharrik ezarriko, batez ere helburu estatistiko edo ikerketa historiko edo zientifikorako datuak tratatzen direnean, interesdunari jakinaraztea ezinezkoa denean edo ahalegin neurrigabea eskatzen duenean edo hirugarren bati jakinaraztea, legeak zehazki agintzen duenean".

Komunikazio betebeharra salbuesteko kontsulta idazkian agertzen den araua, DBLOren 5.5 artikuluan agertzen den salbuespena aplikagarria ikusten duena, Foru Araua da, 90. artikulua 1 eta 6 paragrafoak, hain zuzen ere.

90. artikulua.- Informatzeko betebeharrak

- 1.- "Pertsona fisiko edo juridikoak, publikoak edo pribatuak, bai eta Foru Arau honen 35. artikuluko 3. paragrafoan aipatzen diren erakundeak ere, Zerga Administrazioari mota guztietako zerga

ondorioak dituzten datuak, txostenak, aurrekariak edo frogagiriak ematera behartuta egongo dira, beren zerga betebeharrak betetzearekin harremana daukatenak edo beste pertsona batzuekin dituzten beren jarduera ekonomiko, profesional edo finantzarioak.”

6.- Arauak ezartzen dituen terminoetan, artikulua honetan eta hurrengoan aipatzen diren informazioa emateko Zerga Administrazioak baldintzak eta betebeharrak aipatu ditzake, baliabide elektroniko, tekniko, informatiko edo telematikoen bidez.

Trasnkribitutako artikulua, gure ustez, ez du datuak lagatzeko aurreikuspen zehatzik ematen, Espainiako Bulegoak eskatzen duena bezalakoa, baizik eta datuak lagatzeko gaitze generiko bat. Arauak Zerga Administrazioari “mota guztietako datuak” lagatzeko betebeharrari egiten dio erreferentzia. Hau ez dator bat Europako Erkidegoaren zuzentarauan agertzen den betebeharrarekin, hirugarren bati datuak jakinaraztea legeak zehazki agintzen duenean, alegia.

Kontsulta honetarako, garrantzitsua litzateke KAEren 2003ko azaroaren 12an jasotzen den doktrina gogoratzea:

“desberdindu nahi dira, doktrinak horrela behartuta, Zerga Administrazioak hirugarren baten bidez informazioa jasotzeko bi prozedurak. Lehena, “horniketarik” jasotzea, datu zehatz batzuk emateko betebeharra ezartzen den arauaren kasuan, Administrazioak eskatu gabe. Eta bigarrena, “bilketa” bidez jasotzea, indibidualizatutako ekintza eskatzen duena, pertsona zehatz bati datu zehatz batzuk emateko eskatzen zaionean (eskatzen ez badira, emango ez direlako).”

Illo horretatik, bi datu motak desberdintzeko, informatzeko betebeharraren Tributuen Lege Orokorrek bere 93.1 artikuluan aipatzen duena argigarria izan daiteke:

“1. “Pertsona fisiko edo juridikoak, publikoak edo pribatuak, bai eta Foru Arau honen 35. artikuluko 3. paragrafoan aipatzen diren erakundeak ere, Zerga Administrazioari mota guztietako zerga ondorioak dituzten datuak, txostenak, aurrekariak edo frogagiriak ematera behartuta egongo dira, beren zerga betebeharrak betetzearekin harremana daukatenak edo beste pertsona batzuekin dituzten beren jarduera ekonomiko, profesional edo finantzarioak.”

Zehazki:

a) Konturako egin beharreko sarrerak egitera behartutakoek eta txikitzaileek, beste pertsona edo erakunderi diruan edo espezetan egindako ordainketen zerrenda aurkeztu beharko dute.

b) Sozietateak, erakundeak, eskola profesionalak edo bestelako erakundeak, bere funtzioen artean profesionalen ordainsariak jasotzea edo jabetza intelektual, industrial, egilearena edo bestelakoak jasotzea, beren kide, elkarkide edo elkargokideengatik, Zerga Administrazioari jakinarazi beharko diote.

c) Betebehar bera izango dute pertsona edo erakundeek, banketxeak barne, kreditukoak edo finantza bitartekaritzakoak, orokorrean, soldaten ordainsariak edo komisioak kobratzen dituztenak, kapital merkatuan bilketa, kokapen, lagapen edo bitartekaritza jarduerengatik.

“Zerga Administrazioari zordunen dirua esku diruan edo kontuan, baloreetan edo bestelako jabetzengatik pertsona edo erakunde gordailuzainek, zerga-bilketa organoei informatu beharko diete eta haiek beren jardueren zehar egindako eskaerak bete”.

“Mota guztietako datuak” emateko beharra jasotzen duen idazlan generikoaren ondoren, artikulua informazioa emateko betebehar batzuk zehazten ditu, datu zehatzen informazioari dagokionez. Bigarren kasu honetan, beraz, “horniketa doktrinalaren datuak” deitzen diren datuen aurrean egongo ginateke.

Horniketa eta biltze datuen arteko desberdintasuna garrantzitsua da kontsultari erantzuna eman ahal izateko. Horniketa datuetan Zerga Administrazioari datu zehatz batzuk emateko betebeharra dago, eta Tributuen Lege Orokorren 93.1a), b) eta c) artikuluan dauden ustezkoak dira. Ustezko

hauetan, legeak bereziki zehaztutako datuen lagatze bat dago, eta Espainiako Bulegoak ezartzen duen bezala, informatzeko salbuespena ezarriko litzaioke.

Bestelakorik gertatuko da, gure ustez, bilketa bidez jasotako datuekin, hau da, exijitu ezean emango ez liratekeen datuekin. Ustezko hauetan, ulertzen dugu, datuen titularrari informatzeko beharra dagoela, datuak nondik jaso diren jakinarazteko.

Zentzu honetan, beharrezko da 292/2000 epai famatua, azaroaren 30ekoa, aipatzea. Epai honek konstituzio kontrakoak aitortu zituen Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko 15/99 legearen 24.2 eta 24.1 artikulua.

DBLOren 24.1 artikulua, hasierako idazketan, hau aipatzen du:

Lege honen 5. artikuluko 1 eta 2. idatz-zatietan xedatutakoa ez zaio aplikatuko datuak biltzeari, ukituari informazioa emateak Administrazio Publikoen kontrol- eta egiaztatze-eginkizunak modu larrian eragotzi edo zailtzen dituenean, edo defentsa nazionalari, segurtasun publikoari edo arau-hauste penalen zein administratiboaren jazarpenari kalte egiten dionean.

Aipaturiko Konstituzio Auzitegiaren epaiak, konstituzioaren kontraketat jo zituen 24.1 artikulua honako bitartek: *"Herri Administrazioen kontrol eta egiaztapen jarduerak betetzea seriozki galaraztea edo oztopatzea"* eta *"edo administratiboak"*.

Aipaturiko epaiaren arabera *"Administrazio isunak zigortzeko interes publikoa ez da nahikoa, argi agertzen den moduan KEko 105. artikuluan jasotzen diren administrazio artxiboetara eta erregistroetara sartzeko mugan. Beraz, DBLOren 24.1 artikulua arabera, Administrazioak interesdunaren fitxategiaren eta jasotako datuen inguruko informazioa ateratzea, DBLOren 5.1 eta 5.2 artikuluek agertzen duten bezala, administrazio isun bati informazio honi ekar dakizkiokeen kalteak aipatuz, intimitatearen eta datuen babesaren eskubidearen urraketa handi bat suposatzen du, konstituzio oinarriak ez duena. Eta, gainera, praktika honek interesdunari babesgabetasun handia sor diezairoke, bere defentsa garatzeko eskubidea ezinduz administrazio arau-hausteen batzordearen zehapen espediente baten aurrean. Administrazioari ukatzen zaiolako pertsona horren inguruko datuak jasotzera, bere kontra erabil daitezkeenak, ukitua datuon jakinaren gainean ez dagoelako. DBLOk berak, 13. artikuluan ezartzen du, herritarrek eskubidea dutela ondorio juridikoak izango dituen erabaki baten aurrean ez egotera. Irizpide hauek ez dira bateragarriak Herri Administrazioak DBLOren 5. artikuluan agertzen duen informatua egoteko eskubidearen ukatzearekin, administrazio arau-hauste baten jazarpenaren oinarri bakarrarekin."*

Hau da, epaiak 5.1 eta 5.2 artikuluetako informaziorako eskubidearen mugak konstituzioaren kontraketat jotzen ditu. Epaiaren ondoren mantentzen da eskubidearen murrizketa, lege arau-hausteen jazarpenaren ingurukoa.

II

Biltze datuetan informatzeko betebeharraren oinarria mantenduz, ezin da albo batera utzi DBLOren 23.2 artikulua. Artikuluan sartze, errekifikazio eta ezeztapen eskubideen salbuespenak arautzen dira eta Zerga Administrazioari aukera ematen dio eskubide hauek garatzea ukatzea.

"Ogasun Publikoaren fitxategien arduradunek, era berean, aurreko atalean aipaturiko eskubideak ukatzeko aukera daukate, eskubide honek administrazio jarduerak oztopatzen dituenean, zerga betebeharrak betetzen direla ziurtatzen duten jarduerak, alegia. Eta, nolahi ere, ukitua ikuskatze jardueren pean dagoenean."

Kontuan hartu behar dugu, titularrari bere datuen erabileraren, fitxategiaren arduradunaren, iturriaren... inguruan informatu beharko zaio. Betebehar hau datuok lortu eta erabiltzeko eskubidea ere ahalbidetzen du

Hori dela eta, Konstituzio Auzitegiak egiaztapen eta frogatze jardueretarako informazio eskubidearen mugak zuzenbidearen kontraketat jo baditu ere, bai eta administrazio arau-

hausteen jazarpena, egia ere bada lege testuak ez duela aldaketarik jasan 23.2 artikuluan, eskuratze eskubidearen mugak jasotzen dituen, beste batzuen artean. Eskubide hauek garatzeko ustezkoek " zerga betebeharrak betetzen direla ziurtatzeko administrazio jarduerak oztopatzen dituenen, eta edonola ere, ukituak ikuskatze jardueren pean badago"

Zuzenbidearen eta jurisprudentziaren arteko interpretazio batek, ondorioztatzera eramaten gaitu, zentzuzkoa dirudiela Zerga Administrazioak datuak lortzeko jardura ezeztatzen duen kasuetan, zerga betebeharrak oztopatu ditzakeelako edo ukitua ikuskatzen ari direlako, informatzeko betebeharraren salbuespena aplikagarria izatea.

III

Txostenaren bigarren gaia honako hau da:

Sartzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta kontra egiteko eskubideak (aurrerantzean SZEK) Foru Aldundiko ABC Saila arduradun den "Zergadunak" fitxategiko datuei dagokienez.

Kontsulta egileak ezartzen du, errealitatean, Ogasun Publikoaren datuen inguruan DBLOK ezartzen dituen eskubideen jardueren mugak kontua hartuta, eskubideak ezingo direla ia ustezko batean ere garatu. Horregatik, zehaztu beharko litzateke interesdunek zein ustezkotan garatu ahalko dituzten eskubideok.

SZEK deituriko eskubideak DBLOren 15, 16, eta 17. artikuluetan arautzen dira; lehenengo biak, gaiari dagozkionak, hurrengoa aipatzen dute.

15. artikulua. Datuetan sartzeko eskubidea.

1. Interesdunak tratamendupean egon eta izaera pertsonaleko diren bere datuei, datu horien jatorriari eta halakoen inguruan egin edo egingo diren komunikazioei buruzko informazioa eskatzeko eta doan lortzeko eskubidea izango du.

2. Informazioa datuak kontsultatuta lor daiteke, datu horiek bistaratuta, edo tratamenduaren objektu diren datuak idazki, kopia, telekopia edo fotokopia ziurtatu zein ziurtatu gabearen bidez zehaztuta, irakurtzeko eta ulertzeko moduan, gailu mekaniko bereziak behar dituzten klabe edo kodeak erabili gabe.

3. Artikulu honek aipatu datuetan sartzeko eskubidea hamabi hilabetetik beherakoak ez diren denbora tarteetan bakarrik egikari daiteke, salbu eta interesdunak ondore horretarako interes legitimoa egiaztatzen duenean; azken kasu horretan, lehenago egikari ahal izango da eskubide hori.

16. artikulua. Zuzentze- eta ezerezte-eskubidea.

"1. Tratamenduaren arduradunak interesdunak duen zuzentze- edo ezerezte-eskubidea eragingarri egiteko betebeharra izango du, hamar eguneko epean.

2. Hala denean, izaera pertsonaleko datuak zuzendu edo ezereztu egingo dira, halakoen tratamendua ez datorrenean bat lege honetan ezarritakoarekin eta, bereziki, datu horiek zehaztugabeak edo osagabeak direnean.

3. Ezerezteak datuak blokeatuko ditu, eta datu horiek administrazio publikoen, epaileen eta auzitegien...esku bakarrik gordeko dira, tratamenduak erator ditzakeen erantzukizunei aurre egiteko, erantzukizun horien preskripzio-epeak iraun bitartean. Aipatu epea igaro ostean, datuak suntsitu egin beharko dira.

4. Zuzendu edo ezereztutako datuak aurretiaz komunikatu badira, tratamenduaren arduradunak komunikazioa egin zaionari zuzenketa edo ezerezte jakinarazi beharko dio, baldin eta horrek tratamenduari eutsi badio; azken horrek ere datuak ezereztu egin beharko ditu.

5. Izaera pertsonaleko datuak gorde beharko dira aplikatu beharreko xedapenetan edo, hala denean, tratamenduaren gaineko ardura duen pertsona edo entitatearen eta interesdunaren arteko kontratu harremanetan ezarritako epeetan.”

Aipaturiko eskubideen mugak, DBLOren 23. artikuluan arautzen dira. eta Ogasun Publikoaren fitxategien inguruan, 23.2. artikulua.

23.2 artikulua. Artikulu honetan Ogasun Publikoko fitxategien arduradunentzako aurreikuspen zehatz bat jasotzen da. Artikuluak dio eskubide hauek garatzea deuseztatzeko aukera izango dutela, eskubidea k zerga betebeharrak betetzeko jarduerak oztopatzen dituenen eta, edonola ere, ukitua ikuskatze jardueren pean dagoenean.

Kontsulta, batez ere, DBLOren 23.2, 24.1 eta 24.2 artikuluetan jasotzen diren salbuespenetan zentratzen da.

Ezer baino lehen, berriro aipatu behar da 24.1 artikuluan agertzen diren salbuespenak DBLOren 5. artikuluan jasotzen den informaziorako betebeharrak ari direla, eta ezin zaie, beraz, ezin zaie SZEKei ezarri. Konstituzio Auzitegiak aipaturiko 292/2000 epaian, zatika adierazi du, aurretik esan dugu bezala, 24.1 artikulua zati bateko konstituzioaren kontrakotasuna eta 24.2 artikulua osotasuna.

24 artikuluko 2. paragrafoan SZEKen eskubideen salbuespenak arautzen dira, eta paragrafo hau dela eta epaiak esaten du:

“Beste batean baieztatu den bezala, mugatze arrazoiek indeterminazio maila hain dute faltan, administrazio zuhurtziarako eremu handiegia uzten dutela, bateraezina lege isilbidearen eskakizunarekin, arau boterearen lagatze txuri bat delako, legearen zuhurtziari iruzur egiten diona. Gainera, aurrekontu eta baldintzen murrizketei erreferentziarik egiten ez dionez, ezinezkoa da ezartzea administrazio erabakia den edo ez legegileak ezarritakoaren aplikaziotik ondoriozta daitekeena. “

Beraz, SZEK-ko eskubideak garatzea DBLOren 23.2 artikuluan jasotako ustezkoek bakarrik mugatzen dute. Bi dira zehazki eskubideak mugatzen dituenak.

1.- Tributu-betebeharrak betetzea ziurtatzeko administrazio-jardunak oztopatzen direnean,

2.- Ukitua ikuskatzailetza-jardunen mende dagoenean beti (23.2)

23.2 artikulua ustezkoa, DBLOren 16.5 artikuluan agertzen den mugatzearekin bat jarri beharko da:

“16.5. Izaera pertsonaleko datuak gorde beharko dira aplikatu beharreko xedapenetan edo, hala denean, tratamenduaren gaineko ardura duen pertsona edo entitatearen eta interesdunaren arteko kontratu harremanetan ezarritako epeetan.

Guri dagokigun kasuan, gaiaren inguruko foru arauak adierazten duen mantentze epea errespetatu beharko da. Epe hau igaro ondoren DBLOren 4.5 artikuluan agertzen den betebeharra bete beharko da, ezeztapena arautzean.

“Izaera pertsonaleko datuak ezereztu egingo dira, jaso edo erregistratu ziren xederako beharrezko edo egoki ez direnean.

Irizpide hauek ezartzean ezereztatze eskubidea egingo da, eta ez soilik datuen blokatzea, baizik eta hauen ezabaketa fisikoa ere.

Kontsulta egileak beste bi ustezko aipatzen ditu baita ere, eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoak ez du ikusten sartzeko eskubidea urratzen dutenik. Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zerga aitorpenaren borondatezko aldiaren datu pertsonaletara sartzeko eskaerak ez eta ziurtagiriak

jaulkitzeak ere, printzipioz, ez dute eskubidea garatzea mugatzen, aipaturiko 23.2 artikularen salbuespena ezar daitekeenean izan ezik.

Azkenik, esan behar dugu, ez dugula zuzena ikusten kontsulta egileak datuak blokeatzeari egiten dion erreferentzia, ezeztatze eskubidearen muga bat dela uste dugulako. Legeak ez du esaten, kontsulta idazkian ezartzen dena, "ez da ukituen datuak ezeztatzea ekingo, eta Epaileen edo Auzitegien esku geratuko da egon daitezkeen erantzukizunei erantzutea, hauen izen-ematearen epean", bestelakorik esaten du. Hau da, ezeztapena, kasu hauetan, datuak blokeatzea izango dela hasieran, nahiz eta izena emateko epea bukatzean, hauek ezabatuko diren. 16.3 artikulua, zehazki, hau aipatzen du:

Ezerezteak datuak blokeatuko ditu, eta datu horiek administrazio publikoen, epaileen eta auzitegien esku bakarrik gordeko dira, tratamenduak erator ditzakeen erantzukizunei aurre egiteko, erantzukizun horien preskripzio-epeak iraun bitartean. Aipatu epea igaro ostean, datuak suntsitu egin beharko dira.

ONDORIOAK

1.-. "Zergadunak" fitxategian interesdunek jasotako datuei ezin zaie DBLOren 5.5 artikuluan agertzen den salbuespena ezarri, 5. artikularen 1 eta 2 paragrafoetan aipatzen diren betebeharrak tartean daudelako. Datuok interesduna ez den beste iturri batetik jasotzen direnean, aipaturiko Foru Araua ez da ez da gaitzen duen legea informaziorako betebeharra egoera guztietan salbuesteko. Datuen izaera begiratu beharko da, eta horniketa edo bilketa datuak diren jakin, DBLOren 5.5 artikuluan esaten dena ezarri ahal izateko edo ez.

2.- Sartzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta kontra egiteko eskubideen mugak, "zergadun" fitxategian agertzen diren datuen inguruan, DBLOren 23.2 artikuluan jasotzen direnak dira.

8. BOEn eta TUEn ETXEBIZITZAK LORTZEKO ZOZKETETAN PARTE HARTUTAKO PERTSONEN ZERRENDAK ETA ESLEIPEN ZERRENDAK AGERTZEA HERRITARRENTZAKO ARRETA BULEGOAN ETA WEB ORRIAN

xxx KO UDALAK BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZEN ETA TASATUTAKO UDAL ETXEBIZITZEN ESLEIPENARI BURUZKO KONTSULTAREN INGURUAN EGINDAKO TXOSTENA

CN07-024

AURREKARIAK

LEHENENGOA: 2007ko ekainaren 15ean XXX Udalaren Langile, Antolaketa eta Informatikako Sailaren Arduradunak posta elektroniko bat bidali zuen Datuak Babesteko Euskal Bulegora. Kontsulta horretan babes ofizialeko etxeak eta tasatutako udal etxeak adjudikatzeko prozedurari buruz galdetzen zen.

BIGARRENA: Kontsultaren idazkian ondorengo gaiak aipatzen dira:

1.- Udalak behin-behineko zerrendak, behin betikoak eta adjudikazio eta itxaron zerrendak Herritarren Zerbitzurako Bulegoan agertzeko aukera.

2. Udalak behin-behineko zerrendak, behin betikoak eta adjudikazioak eta itxaron zerrendak Udalaren web orrian agertzeko aukera

3.- Izen-abizenak eta NAN zenbakia agertzeko aukera.

HIRUGARRENA. Otsailaren 25eko 2/2004 legeak, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoak 17n) artikuluan Datuak Babesteko Euskal Bulegoari hurrengo funtzioa egokitzen dio.

”Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea.

Datuak Babesteko Euskal Bulego honi dagokio, goian aipaturiko araudiaren arabera, kontsultari erantzuteko txosten bat jaulkitzea.

GOGOETAK

I

Kontsultaren lehenengo gaia behin-behineko zerrendak, behin betikoak, adjudikazioak eta itxaron zerrendak Herritarren Zerbitzurako Bulegoan agertzean datza.

Gai hau ebatzitzat eman dezakegu Herri Administrazioen eta Administrazio Prozedura Erkideko Legearen Araudi Juridikoan, 60.1 artikulua esaten baitu:

“*Administrazio ekintzak jakinaraziko dira prozedura bakoitzeko arauak horrela ezartzen dutenean edo erakunde eskudunak interes publikoko arrazoiengatik horrela gomendatzen duenean.*”

Bestalde, 59.5 artikulua, b paragrafoan, adierazten du:

“*Jakinaraztea, hurrengo artikulua terminoetan, oharpena ordezkatzeko du, eta eragin berdina izango ditu ondorengo kasuetan:*

b) *"Hautaketa prozesu baten ekintzak direnean edo edozein motako lehienak direnean. Kasu honetan, prozeduraren deialdiak zein iragarki-taulan edo komunikabidean egingo diren jakinarazpenak, eta bestelako tokietan egiten direnek ez dute zilegitasunik izango"*

Ildo horretatik, XXX Udalak prozedura arautzen du, zehatzago, 2007ko apirilaren 27ko Aldizkari Ofizialaren 82. zenbakian argitaratutako udal-ordenantzaren bidez. Ordenantza honetan Jendearentzako Harrera Bulegoan agertzea zehazki aurreikusten da. Horrela, etxebizitzaren esleipenerako prozedura arautzean, 4. artikulua esaten du: "adjudikaziodunen hautaketan parte hartuko duten pertsonen izen-abizenak jendeak ikusteko moduan egongo dira Jendearentzako Harrera Bulegoan."

Aipaturiko publikazioak, beraz, legearen babesa du.

Hala ere, fitxategiaren arduradunak kontuan izan beharko du Datuak Babesteko Lege Organikoaren 4.5 artikuluan jasotzen den ezeztapen lege aurreikuspena. Ondorengo esaten du:

"Izaera pertsonaleko datuak ezereztu egingo dira, jaso edo erregistratu ziren xederako beharrezko edo egoki ez direnean. Ez dira gordeko, interesduna nor den jakitea ahalbidetzeko moduan, datu horiek jaso edo erregistratzeko xedeak zein izan eta xede horiek betetzeko behar den denbora baino gehiago."

Irizpen honetan ez dugu hausnartuko, baina bai aipatu, bai inskripzio inprimakian, zein antzeko beste hainbat dokumentuetan ere, DBLOren 5. artikuluan agertzen den informaziorako eskubidea jasota geratu beharko dela. Horrela jakinarazi beharko da:

- Izaera pertsonaleko datuen gaineko fitxategi edo tratamendua, bai eta datu horiek biltzeko xedea
- egingo diren lagatzeak
- fitxategiaren erakunde arduraduna
- datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko edo datuen aurka egiteko eskubideak egikaritzea non egin daitekeen.
- Emaizak erakundearen iragarki-taulan eta bere web orrialdean publikatuko direla, hauen ezagutzerako beharrezkoa den epean, bai eta egin beharreko errekurtsoak egiteko ere.

II

Aipatzen den bigarren gaia, udalak behin-behineko eta behin betiko zerrendak, esleipenak eta itxaron zerrendak bere web orrialdean argitaratzeko aukerarena da.

Gai hau, berriro ere, ebatzitzat eman dezakegu Herri Administrazioen eta Administrazio Prozedura erkidearen araubide juridikoko legean, 59.5 artikuluan hau aipatzen baitu:

"Herri Administrazioek jakinarazpen era osagarriak ezarri ahalko dituzte gainerako zabalkunde-bideen bidez, jakinarazteko betebeharra baztertu gabe, aurreko bi paragrafoetan esaten denarekin bat."

Aurreikuspen bat da, jakinarazpen helburua behar bezala betetzea nahi duena: interesdunei ukitzen dien ekintzen jakinaraztea.

Gai honekin lotura daukalako, aipatu behar da 11/2007 lege berria, Zerbitzu Publikoetarako herritarren sarbide elektronikoarena, ekainaren 22koa. 4. artikuluan jasotzen ditu oinarri orokorrak eta zehatzago, c) paragrafoan informaziorako eskuragarritasunaren oinarria. Honakoa azaltzen du:

"c)" Gai honen inguruan indarrean dagoen araubidean ezartzen da informaziorako eta bide elektronikoaren bidez zerbitzuetarako eskuragarritasunaren oinarria. Era ulergarrian eta ziurrean informazioa lortzeko sistemen bidez, eskuragarritasun unibertsala bereziki bermatuz, euskarri, kanal eta ingurune guztietarako diseinuaren bidez, pertsona guztiek beren eskubideak

berdintasunean erabil ditzaten, horrela eskatzen duten talde guztiek eskuragarritasuna bermatuta izateko ezaugarriak gaineratuz.”

Arau honen 12. artikulua informazioaren eskuragarritasunaren oinarriaren gauzatzea suposatzen du, honakoa ezartzen duelako:

“Egintzen eta jakinarazpenen publikazioa, legeak edo arauak horrela esaten duelako, iragarkitaulan edo ediktuetan agertu behar direnak, ordezkaturak edo osaturak izateko aukera izango du dagokion erakundearen egoitza elektronikoan.”

Oraingoan ere, fitxategiaren arduradunak aurretik aipatu dugun ezeztapen lege aurreikuspena kontuan hartu beharko du.

III

Orokorrean, zerrendetan eta web orrialdean eskaintzen den informazioan, horietan jasotzen den informazioaren izaera jasota geratu beharko da. Publikatu diren eta izaera pertsonaleko datuak dituzten zerrendak indarrean dagoen datuen babesaren legeriari egokitu beharko dira, trataeraren helburua bezala.

Informazio paragrafo bat egon beharko da eta jaso beharko da “zerrenda hauek ez direla publikorako iturri izango eta ezingo direla errepikatu, ez zatika ez eta osotasunean ere, transmititu edo erregistratu informazio berreskuratze sistema batengatik ukituaren adostasuna izan gabe.”

IV

Hirugarren gaiari dagokionez, kontsulta egileak ezartzen du “zerrendetan izena eta bi abizenak soilik aipatu ditugu. Egokia izango litzateke NAN zenbakia agertzea ala espedientearen zenbakia, zozketan egokitutako zenbakia...bezalako datu hauek ez aipatzea hobe litzateke?”

Kontsulta hau zuzenean lotua dago datuen kalitatearen oinarriarekin, adostasunaren oinarriarekin batera, eta hauek dira araudi honen bi zutabeak.

DBLOren 4.artikuluak ondorengo ezartzen du.

Izaera pertsonaleko datuak tratatzeko bil daitezke bakarrik, bai eta tratamendu horren mende jartzeko ere, datu horiek egoki eta bidezkoak izateaz gain, gehiegizkoak ez direnean, datu horiek zein esparrutan eta zein xederekin lortu eta halakoei begira. Gainera, esparru eta xedek zehatzak, argiak eta legitimoak izan beharko dira.

Prozedura arautzen duen udal ordenantzan zozketaren parte hartzaile bakoitzari zenbaki bat egokituko zaiola esaten da. Datu honen helburua, uste dugu, beste batzuen artean, bat etorri daitezkeen pertsonen izen-abizenak identifikatzea eta desberdintzea dela. Hori dela eta, eta datuen kalitatearen oinarriarekin bat, NANaren jakinarazpenak izaera pertsonaleko datuen gehiegizko trataera izango litzateke, dagoeneko helburua lortzeko datu bat dagoenean.

Zozketarako egokitutako zenbakia erabiltzea, izaera pertsonaleko datuen babesarekin adeitsuagoa da NANA erabiltzea baino.

ONDORIOAK

Lehenengoa. Behin-behineko eta behin betiko zerrendak, adjudikazioak eta itxaron zerrendak publikoari erakusteak eta XXX udalerrian babes ofizialeko etxebizitzak eta tasatutako udal etxebizitzak emateko prozedurak ez du izaera pertsonaleko datuen babesaren araudiaren kontra egiten.

Bigarrena. Behin-behineko eta behin betiko zerrendak, adjudikazioak eta itxaron zerrendak udaleko web orrialdean publikatzeak eta xxx udalerriko babes ofizialeko etxebizitzak eta

tasatutako udal etxebizitzak emateko prozedurak, ez du izaera pertsonaleko datuen babesaren araudiaren kontra egiten.

Hirugarrena. Aipaturiko prozeduretan, zozketan egokitutako zenbakia jakinaraztea, izen-abizenak berdinak dituzten pertsonak identifikatu eta desberdintzeko helburuarekin egindakoa, datuen babesarekiko zuzenagoa da NAN zenbakia erabiltzea baino.

9. GOGOAN IZAN BEHARREKO DATUEN BABESAREN INGURUKO ALDERDIAK UNIBERTSITATEKO LAN-ESKAINZA PUBLIKOAN

XXX ADMINISTRAZIOKO ZERBITZU JURIDIKOEK ADMINISTRAZIO HONEN LAN-ESKAINZA PUBLIKOAREN INGURUKO KONTSULTARI ERANTZUTEKO EGINDAKO TXOSTENA

CN07-028

AURREKARIAK

2007ko uztailaren 24an Datuak Babesteko Euskal Bulego honetara Lege Zerbitzuaren posta elektronikoko bat iritsi zen. Postan goian aipaturiko gaiari buruzko kontsulta egiten da.

Igorritako kontsulta-idazkian ondorengoa adierazten da:

“Gu gehien kezkatzen gaituen gaietarikoa bat da hautagaiei eragiten dieten jardueren gaineko informazioa ematearen eta izaera pertsonaleko datuak babestetik eratorritako eskubideak babestearen arteko oreka aurkitzea.”

Hori dela eta, eskatzen dizuegu ondorengo gaiei buruzko informazioa eman diezaguzuela.

Hautaketa-prozesutik sortutako zerrendei gehitu beharreko informazio-eremuak (onartutakoak eta baztertutakoak, lehenengo ariketa gainditu dutenak, bigarrena, etab.), edo beste era batean esanda, datuen bateraezintasunaren zein irizpide aztertu behar dugun.

Web orrian publikatzen diren datuek daukaten babes bera eduki behar dute iragarki taulan publikatzen direnek?

Komenigarria litzateke, oinarri orokorretan klausula bat aurreikustea, interesdunak baimena eman dezan hautaketa prozesurako bere datuak kudeatzeko?. Hala balitz, eskatzen dizuegu, mesedez, klausula horren idazketa-eredu bat bidali diezaguzuen.

Jakina, badakit, hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskaeran datuen babesaren gaineko berariazko baimena aurreikusi behar dela.

Zuek uste baduzue, hemen aipatutako gaiez gain, bestelakorik ere hartu beharko genukeela kontuan, jakinaraz ezazue erantzunean, arren.

2007ko uztailaren 26an Datuak Babesteko Euskal Bulegoak XXX-ko lege zerbitzuetara posta elektronikoko bat bidali zuen eskatzeko zehatz zitzatela galdetutako gaiak. Postan adierazitako gaiak zehaztuko direla esaten da; txosten hau egin denean ez da eskaera horren erantzunik jaso.

Otsailaren 25eko 2/2004 Legeak, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoak, 17n) artikuluan, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari hurrengo funtzioak egokitzen dizkio:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea.

Datuak Babesteko Euskal Bulego honi dagokio egindako kontsultari erantzuteko txosten bat egitea.

GOGOETAK

I

Kontsultan Bulego honi eskatzen zaion gaien inguruko iritzia, nahiz eta kontsultan "zehatzak" direla esan, datuak babesteko araubide juridikoa zuzentzen duten oinarri batzuekin zuzenean bat egiten du. Oinarriok Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko 15/1999 Lege Organikoan (DBLO), abenduaren 13koa, II atalean jasotzen dira.

Horrela, gure ustez, ez da zaila, gai horiek datuen kalitatearen, segurtasunaren, adostasunaren eta informazioaren oinarriekin harreman estua dutela ikustea.

Azaldutako gai bakoitzari erantzuna emateko azterketa bat behar da, oinarri hauen azaletik bederen.

Aurrez, eta izaera pertsonaleko datuak babesteko araudiak ematen duen ikuspuntutik, kontsulta egilea kezkatzen duena, hau da, prozesuaren fase ezberdinetan egin beharreko publikazioak aztertu beharko lirateke.

Horrela, hautaketa prozesuan nahitaez izango diren publikazioek, urriaren 24ko Europar Legebiltzarreko eta Batzordeko 95/46 KE Zuzentarauaren datu pertsonalen inguruan pertsona fisikoak babesteko eta datuon zirkulazio librea, 3. artikulua 1 atalean ezartzen denaren arabera eta 2/2004 LEGEA, otsailaren 25ekoa, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa, izaera pertsonaleko datuen trataera osatuko lukete.

Are gehiago, eta aurretik aipaturiko arauekin ere bat etorrira, datuon lagatze edo jakinaraztea dakar, interesduna ez den beste pertsona bati jakinarazten zaizkion unetik.

DBLOren 11.1 artikulua arabera, tratatuko diren izaera pertsonaleko datuak hirugarren bati soilik jakinaraziko zaizkio lagatzailearen eta jasotzaileen lege funtzioekin harremana duten helburuekin, interesdunaren aurreko adostasunarekin. Hala ere, artikulua beraren 2. paragrafoan salbuespen sorta bat arautzen da, eta horien artean, ustezko honekin lotuta, lagatzea onartuko duen lege maila duen arau bat egiteko aukera agertzen da.

Dagokigun balizko egoerarako, eta funtzio publikorako legedian egon daitezkeen egokitzapenez gain, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen, azaroaren 26koa, 59.6 b) artikulua aipa daiteke. Honen arabera, publikazioak jakinarazpena ordezkatzeko du.

“Hautaketa prozesu bateko edo edozein motatako norgehiagoka baten jardura osatzen duenean”

Lehenengo ondorioa (nahiz eta agerikoa irudit, kontuan hartu beharrekoa) izaera pertsonaleko babesaren ikuspuntu zorrotzetik, egin nahi den datuen “trataera” egin beharreko publikazioen bidez hauen “jakinaraztea edo lagatzea” egitea da, eta honek lege maila duen arauan babes nahikoa aurkitzen du.

II

Aurreko ondoriara iritsi ondoren, deialdia egin duen Administrazioari dagozkion lege betebeharrak betetzeko egindako datuen jakinaraztea eta trataera, izaera pertsonaleko datuak babesteko, funtsezko eskubidea arautzen dituzten oinarri eta arauak egokituko beharko dira, aurretik aipaturiko oinarriak tartean daudela.

Horrela, bada, eta lehenengo gai eta oinarriarekin hasita, datuen kalitatearena, DBLOren 4. artikuluan esaten dena aztertu beharko da:

“Izaera pertsonaleko datuak tratatzeko bil daitezke bakarrik, bai eta tratamendu horren mende jartzeko ere, datu horiek egoki eta bidezkoak izateaz gain, gehiegizkoak ez direnean, datu horiek

zein esparrutan eta zein xederekin lortu eta halakoei begira. Gainera, esparru eta xedeak zehatzak, argiak eta legítimoak izan beharko dira.”

Bulego honen lehenengo xedapenetan eta bestelako kontrol organoen esperientzia jaso ondoren, esan zen aginduak gordetzen duen oinarriaren interpretazio egokiak, aurrera eraman nahi den tratamendurako arrazoizko eta proportziosko irizpideak erabiltzera eramaten gaituela, lortu nahi den helburuarekin bat.

Aurkezten den ustezkoan, tratamenduak alegia, (kanporatutakoen datuak argitaratzea, onartutakoenak, emaitzak, etab...) bulego honen ustetan, ezin du bestelako helbururik izan, Herri Administrazioaren zerbitzurako lan egiten duten langileen hautaketa zerbitzuak hautatzen dituen argitaratze oinarria betetzearena ez bada (Euskal Funtzio Publikoaren Legeko 33. artikulua). Artikulu honek, azkenean, funtzio publiko eta kargu publikoetara baldintza berdinetan eskuratzeko funtsezko oinarria betetzen laguntzen du, jakinarazpen honek prozesuaren kontrola ahalbidetzen duelako.

Irizpide orokor bezala, ezarri dezakegu, jakinaraziko diren izaera pertsonaleko datuak, jakinarazpen honek lortu nahi duen helburua betetzen lagunduko dutenak soilik izango direla.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak irizpide hau ezartzea baino ez dezake egin, berari ez baitagokio ezartzea zeintzuk izango diren kasu zehatz bakoitzerako tratatu beharreko eremuak edo datuak eta tratamendu hau egiteko modua, Administrazio bakoitzaren lana delako, prozesu bakoitzaren izaera eta ezaugarriak behatuz. Era berean, Administrazio bakoitzari egokituko zaio prozesua arautuko duten oinarriak finkatzea, izaera pertsonaleko datuen tratamendu egokia egon dadin, orain dagokigun alderdian ere bai.

III

Bulego honek uste du, kontsultan azaltzen den bigarren gaiari ekiteko, ikuspuntu interesgarria litzakeela Internet bidez argitaratzen diren izaera pertsonaleko datuen xehetasunak azpimarratzea, bide honetatik datuak argitaratzeko aukera ematen duen premisatik abiatuta, (*“kasu honetan, deialdiaren prozedurak adierazi beharko du zein iragarki-taulan edo komunikabidetan egingo diren argitarapenak...”* 30/1992 Legearen 59.6b) artikulua). Kontuan izan beharko da, bestalde, 11/2007 Legeak, ekainaren 22koak, herritarren zerbitzu publikoen sarrera elektronikoarenak, informazioaren teknologiei eman dien bultzada garrantzitsua.

Bultzada hau ez da eragozpen bat legegilearentzat Lege honen zioen azalpenean onartzen delako *“...irtenbidea eman behar zaien beste hainbat ondorio...”*, eraginez *“lehenik,... ematen diren datu batzuen pribatutasunaren arazoa, baina... erabileraren arazoa sortzen duena...”*.

Hori dela eta, Zioen Azalpenak berak ezartzen du: “ Informazioaren eta Komunikazioen Teknologia ezartzea daukan erronka nagusia... bere erabilerari lotuta dauden arriskuak ezabatzeko edo gutxitzeko konfiantza nahikoa sortzea da”.

Horretarako, eta kontuan hartuta izaera pertsonaleko datuak babesteko funtsezko eskubideaz gain dagoen arriskurik nagusia Interneteko bilatzaileen bidez partikularren buruzko informazioa biltzeko ematen duen gaitasunean datzala, eta Datuen Babeserako Lantaldeak 2000ko azaroaren 21eko lan dokumentuan emandako gomendioei jarraiki, Datuak Babesteko Euskal Bulego honek txosten honetara atxikitzen zaion Interneten zerrendak argitaratzeko protokolo bat eratu du.

Azkenik, aipatu beharko litzateke, orain arte azaldu diren bi ikuspuntuak lotzeko aukera ematen digun gai bat. Kontsulta egileak honen inguruan ezer ez esan arren, komenigarria litzateke, arreta jartzea, Bulego honen aldetik, datuen kalitatearen oinarriarekin harremana daukalako eta Internet bidez egindako argitalpenetarako interes handia daukalako.

DBLOren 4. artikulua, 5. paragrafoan, gai honi buruz hitz egiten du:

Izaera pertsonaleko datuak ezereztu egingo dira, jaso edo erregistratu ziren xederako beharrezko edo egoki ez direnean.

"Ez dira gordeko, interesduna nor den jakitea ahalbidetzeko moduan, datu horiek jaso edo erregistratzeko xedeak zein izan eta xede horiek betetzeko behar den denbora baino gehiago.

Internet bidez egindako argitalpenen oinarria ezartzeko, lehenik eta behin, kontuan hartu behar da bide hau ez dela publikorako iturri eskuraeraza DBLOren 3j) artikulua terminoen arabera. Honek esan nahi du ezarri daitekeen araubide juridikoa, orain dagokigunaren gainean, aldizkari ofizialetan ezar daitekeenetik ezberdina izango dela.

Horregatik, Interneteko argitalpenei kalitatearen oinarria ezarrita, bide honetan denbora mugarik gabe datuak mantentzea galarazten du, eta behin prozesuaren fase bakoitzerako aurreikusitako epea bukatuta ezeztatu beharko dira. Egin beharreko inpuñazioak egiteko ezarritako epea igaro ostean, inolako helbururik ez duelako betetzen datuok mantentzea.

IV

Azaldutako hirugarren gaia aztertzean, datuen titularrak datuak lagatzeko inolako klausularik aurreikusteko egokitasunaren ingurukoa, orokorrean eta DBLOren 6. artikuluan esaten denaren arabera, ez da beharrezkoa bere datuak tratatzeko interesdunaren adostasuna izatea, datuok herri administrazioek beren eskumenen barne dauden funtzioak aurrera eramateko jaso direnean.

"Inolako klausularik" sartzeko "*egokitasunari*" buruz galdetzen denean, eta aukera irizpideak emateko beharrezkoa den ardura kontuan hartuta eta kontsultak nahi duen lagatze mota zein den ez dakigulako, esan beharra dago, lehenik eta behin, aurretik aipaturiko 6. artikuluan jasotzen den aurreikuspenak kudeaketa guztiak biltzen dituela, prozesuaren garapena egokia izan dadin.

Idea honi erantzuten dio fitxategiaren helburuaren, hautaketaren eta postuen horniketaren deskribapenak, 2007ko otsailaren 28ko Ebazpenaren 14. zenbakian jasotzen dena eta Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean otsailaren 8ko saioan onartutako Akordioa argitaratzea onartzen duenak, izaera pertsonaleko datuak sortzeko, aldatzeko eta ezeztatzeko akordioa hain zuzen ere.

Hori dela eta, errepikatu nahi da, ez dela gomendagarria deialdiaren oinarrietan baimen klausula sartzea kudeaketa arrunt honetarako.

Edonola ere, eta eskatu eta eskaini daitekeen baimenari (onarpena) dagokionez, askea, informatutakoa eta zalantzarik gabekoa izateaz gain, zehatza izan behar du. Gomendagarria da, kudeaketa akzio bat antzematen denean, eta aurretik aipaturiko 6. artikuluan babesik aurkitzen ez badu, klausula bat sartzea baimen zehatz bat eskatzeko.

V

Aldez aurretik, argudio bera, goian aipaturiko ardura berdinekin, balizkoa da laugarren gaiari erantzuteko, hautaketa prozesuan parte hartuko dutenen izaera pertsonaleko datuak tratatzeko baimen orokor bat eskatzeko beharra ikusten ez delako, datuok eta tratamendua kalitatearen eta egokitasun oinarria betetzen dutenean, dena dela unea, (oinarri orokor edo zehatzen argitalpen edo prozesuan onartzeko eskaera). Baina egia era bada, une hau egokiena izango litzatekeela, beharrezkoa den kasuetan, baimena eskatzeko.

Azkenik, informaziorako eskubidea aipatu beharra dago.

Aurreikusten denez, onarpenaren formalizazioa inprimaki baten bidez egingo dela, eta hau izango delako parte hartzaileen izaera pertsonaleko datuak jasoko diren unea, DBLOren 5.artikuluak 1 eta 2 paragrafoek honakoa jasotzen dute:

1. Datu pertsonalak eskatzen zaizkien interesdunei aurretiaz eta esan-bidez informazio zehatza eta zalantzarik gabea eman beharko zaie, ondoko hauen inguruan:

a) Izaera pertsonaleko datuen gaineko fitxategi edo tratamendua, bai eta datu horiek biltzeko xedea eta informazio horren jasotzaileak ere.

b) Egingo zaizkien galderei erantzutea nahitaezkoa edo borondatezkoa den.

c) Datuak lortzearen ondorioak edo datu horiek ez ematearen ondorioak.

d) Datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko edo datuen aurka egiteko eskubideak egikaritzea.

e) Tratamenduaren arduradunaren identitatea eta helbidea edo, hala denean, arduradun horren ordezkariarenak.

"Datuak biltzeko galdera-sortak edo beste inprimaki batzuk erabiltzen badira, aurreko idatz-zatian aipatutako ohartarazpenak jasoko dira halakoetan, argiro irakurtzeko moduan jaso ere.

Arau honen arabera, prozesurako onarpena eskatzeko erabiliko diren inprimakietan informazio klausula bat egon beharko litzateke.

ONDORIOAK

Kontsultan aurreikusitako tratamenduak izaera pertsonaleko datuen babeserako araudiarekin bat datoz, txosten honetan jasotzen diren terminoetan.

10. ENERGIA ELEKTRIKOA EKOIZTEKO INSTALAZIOEK UKITZEN DUTEN PERTSONA FISIKO EDO JURIDIKOEN ONDASUNEN BURUZKO DATUAK HIRUGARREN BATI LAGATZEKO ZILEGITASUNA

XXX UDALAK ENERGIA ELEKTRIKOA EKOIZTEKO INSTALAZIOEK UKITZEN DUTEN PERTSONA FISIKO EDO JURIDIKOEN ONDASUNEN BURUZKO DATUAK HIRUGARREN BATI LAGATZEKO ZILEGITASUNARI BURUZ EGINDAKO GALDERARI ERANTZUTEKO EGINDAKO TXOSTENA

CN07-029

AURREKARIAK

LEHENENGOA. 2007ko abuztuaren 3an Datuak Babesteko Euskal Bulego honetara XXX Udalaren idazki bat iritsi zen, ABC S.L enpresak Udal honi egindako datuen eskaera atxikita zuela.

BIGARRENA. Idazki honetan, enpresak hurrengo gaiak aipatzen ditu:

1. 115/2002 Dekretuak, maiatzaren 28koak, Euskal Autonomia Erkidegoan parke eolikoetako energia eolikotik energia elektrikoa ekoizten duten instalazioei baimena emateko prozedura arautzen du
 2. Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Arabako Lurralde Bulegoaren buruak 200ko ekainaren 5ean iragarria, administrazio baimena lortzeko eskaera publiko egin zuen, Iturrieta, Aldako Gurutzea, Araba, Arkamo eta Kolometako mendietan Parke Eolikoak ustiatzeko eta ezartzeko.
 3. 115/2002 Dekretuaren 4. artikuluan ezarritakoaren arabera, 20 eguneko epean, Euskal Herriko Aldizkari Ofizialen eta dagokien Lurralde Historikoen Aldizkari Ofizialen azken argitarapen egunetik aurrera, eskaerak aurkezteko aukerari hasiera ematen zaio.
 4. Aipaturiko Dekretuaren 5.artikuluaren arabera, emandako epea bukatuta eta hurrengo hilabetearen baitan, administrazio baimenaren eskatzaileek, besteren artean, Parke Eolikoaren aurreproiektu bat aurkeztu beharko dute, tekniko eskudun batek sinatua eta Elkargo Ofizialak bisatua. Bertan, beste gai batzuen artean, ondorengo jasota geratu beharko da: instalazioak eragingo diren ondasunen jabe diren pertsona fisiko edo juridikoen, instalazioen, lanen edo zerbitzuen zerrenda.
 5. Arabako Lurralde Bulegoko buruarekin hainbat elkarrizketa izan ondoren, eskabide bat egiteko eskatzen zaigu, aipaturiko Parke Eolikoaren ezarketa eta ustiaketa eragingo diren Udalei bidatzeko. Udal hauek instalazioengatik ukituak izango diren pertsona fisiko eta juridikoen datuak, ondasun titulartasunarena eta deskribapenarena eta instalazio eta lan edo zerbitzuak zeintzuk izango diren adierazi beharko dute, 115/2002 Dekretuaren 5.artikuluan ezarritakoa betetzeko.
 6. ABC S.L enpresaren arabera, Aldako Gurutzea-Arabako Parke Eolikoko ezarpena eta ustiaketa aurrera eraman ahal izateko instalazioengatik ukituak izango diren pertsona fisiko eta juridikoen datuak, ondasun titulartasunarena eta deskribapenarena eta instalazio eta lan edo zerbitzuak zeintzuk izango diren adierazteko eskatzen da, 115/2002 Dekretuaren 5.artikuluan ezarritakoa betetzeko.
- Otsailaren 25eko 2/2004 Legeak, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa, 17n) artikuluan Datuak Babesteko Euskal Bulegoari hurrengo funtzioak egokitzen dizkio:

"Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea.

Datuak Babesteko Euskal Bulego honi dagokio egindako kontsultari erantzuteko txosten hau egitea.

GOGOETAK

I

Kontsulta gaia oinarritzen da ea zilegi ote den udalak hirugarren bati lagatzea energia elektrikoa sortuko duen instalazioek pertsona fisiko edo juridikoen ondasunetan eragina izango duen datuak.

Lehenik eta behin, argi utzi behar da pertsona juridikoen datuak lagatzeak ez duela arazorik suposatzen datuen babesaren ikuspuntutik, otsailaren 25eko 2/2004 Jabetza Publikoko Fitxategi eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko Legearen, 3a) artikuluan esaten du izaera pertsonaleko datuak direla *"edozein informazio pertsona fisiko edo juridikoaren inguruan, identifikatutakoak edo identifikagarriak izan daitezkeenak."*

Izaera pertsonaleko datuen kontzeptutik kanpo geratzen dira pertsona juridikoen datuak.

Pertsona fisikoei dagokienez, hirugarren bati datuak lagatzea 15/99 Izaera Pertsonaleko Datuen Babesaren Legeak 11.artikuluan arautzen du:

11. artikulua. Datuen komunikazioa.

1. Tratamenduaren objektu diren izaera pertsonaleko datuak hirugarren bati komunika dakizkioke soil-soilik datu-lagatzailaren eta datu-hartzailearen eginkizun legitimoekin zuzeneko lotura duten xedeak betetzeko; interesdunak aurretiaz horren inguruko adostasuna eman beharko du.

Baimena izateko salbuespena hurrengo paragrafoan jasotzen da; salbuespen horien artean, dagokionarekin lotura daukalako, lehenengoa aipatu dezakegu:

2. Aurreko idatz-zatian ezarritako adostasuna ez da beharrezkoa izango:

a) Legeak baimentzen duenean lagapena.

Une honetan aipatu beharra dago arlo elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legearen 21.2 artikuluan esaten dena:

"2. Energia elektrikoa sortzeko instalazioen baimenen eskatzaileek hurrengo alderdiak egiaztatu beharko dituzte:

Instalazioen energia, teknika eta segurtasun eraginkortasun baldintzak.

Ingurumenerako babes neurrien baldintzak behar bezala betetzea eta ingurumenaren eragina txikitzea..

Instalazioen kokalekuaren gorabeherak..

Proiektua aurrera eramateko lege, teknika eta ekonomia eta finantza gaitasuna.

Euskal Autonomia Erkidegoan, kontsultak erreferentzia egiten dion instalazioen kokalekuaren gorabeheren egiaztapena lortzeko, maiatzaren 28ko 115/2002 Dekretuaren bidez arautzen da. Dekretu honen 5.artikuluan

Parke eolikoaren aurreproiektua, teknikari gaitu batek sinatua eta elkargo ofizialak onetsitakoa. Aurreproiektuak memoria bat izan beharko du, eta memoriak honakoak jaso beharko ditu gutxienez:

Instalazioengatik ukituak izango diren ondasunen, instalazioen, lanen edo zerbitzuen jabeen pertsona fisiko eta juridikoen zerrenda.

54/1997 Dekretua Sektore Elektriakoaren Azken Xedapenen Lehenengo Legean ezarritakoaren babesean idatzi da. Hurrengoa esaten du:

“1. Lege honek oinarritzko izaera du, Konstituzioaren 149.1.13 eta 25 artikuluetan ezartzen denaren arabera:

2. Oinarritzko izaera honetatik alde batera uzten dira administrazio prozedurak, dagokion Administrazioak arautuko dituen, azaroaren 26ko 30/1992 Administrazio Publikoen eta Administrazio Prozedura Erkidearen Lege Araubideari buruzkoa egokituz.

Hau da, Autonomia Erkidegoak beharrezko lege testua garatzen lagundu du, baimentzeko prozeduraren arautze zehatza, Legeak izaera orokor bezala betebeharrak zehaztuz.

Hori dela eta, argi dago erakunde eskatzaileak parke eolikoak instalatzeko baimen prozeduran interesatua dagoela eta EAEko Administrazio Orokorak tramitatzen dituela baimenak.

Hala ere, kontsulta gaia da Udalari eskatutako datu pertsonalen lagatzeak lege babesik ote duen zehaztea.

Kontsulta idazkian ez da zehazten zein izango litzatekeen lagatzearen iturri izango zen udal fitxategia, eta honek gaia zailtzen du, baina eskatutako datuen arabera katastroa izango litzatekeela pentsa daiteke.

Katastroari dagokionez, martxoaren 5eko legegintzako errege-dekretuaren 50.1 artikulua aipatu behar da, higiezinaren katastroaren Legearen testu bategina onartzen denaren bidez. Ondorengoa aipatzen du.

“2. eta 4.artikuluetan aipatzen den katastro informazioaren hedatzea atal honetan ezartzen denaren arabera arautuko da (IV Atala)”.

Legegintzako Dekretu honen 51.artikuluaren babestutako datuak arautzen dira eta ezartzen du:

“Atal honetan ezartzen denaren arabera, Higiezinaren Katastroan inskribatua dauden titularren izen-abizenak, helbidea eta identifikazio kodea babestutako datutzat hartzen dira, bai eta balio katastrala eta banakako balioa ere”.

Erakunde eskatzaileak izango lukeen informazioa, katastroaren araudiaren arabera, babestutako informazioa litzateke. Informazio hau eskuratzeko, 53.artikuluak esaten du:

Babestutako katastro informazioa eskuratzeko.

1. Babestutako katastroaren datuak eskuratu ahal izateko ukituaren adostasun argia, zehatza eta idatzizkoa izan beharko du; edo legeak adostasun hau baztertzen duenean edo jasotako informazioa hurrengo interes legitimo eta zuzeneko ustezkoetarako:

Izaera historiko, zientifiko edo kulturalerako ikerketa proiektuak aurrera eramateko, unibertsitateek edo ikerketa zentroek lagunduta, betiere Ogasun Ministerioak garrantzitsuak direla uste duenean.

Notarioek eta jabetza erregistratzaileek finkak identifikatzeko, eta zehatzago, V. atalean ezarritakoa betetzeko eta exekutatzeko.

Higiezinaren Katastroan titular bezala agertzen den titularraren partzela mugakideak identifikatzeko, higiezin bakoitzaren katastroko balioaren salbuespenarekin.

Benetako gaindikortasun, errentamendu edo apartzeria eskubideen titularrak edo titularkideek Higiezinaren Katastroan inskribatuta dauden ondasun higiezinaren gain, higiezin hauen inguruan.

Jaraunsle edo oinordekoek, Higiezinaren Katastroan inskribatuta dauden eragile edo eskualdatzailearen ondasun higiezinari dagokienez.

2. Hala ere, babestutako katastroko informazioa eskura dezakete, ukituaren adostasunik gabe:

Estatuko Administrazio Orokorreko erakundeak eta bestelako Lurraldeetako Herri Administrazioak, Zerga Administrazioaren Estatu Agentzia eta erakunde kudeatzailea eta Gizarte Segurantzako zerbitzu orokorrak, eskumenen, egokitasuna eta proportzionaltasun oinarrien ondorioz dauden mugekin.

Ikerketarako parlamentu batzordeak, Arartekoa eta Kontuen Auzitegia, bai eta antzeko funtzioak dituzten autonomia erakundeak ere.

Epaileak, auzitegiak eta Kontuen Auzitegia.

Erakundeak, korporazioak eta entitate publikoak, beren funtzio publikoak aurrera eramateko, eta dagokien Administrazioaren bidez, a) paragrafoan eskatzen diren betebeharrekin bat datozenak.

Transkribatutako agindu hauetatik ondoriozta dezakegu ez dagoela lege gaikuntzarik kontsulta egin duen Udalak datu pertsonalak lagatzeko erakunde eskatzaileari. Ez dezagun ahaztu erakunde pribatu bat dela, "ABC S.L" merkataritza enpresa zehatzago, EAeko Administrazio Orokorren aurrean administrazio prozedura batean parte hartzen duena, baimena eskatzen duten beste eskatzaileekin lehian. Beraz, ez dago pertsona juridikoaren eta Administrazioaren arteko lotura bereziko harremanik, nahi den datuen lagatzea legitimatzen duena.

II

Behin aipatuta ez dela lagatzerako lege gaikuntzarik, 115/2000 Dekretuaren betetzeari buruz hausnarketa egin beharko genuke, datuen kalitateari buruzko oinarriarena, 15/99 Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko Legearen 4.artikuluaren jaso.

" Arau honek hurrengo aipatzen du: "izaera pertsonaleko datuak trataerarako soilik jasoko dira, beharrezkoak, argiak eta ez gehiegizkoak direnean, jaso zituzten helburu legitimoak betetzekoa"

Oinarri hau jaso izan da, beste batzuen artean, Entzutegi Nazionalen Administrazioarekiko Auzietako Salaren Epaian, 2001eko martxoaren 9koa:

"Izaera pertsonaleko datuen trataera automatizatua oinarritzen duen legedia datuen kalitatearena da. Oinarri honek suposatzen du jaso edo erregistratu diren datuak, beharrezkoa den helburu baterako jaso behar direla (5/1992 LO, 4.5 artikulua)."

Kasu honetan, aipaturiko dekretuaren artikulua aztertzeak ondorengo ondorioetara garamatza:

- Maiatzaren 28ko 115/2002 Dekretuak energia eolikoaren bidez energia elektrikoa ekoizteko instalazioak exekutatzeko baimenaren prozedura arautzen du, Euskal Autonomia Erkidegoko eremuan.

- Aipaturiko Dekretuan, 4.artikuluaren zehazki, lehian dauden eskaeren baimen administratiboa aurkezteko aukera kontenplatu da, eta horretarako Aldizkarian publikatzea aurreikusten da.

- Publikazioaren ostean, eskatzaileek, hilabete bateko epean, hainbat dokumentu aurkeztu beharko dituzte, eta horien artean instalazioengatik ukituak izango diren pertsona fisiko eta juridikoen ondasun, instalazio, lan eta zerbitzuen zerranda dago.

- Eskatutako dokumentazioa aurkeztuko ez balitz, hamar eguneko epea emango zaio eskatzaileari dokumentuak aurkezteko, eta epe honen ondoren emango ez balitu, bere eskaeran atzera egin duela usteko da.

- Ondoren, Energiaren Zuzendaritzak Ebazpen bat idatziko du, eta irizpide batzuk jarraituta egokiena den aurreproiektua aukeratuko du -horien artean ez da ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda egongo-.
- Instalaziorako aurreproiekturik egokiena aukeratu ondoren, bere titularrak Energia Zuzendaritzari ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda zehatz bat eta indibidualizatutako dokumentazioa igorri beharko dio.

Behin Dekretu hau aztertu ondoren, Bulego honek uste du gehiegizkoa dela, informazioaren autodeterminazioaren funtsezko eskubidearen ikuspuntutik, baimen administratiboaren titulargai soil bati hirugarrenen datu pertsonalak dituen dokumentazioa eskatzea, titulargaiaren aurreproiektua aukeratzen ez bada, erabiliko ez direnak. Betebehar honek, gure ustez, DBLOak eskatzen duen datuen kalitatearen oinarria apurtzen du.

ONDORIOA

Udalak erakunde pribatuari energia elektrikoa ekoizteko instalazioengatik ukituak izango diren ondasunen, instalazioen, lanen edo zerbitzuen jabe diren pertsona fisikoen datu pertsonalak lagatzea ez dator bat datuak babesteko araudiarekin

11. ALDI EXEKUTIBOAN ZUZENBIDE PUBLIKOKO ZERGA-BILETAREN DATUAK BILTZEKO BESTE ADMINISTRAZIOEI ESKATUTAKO DATUEN LAGATZEA

EUSKO JAURLARITZAKO XXX SAILEKO ZUZENDARI JAUNAREN KONTSULTA DELA ETA EGINDAKO TXOSTENA.

CN07-032

AURREKARIAK

2007ko irailaren 26an Datuak Babesteko Euskal Bulego honetara Eusko Jaurlaritzako XXX Saileko Zuzendari jaunaren idatzi bat iritsi zen, goian aipaturiko gaiari buruzko kontsulta jasotzen zuena.

Bidalitako kontsulta-idazkian ondorengoa aipatzen da:

“XXX Zuzendaritza, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioiko Sailaren barruan zuzenbide publikoko diru-sarrerak betearazpen aldian zerga-bilketarako eskumena duen organoa da (zergadunak nahiz ez zergadunak).

Horretarako, sail kudeatzaileek, borondatezko aldian, zorren ez ordaintzea egiaztatu dutenean, Zuzendari honek probidentziaren premiamendu exekutiboa ematen du, epai baten indar berdinarekin, eta zehazki adierazten zaio behartuari ezarritako epean zorra ordaindu ezean, bere ondasun eta eskubideak bahituko zaizkiola.

Zerga-bilketa hau, premiamendu prozeduraren bidez, modu egokian gauzatzeko, Zuzendaritzak zordunei buruzko zenbait datu behar ditu, egun ez dituenak, eta ondoren zehazten direnei eskatu behar dizkienak (Foru Aldundiak, Eustat eta GSDO).

Helbide fiskala.- Herritarrei premiamendu probidentzia hori jakinarazteko –posta elektronikoaren bidez-, Zuzendaritzak eguneratutako helbideen beharra izango du. Egun, sail kudeatzaileek ematen dituzten helbideak erabiltzen dira, bereziki trafiko isunetarako, ez dira oso fidagarriak izaten, eguneratuta ez daudelako edo isunak kentzen dituzten enpresei dagokielako eta honek, askotan, zorduna ez aurkitzea eragiten du eta batere desiragarria ez den probidentzien ediktu jakinarazpenetara joko da. Hori dela eta, bai Foru Aldundiak edo EUSTATEk, ezartzen duten protokoloaren bidez, XXX Zuzendaritza honi ordaintzera behartuta daudenen helbideak lagatzeko eskatzen dugu, zerga- biletaren prozedurako ekintza guztiak jakinarazteko, 30/1992 Legean ezarritako berme guztiekin.

Nominen eta soldaten ordaintzaileen datuak.- Bestalde, behin zordunak eta Printzipio Ordenatzailean 40 bis artikuluan ezartzen den epean ordaindu gabeko zorra identifikatuta, bahiketak egingo dira, dagokion eginbidea idatzi ondoren, dirua bahitzeko jarduera masiboen bidez, bide telematikoekin, gordailu erakundeetan irekitako kontuetan (AEB/ CECA 63 koadernoak). Hala ere, zordun horien kontuak aurkitzen ez direnean, eta Tributuen Lege Orokorreko 169.artikuluan ezartzen denari jarraiki, soldata eta pentsioak bahituko dira. Une horretantxe beste erakundeen kolaborazioa behar dugu, Foru Aldundiena edo, hala balegokio, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrena, Administrazio honi zordun exekutiboen datuak lagatzeko helburuarekin. Datu hauek ondorengo xehetasunak izan beharko dituzte: lan egiten duen enpresaren izena, sozietatearen helbidea, jarduera egiten den helbidea, enpresaren altako eta bajako data, soldaten bahiketen bidez zorrak ordaindu ahal izateko.

Goian aipaturiko datuen lagatzearen bi mota hauei dagokienez, Zuzendaritza honek lagatako informazioa erabiltzeko konpromisoa hartzen du Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioarekin, zordunen betebeharrak betetzeko, zuzenbide publikoaren irabazien kontzeptu pean.

Zuzendaritza honek erabiltzen duen premiamendu prozeduraren ezaugarriak behin azalduta eta beste Administrazioei exekuzio aldiko zorrak ordaintzeko beharrezko dituen datuak lagatzeko

beharra ikusita, bidaltzen dizuedan kontsulta zehatza ondorengoa da: Bulego honen ustez, hiru Foru Ogasunei, EUSTATi eta GSDOari zuzendutako eskaerak, datu pertsonalen lagatzeari dagokionez, erakunde hauek aintzat hartu behar ote dituzten, erakunde hauek izaera pertsonaleko datuen babeserako araudia urratzen duela argudiatu gabe.

Ilido horretatik, Bulego honek bere txostenean kontuan izan behar du Zuzendaritzak kudeatzen dituen zuzenbide publikoaren irabazien zatirik handiena isun administratiboari dagokiela eta hiru lurraldeetan (zergei buruzko foru arau ezberdinak) araudi bat badagoela, bai eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian ere (Gizarte Segurantzaren Legea). Araudi hauetan, beste Administrazio bati soldatak ordaintzen dituzten erakundeek datuak lagatzea soilik gertatuko da zergen betebeharrak betetzeko, beren eskumenen arloan."

Otsailaren 25eko 2/2004 Legeak, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoak, 17n) artikuluan, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari hurrengo funtzioak egokitzen dizkio:

"Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkieten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkieten galderei erantzutea.

Datuak Babesteko Euskal Bulego honi dagokio egindako kontsultari erantzuteko txosten hau egitea.

GOGOETAK

I

Nahiz eta azaldutako arazoa, finean, bakarrean bat egiten duten "... *beste administrazioetatik zenbait datu lagatzeko beharra...*", aurreikusitako lagatze bakoitzaren inguruan dauden inguruabarrak ezberdinak dira eta hori dela eta, azterketa berezitua bat eskatzen du.

Edozelan ere, komenigarria da, hasieratik, azterketa hauek oinarritzat izango dituzten arauk hasieratik eskura izatea.

Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 40.artikulutik hasi beharko da, Euskadiko Ogasun Orokorren Printzipio Ordenatzailearen Legea, testu bategina onartzen dena, orain interesgarria izan daitekeena aztertzeko:

" a), d) e) eta f) ataletan eta 32.artikuluan aurreikusitako diru-sarrerez gain, Ogasun Orokorren izaera publikoko eskubideak zerga-bilketa administratiboaren prozeduraren bidez burutuko dira, Euskadiko Ogasun Orokorren Zerga-Bilketaren Araudiak ezartzen duenaren arabera edo zuzenbidean onartutako beste edozein prozeduraren bidez, eta kasu bakoitzean aplikagarria da."

<Hala, bada, aipatu behar da abuztuaren 31kako 212/1998 Dekretua, Euskadiko Ogasun Orokorreko Zerga-Bilketaren Araudia onartzen duena, eta bereziki, araudi honen V. atala.

Bestalde, aurretik aipaturiko Legegintzako Dekretuaren 4.artikuluaren arabera:

"Euskal Autonomia Erkidegoak, bere eskumenen arloan eta Ogasun Orokorrekin harremanetan, Estatuari onartzen zaizkion eskumen berak izango ditu, lege maila duen xedapen zehatza izan ezik."

Honek, lehenik eta behin, azaroaren 26ko 47/2003 Aurrekontu Lege Orokorreara garamatza. Lege honen 10.1.artikuluak ondorengoa esaten du:

"Izaera publikoko eskubide bakoitzarentzako Araudiak ezarritako arauen kalterik gabe, eskubide hauen kobrantza kasu honetan egingo da, dagozkien administrazio prozeduren arabera eta

Tributuen Lege Orokorrean eta Zerga-Bilketaren Erregelamendu Orokorrean ezarritako eskumenak izango ditu.”

Une honetara iristean, lehengo ondorio bat atera daiteke: aldi exekutiboan zuzenbide publikotik jasotako diru-sarrerak Zerga-bilketarako kudeaketarako eskumena daukan erakundeak lagatze honetan parte hartzen duela, legegileak horrela nahi izan duelako, Zerga Administrazioari laguntzen dioten eskumenek izendatua. Eta hau hedatu daiteke guri dagokigun arazora (datuak lortzea).

Ondorio hau azaldu ondoren, hurrengo urrats logikoa da dituen eskumenak zein diren aztertzea.

Honek, zuzenean, 58/2003 Tributuen Lege Orokorreko 93, 94 eta 95.artikulueta garamatza, eta Tributuen Foru Arau Orokorretara.

Ildo horretatik, komenigarria litzateke, bestalde bai orain dela gutxi publikatu delako eta baita azaldutako arazoekin harremana daukalako ere, uztailaren 27ko 1065/2007 Errege Dekretuari erreferentzia egitea, Araudi Orokorra zerga kudeaketa eta ikuskapenerako jarduerak eta prozedurak eta zerga aplikazio prozeduretako arau komunak garatzea onartzen duena. 1. artikuluan ondorengoa ezartzen du “.... *Araudia zerga-bilketa kudeaketari ezarriko zaio uztailaren 29ko 939/2005 Errege Dekretuan onartua Zerga-Bilketaren Erregelamendu Orokorrean aurreikusten ez zaionari, uztailaren 29ko 939/2005 Errege Dekretuan onartua.*

Zioen azalpenean agertzen denaren arabera, aipaturiko araudiak bere helburuen ondorengoa garatzea du: “... abenduaren 17ko 58/2003 Tributuen Lege Orokorreko 93, 94 eta 95.artikuluak, zerga datuak informatzeko betebeharrak eta datuon ezkutuko izaeraz”.

Zentzu honetan, eta orain guretzat interesgarriena izan daitekeenari begiratuta, Araudi honen II.atalari aipamen berezia egin beharko genioke eta bereziki V kapituluko 1. eta 3.atalei.

ZLOaren eta 1065/2007 Errege Dekretuaren artikulua hauen exegesi bat egiteko beharrik gabe, zentzuzkoa litzateke, era berean, datuak jakinarazteko betebeharrak helburu hauetarako modu ahalik eta zabalenean formulatua dago. Zentzu honetan, ZLOaren 93. eta 94.artikuluak eta beren arauzko garatzea, modu generikoan esanda, pertsona publiko eta pribatuek Zerga administrazioari mota guztiko datuak, txostenak eta tributu garrantzia duten aurrekariak emateko beharra ezartzen dute.

II

Bi ondorio hauetara iritsi ondoren, beharrezkoa da bere formulazio generikotik kontsultan azaltzen diren ustezko zehatzetara pasatzea.

Lehengo ustezkoa helbidearen datua lortzeko -premiamendu probidentzia jakinarazteko-aukeraren ingurukoa da. Foru Aldundietatik edo EUSTATetik lortu nahi da helbidearen datua.

Azken hau dela-eta, formulario generikoari egin beharreko ñabardura Tributuen Lege Orokorretik dator.

Lege honen 93.4b) artikulua ondorengoa ezartzen du zehazki:

“Funtzionario publikoak, profesional ofizialak barne, behartuta egongo dira Zerga-Bilketen Administrazioarekin, tributu garrantzia daukan edozein informazio ematera, aplikagarri denean izan ezik”.

b) soilik helburu estatistiko baterako Administrazioari emandako datuen sekretua”.

(Zentzu berean Lurralde Historikoetarako, otsailaren 28ko eta martxoaren 8ko 6/2005 Zergei buruzko Foru Arau orokorreko 90.4b) artikulua, Araba eta Gipuzkoakoa hurrenez hurren, eta martxoaren 10eko 2/2005 Zergei buruzko Arau Orokorreko 92.4b) artikulua.)

Aurreko arauetatik erraz ondorioztatu daitekeenez, eta EUSTATi dagokionez, soilik helburu estatistikoetarako erakunde honetatik jaso diren datuak sekretu estatistikoaren araubideari lotuta daude, apirilaren 23ko 4/1986 EAeko Estatistika Legeak 19-23.artikuluetan arautzen duena. Honek esan nahi du datuak helburu estatistikorako ez diren beste batzuetarako jasotzea debekatua dagoela, eta estatistika jardueran, dena delakoa bere fasea -hau da, trataera informatikoa, ustiaketa, ondorioen azterketa eta hedatzea-, lanean dauden langileak behartuta egongo direla datu hauen inguruan sekretua gordetzera.

Ustezko hauetatik kanpo, EUSTATen informazio eta kolaborazio betebeharrak Tributuen Lege Orokorraren 92. eta hurrengo artikuluetan ezarritako araubidearen pean egongo dira.

Bestelakoa da kontsulta egin duen erakundea otsailaren 25eko 2/2004 Legearen Bigarren Xedapen gehigarrian pentsatzen egotea.

“Euskal Autonomia Erkidegoko Foru Administrazioek eta Orokorrek Euskal Estatistika Erakundeari eskatu ahal izango diote kopia bat Datuak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren bigarren Xedapen Gehigarrian eta Toki-araubidearen Oinarrien 7/1985 Legearen 17.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, hau da, interesdunaren baimenik behar izan gabe. Agiri hori populazioaren fitxategiak edo erregistroak sortzeko eskumena duten lurraldeetako udal-erroldei dagokie, eta bere baitan jasotzen dituzte erroldatuen izen-abizenak, sexua eta jaioteguna. Biztanleriaren fitxategi edo erregistro horien helburua da herri administrazioek komunikazioa izan dezatela lurralde horietako interesdun egoiliarrekin, herri erakundeei dagozkien eskumenetatik sortzen diren erlazio juridiko-administratiboak gauzatzearren.

Xedapen honetan ezartzen denaren arabera, kontsulta egin duen erakundeak eguneratutako kopia eska dezake.

Hala ere, komenigarria da Bulego honek 18/2006 Kontsultan esandakoa aipatzea:

“Azkenik, aipatu beharreko gai bat, oinarria daukana Osasun Finantziario Eta Kontratazio Zuzendaritzak ustezko zehatz baten inguruan egindako informazio eskaeran, Bulego honek uste du izaera orokorrekoa bezala agertu behar dela, bai Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren doktrinan, bai eta Jabetasun Publikoko Fitxategien eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko legean batera doan memorian.

Prebentziozko jardueretan parte hartu ahal izateko jakinaraziko diren datuen erabilerari erreferentzia egin diogu ustezko honetan.

Ustezko honetarako (eta beste hainbatetara luzatu daitekeena) txosten honetako beste ataletan izan dugun egoera guztiz ezberdina aurkitzen dugu. Ustezko hau aurretik aipaturiko Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren Irizpenaren bigarren zatian agertzen da.

Hain zuzen ere, jarduera hauek aurrera eramanez ahal izateko ez da beharrezkoa EAEn bizi diren pertsona guztien datuak jakinaraztea, baizik eta programan, jardueran, etab... jarraitzeko soilik eskatutako irizpideak betetzen dituztenak.

Beraz, irizpen honek izendatzen dituen “partikularizatutako administrazio -zereginak” dira, eta hauek aurrera eramateko nahikoa da “datuen zatitako eskaera” egitea, eta ez du “erregistro orokor zehatz bat sortzera” behartzen. Honek, bestalde, Legearen Bigarren Xedapen gehigarriaren babesa du.

Laguntzeko ahaleginean, eta goian ezarritako moduan populazioaren erregistroaren kopia bat lortu daitekeela ikusita, Bulego honek uste du bigarren bide hau erabiltzea, zatitako eskaerak garatu nahi den funtzioa aurrera eramateko, funtsezko eskubidea hobe bermatzen duela, eta lege proiektuaren idazlariaren eta legegilearen asmoei gehiago hurbiltzen dela, idazlariari lagundu zion memoria argitzaileari eta parlamentuko eztabaidaren garapenari arreta jartzen badiogu.

Legearen Bigarren Xedapen Gehigarria iradoki zuten ideiak, gure ustez, eta legebiltzarrean Xedapen honen kontra agertu ziren zalantzak eta argudioak zeintzuk izan ziren jakinda, Legea onartu zirenean jaso ziren.

Hori guztia, eta fitxategi zehatz bat egitea beharrezko ez dela esan ondoren, ez eta jadanik existitzen den batean datuak sartzea ere, datuok ez lirateke bilduko, baizik eta soilik jakinarazpenetarako erabiliko, erabilitako datuen bolumena askoz txikiago izango lukeena eta programa edo jardueraren behar zehatzei egokituago egongo litzatekeena. Hau, gure ustez, funtsezko eskubideari min gutxiena egiten diona da eta Bulego honen lehentasunezko oinarria da (azpimarratutakoa ez dago jatorrizko testuan).

Aurreko doktrina hau transkribatu dugu uste dugulako orain azaltzen den balizko egoerari aplikagarria zaiola.

III

Foru Aldundiei dagokienez, Aldundiok kontsulta idazkian egiten duten planteamendua zordunen helbide fiskalaren datua lagatzeko aukerari buruzkoa da, premiamendu probidentziaren banakako jakinarazpen zuzena eman ahal izateko (idazkiaren 1. orrialdea). Zentzu honetan, kontsultaren 2.orrialdean (Kontsulta gaia) Bulegoari ondorengoari buruz iritzia eman dezan eskatzen zaio "... *Hiru Foru Ogasunei zuzendutako eskaerak..., idazkiari atxikita daudenak, erakunde hauek erantzun beharko dituzte, izaera pertsonaleko datuak babesteko araudia urratu dela argudiatzeko aukerarik izan gabe*".

Atxikitzen diren kopietan, Foru Aldundietako Ogasunaren Zuzendariei zuzenduta, beren kolaborazioa eskatzen zaie, "Administrazio honi zordun exekutiboan inguruko datuak lagatzeko hurrengo xehetasunarekin: lan egiten duen enpresaren izena, enpresaren helbidea, jarduera garatzen duen helbidea, enpresaren alta eta baja datak".

Arazoaren planteamendu honek ez du bat egiten, Bulego honen aburuz, kontsultarekin batera datorren txosten juridikoarekin. Txosten honi buruz hitz egiten du: "*Foru Aldundiek Autonomia Erkidegoko Administrazioari zordunen zergen itzultzea bahitzeko betebeharrak*", eta ondorioztatzen du "*Foru Aldundiak XXX Zuzendaria agindutako bahiketa eginbideei men egitera behartuta daude, bai eta zergen itzultzeen bahiketa ekitera, premiamenduzko zordunen alde. Hau burutuko da XXX Zuzendaritza honek Foru Ogasunei fitxategiak bidaliz, komunikaziorako bide ziurrak erabiliz*".

Foru Ogasunek eginbideari men egiteko beharraz, Bulego honi ez dagokio ezer esatea, bestela legeak emandako eskumenak gainditzea izango litzateke.

Fitxategiak "*bidaltzeari*" dagokionez, esan beharra dago, datuen lagatze hau bat etorri beharko dela datuen babeserako araudiarekin, goian aipaturiko "*derrigorrezkotasun*" ondorioa zuzena den neurrian. Derrigorrezkotasun hau babesten duen araudi berdina izango litzatekeelako nahi den lagatzea babesten duena, DBLOren 11.2b) artikuluan aurreikusten den adostasuna aplikagarria izanik.

Foru Aldundiek XXX Zuzendaritzari lagatze hipotetiko batean datuak babesteko araudiaren egokitasuna dela-eta, txostenaren lehenengo oinarrietan lorturiko ondorio generikoaren berezitasuna eratorri daiteke kontsulta egiten den arloan ezartzeko, Foru Ogasunarentzako, helbide fiskala, zerga garrantzia daukan datua delako, eta horrela izango da, orokorrean datua hau Aldundien Ogasun Sailen fitxategietan agertzen denean.

Esan nahi dena da, ustezko hauetan, datu mota honetarako, TLOaren 95. artikuluan ezartzen dena aplikatuko dela (eta Tributuen Foru Arau Orokorreari dagokienez baita ere), aurretik aipaturiko oinarri orokorrean agertutako ustezkoen partikularitasuna alderantziz jartzen duelako.

Hau da, Zerga Administrazioen aldetik ´zerga aldetik garrantzia daukaten datuak lortzeko aukera dela eta, aukera hau zabalago jaso dago, eta Administrazioetatik zerga aldetik garrantzia daukaten datuak transmititzeko aukera, modu askoz murriztago batean baimentzen da.

Urriaren 21eko 3324/2003 Foru Aginduan agertzen den Zioen agerpena argigarria da zentzu honetan, Herri Administrazioei, beren jarduerak garatzeko, zerga informazioa ematea arautzen duena (BAO 208. zb, urriaren 30ekoa). Horren arabera:

Zergei buruzko arau orokorrak 114.1 artikuluan ezartzen du Zerga Administrazioak jasotako informazioaren ezkutuko izaera. Beraz, hirugarren bati informazioa hau lagatzeko lege arauan aurreikusten diren ustezkoak mugatzen ditu. Araudiaren aurreikuspen honek informazio emate honek interesdunaren aldetik baimenik ez izatea dakar, Arauan berariaz adierazi delako nortzuk izango diren informazioa jasoko dutenak eta lagatuko datu hauen helburu zehatzak zeintzuk izango diren. (Guk azpimarratu dugu).

Hori da ondoriozta daitekeena aurretik aipaturiko 95.artikulutik, bere arau orokorra datuok lagatzea dena eta salbuespenak bereziki jasotzen diren lehenengo atalean

Salbuespen horien artean hurrengoak azpimarra daitezke:

Zerga Administrazioekin elkarlana, bere eskumenen arloan zerga betebeharrak betetzeko.

Eta honetarako interesgarriena izan daitekeena:

Zuzenbide publikoko erakunde edo organoekin elkarlana baliabide publiko ez zergadunak biltzeko, ordaintzera behartuta dauden identifikazio zuzenarekin.

Beraz, Foru Aldundiek XXX Zuzendaritzari datu hauen lagatze hipotetiko egiteko bat DBLOren 11.2ª) artikuluan agertzen den salbuespenean izango luke babesa, TLOaren 95.1 artikulua esaten duenarekin lotua. Hau dela eta, Bulego honen aburuz, lagatze hau "elkarlaneko" eremu bat izango litzateke, eta ez "betebeharrena".

IV

“*Soldaten ordaintzaile*” kontsultaren inguruan, eta tartean izaera pertsonaleko datuak dituen fitxategia eta bere tratamenduak erabiltzen dituen erakunde bat dagoenez, hau guztia Bulego honen eskumenen kanpo dago. Hala ere, bulego honek aukera hartuko du irizpen honetan eman daitekeen erantzunaren inguruan ñabardura bat egiteko.

Horrela, eta nahiz eta “kontsulta gaian” eskaerak “.... aintzat **hartu behar diren...**” inguruko iritzia eskatzen zen, eta orain arte esandakoan ikus daitekeenez, ondorio bat ere ez da behar honen inguruan ezartzen. Eta aurretik esan den bezala, Bulego honek uste du bere eskumenetik kanpo dagoela eta ezin du honen inguruan iritzirik eman.

Uste dugu, adierazi nahi dugunaren adibide bat jurisprudentzia ugariari dagokion ustezkoetan dagoela (bereziki banku erakundeei dagokienez). Eztabaida gaia betebehar hau betetzea edo ez delako eta baldintzak zeintzuk izan behar diren zehazten duelako.

Hau argitu ondoren, eta Bulego honi dagokionez, erreferentzia egiten diogun jurisprudentziak arazoak konpontzen ditu zerga edo ogasun ikuspuntu zehatzetik, eta datu pertsonalen babesa ez da arazo hauetan osagai erabakitzailea.

Finean, esan da, GSDOari dagokionez, Bulego honek ezin duela ezer erabaki elkarlanean aritzeko “betebehar” horren inguruan. Eta are gehiago, irizpen honetan agertzen den iritzia, datuak babesteko ikuspuntu zehatzetik, zuzenbidean oinarritutako -eta beraz, erakunde honen fitxategi eta trataren gainean eskumena daukan nagusitasun adieraz dezakeena-, beste iritzi baten pean dagoela. Datuak Babesteko Espainiako Bulegoak ez duela nahitaez bat egin behar irizpenean agertzen den erabakiarekin.

Aurretik esandako guztia dela eta, Bulegoak bat egiten du kontsultarekin datorren txostenean agertutako ondorioarekin eta erakundearen Lege Aholkularitzak egin duenarekin, nahiz eta ezarritako araudiaren inguruan desadostasunen bat egon daitekeen.

Hain zuzen ere, "gizarte segurantzza" ikuspuntutik Gizarte Segurantzaren Legeko Testu Bateginaren 66.artikuluari agertutako, DBLOren 11.2^a) artikulua aipatzen duen lege babesa aurki daiteke. Bulego honek ez du arrazoirik aurkitzen "zerga betebeharrak" terminoaren interpretazioa zuzena ez dela pentsatzeko, erakunde eskatzaileak egin baititu arazo hauen inguruko ezagutza sakonagoak.

"Zerga" edo "Ogasun" ikuspuntutik, bestalde eta arretaz esana, Bulego honen ustez ez litzateke guztiz aplikagarria izango TLOaren 93.1 artikulua ez eta 94.1 artikuluan esaten dena. 93.1 artikuluan hurrengoak aipatzen da: GSDOak eman beharreko informazioari dagokionez, ustezko zehatz honetan eta gure aburuz, ez lirateke "bere jarduera ekonomiko, profesional eta finantziarioak" "zergadun betebeharrarekin" izango, baizik eta zordunarekin kasu honetan, gizarte segurantzako prestazio baten titularra izan ezean). 94.1 artikulua hau esaten du: *"...bestelako erakunde publikoak, Gizarte Segurantzako kudeatzaileak barne, ...Zerga Administrazioari dituzten datu, txosten edo zerga garrantzia daukaten aurrekariak ematera behartuta daude, administrazio honek izaera orokorreko xedapen edo prozedura berezien bidez jasotakoak. Bai eta Administrazio honi eta bere agenteei, laguntza sorospena eta babesa eman beren jarduerak garatzeko. Era berean, zergen kudeaketan edo ordainarazpenetan parte hartuko dute, oharpen, ondorio eta atxikipenen bidez, dokumentalak edo diruzkoak, indarrean dauden lege edo xedapenetan aurreikusten denaren arabera.*

Edonola ere, aurreko oharpen honek ez du aldatzen atxikitako txostenean agertutako ondorioa, dela 93.1 artikuluatik (zorduna gizarte segurantzaren prestazioen titularra denean) dela 94.1 artikuluatik, zergen ikuspuntutik. Baina lege babesa ere egongo litzateke DBLOren 11.2^a) artikuluan.

Are gehiago, ez agian lege babes zehatz bezala, oraintxe aipaturikoa, baina bai ustezko hauetan erakundearen arteko kolaborazioaren garrantziaren eredu bezala, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen, EAEko kontzertu ekonomikoa onartzen duena urriaren 25eko 28/2007 Legeak emandako erredakzioan, 4. artikulua, Administrazio ezberdin arteko harremanen funtsezko oinarri bezala hartzen du,

4. artikulua Kolaborazio oinarria.

Bat. Lurralde Historikoetako erakunde eskudunek Estatuko Administrazioari jakinaraziko diote, indarrean sartu aurretik, zergen inguruko arau xedapenen proiektuak.

Era berean, Estatuko Administrazioak erakundeei jakinarazpen bera emango die.

Bi. Estatuak, Kontzertu Ekonomikoan eragina izango duten Euskadiko Erakundeek Nazioarteko Akordioetan elkarlanean aritzeko mekanismoak erabakiko ditu.

Hiru. Estatuak eta Lurralde Historikoak, beren zergen kudeaketan, ikuskatzean eta zerga bilketan dituzten eskumenen funtzioak aurrera eramateko, elkarri, garaiz eta modu egokian, beharrezkoak diren datuak eta aurrekariak emango dizkiete.

Zehazki bi Administrazioek.

Datuen tratamendurako zentroen bidez, behar duten informazio guztia elkarri emango diote. Helburu horretarako, beharrezkoa den elkarren arteko komunikazio teknika ezarriko da.

Urtero informatika fiskaleko elkarrekin eta koordinatutako plan bat egingo da.

Ikuskatze zerbitzuek elkarrekin prestatutako planak egingo dituzte, helburu, sektore eta hautaketa prozesu koordinatuei buruzkoak, bai eta helbidea, gardentasun fiskaleko erakundea eta zergabideari lotutako sozietateak aldatu badituzte.

Lau. Estatuak eta Euskadi Erakundeek Estatuaren nazioarteko Itun eta Hitzarmenak behar bezala betetzeko informazio trukatze prozedurak erabakiko dituzte, eta zehazki, Europar Batasunetik datozen administrazio elkarlana eta elkarrekiko laguntza araudiak.

V

Azkenik, xehetasun bat egin daitezkeen eskaeren garrantziaren ingurukoa.

Kontsultan eta atxikitako ereduetan agertzen den azalpena dela eta, Bulego honek ondorioztatzen du egingo diren eskaerak uztailaren 27ko 1065/2007 Errege Dekretuaren eremuaren barne egongo direla. Aipaturiko Dekretu honek *"informazioa lortzeko eskaera indibidualizatuak"* edo jurisprudentziaren aldetik *"atzipenaren bidez"* bezala definitutakoa, informazioa *"horniketa bidez"* jasotzetik desberdindua.

Azken adiera honekin *"hirugarrenek datuak jasotzeko prozedura Zerga Administrazioaren aldetik arauak Administrazioari eskatu gabe datu zehatz batzuk emateko behar"* honi egiten dio erreferentzia. Lehenengoak, aldiz, *"jarduera indibidualizatu bat pertsona jakin bat behartzen duena datu zehatz batzuk emateko, hauek eskatu ezean, ez liratekeelako emango"* esaten du. Partikularitatea edo indibidualizatzea bestalde, *"ez da derrigorrez subjektu pasibo bati erreferentzia egin behar, baizik eta subjektuen aniztasunari buruz hitz egitea izan daitekeela"*

Hori horrela izango balitz, TEACek 1987ko Ebazpenak jurisprudentzia bera emango luke. Horren arabera:

"TLOaren 111. artikulua babesean emandako informazio-eskaera berezko entitatea duen administrazio-egintza da, ez da adjektiboa, eta hirugarrenei informazioa emateko betebeharraren deklarazio-egintza bihurtzen da. Betebeharraren deklarazio-egintza hori funtsezkoa eta beregaina da, izaera formaleko Administrazio-egintza. Are gehiago, ez da tramite hutsa, eta, beraz, ekonomia- eta administrazio-bidetik eskatu ahal izateko ezaugarriak ditu; informazioa eskatzeko administrazio-egintzaren onespenez juridikoa dauka. Horrek berekin dakar zergatik ematen den justifikatu behar izatea, hartara, hala balegokio Zuzenbidearekin bat ote datorren aztertu daiteke."

Arestian aipatutakoarekin adierazi nahi da eskaera administrazio-egintza denez, eta horren ondorioz, oinarritzko eskubideari eragiten dionez (hala ematen du behintzat), arrazoitu egin beharko dela, eta arrazoitze horrek jaso beharko du, Bulego honen ustez, zergatik erabili den, besterik ezean, bide hori, edo, beste era batera esanda, eskuartean ziren datuekin ezin izan dela egin aurreikusita zegoen egintza eta ezinbestekoa izan dela datuak eskatzea nahiz eta jabeak baimenik eman ez; eta arrazoitu beharko da egintzak proportzioa gordetzen duela, kontuan hartu behar baita oinarritzko eskubidea dela.

Honekin guztiarekin, kontsultan aipatzen den Sail kudeatzaileek ematen dituzten helbideen *"fidagarritasun urriari"* erreferentzia egin nahi diogu, *"...egoera askotan zorduna aurkitzerik ez izatea eragiten duena eta probidentzien ediktu jakinarazpenetara jo behar izatera behartzen duena"*.

Funtsezko eskubideak babesteko doktrina ezartzean, edo, bestela esanda, eskubideei gutxien eragiten diona ezartzean, ez litzateke izaera pertsonaleko datuen babesaren ikuspuntua nahikoa sustatua izango, eta, beraz, gehiegizkoa izango litzateke, gure ustez, zorra daukan beste erakunde batzuei informazioa eskatzea, eta bereizi gabeko eran zordunen helbideak eskatzea, -helbide hau zorra sortu den prozeduran agertzen denean, eta hala gertatuko da hainbatetan-, helbidea ez delako fidagarria edo ediktu jakinarazpenik nahi ez delako (horren aurreikuspena eta ondorioak beraraz arautzen ditu 212/1998 Dekretuaren 53. artikulua aipatzen duen Legeak).

Ikus daiteke, modu batean, sail kudeatzaileak antzeko argudioa izan dezakeela, zerga araudiak eskaintzen dituen eskumenen babesak izango ez balu ere, egia da, baita ere, erakunde zerga-biltzaileak eskumenak erabili behar dituztenean zor ez zergazkoak jasotzeko, eskumen hauen

konstituzioa oinarrian ñabardurak egin beharko lirateke, oinarri hau, gure ustez, bere osotasunean ezin delako eutsi. Konstituzio Auzitegiak honakoa esan du:

Aipatutako auzia dela-eta, lehenik gogorarazi behar da Espainiako Konstituzioaren 18.1 artikulua honakoa jasotzen duela: *“Ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako, eta bakoitzaren irudirako eskubidea bermatzen da”*. Hau da, oinarrizko eskubide bat da, hertsiki lotuta dagoena Konstituzio berak, 10.1 artikuluan, aitortzen duen duintasunetik sortzen den pertsonalitateari. Helburu du hirugarren batzuen ekintza edo ezagutzen aurrean, bai agintaritza publikoa izan eta bai partikularrak izan, pertsonen eremu pribatua bermatzea. Baina bestelako funtsezko eskubideek bezala, gainerako oinarrizko eskubideek eta konstituzio-babesa duten ondasun juridikoek ere mugatu egiten dute. Horien artean dira, besteak beste, gastu publikoei eusten laguntzea (EK 31.1 art.). Hala, bada, norberaren eta familiaren intimitaterako oinarrizko eskubideak (EK 18.1 art.) talka egiten du gastu publikoei laguntzeko konstituzio-betebeharrarekin (EK 31.1), eta horrek berekin dakar Zerga-administrazioaren edo bestelako herri aginteen aurrean badela ustezko eskubide absolutua zerga-garrantzia duten zergadunaren ekonomia-datuak gordetzeko, eta, hartara, Konstituzioak, 31.1 artikuluan, jasotzen duen zerga-betebeharra deuseza bihurtzen da, izan ere gastu publikoei eusteko banaketa ekitatiboa galaraziko luke, konstituzioaren bidez babestutako ondasuna baita (azaroaren 26ko FJ3 110/1984 KAE; apirilaren 26ko FJ10 76/1990; eta otsailaren 28ko FJ 5 57/1994). eta Konstituzioaren ikuspegitik legezko helburua da [maiatzaren 9ko FJ 6.b 143/1994 KAE]. Horren ondorioz, Administrazio Publikoek jaso eta artxibatzen duten informazioa beharrezkoa da Legeak ematen dizkien eskumenak bete ahal izateko, eta egokia behar du izan Legean aurreikusitako helburuekin [uztailaren 20ko FJ 7 254/1993 KAE], baina zalantzazkoa da – modu abstraktuan, behinik behin - zerga-informazioak emateak urratu ahal izatea zergadunen intimitaterako eskubidea, eta are gehiago hirugarrenen esparruan garatu behar badira, izan ere publizitate eta informazio berariazko formulek mugatzen dute [maiatzaren 9ko FJ 6.b 143/1994 KAE]. Zerga-garrantzia duten datuak komunikatzeko betebeharra bihurtzen da, beraz, ezinbesteko tresna bai gastu orokorreki laguntzeko (EKaren 31.1 art.), eta baiz erga-kudeaketa egoki aizan dadin ere; betiere, neurtu egin beharko da Espainiako Konstituzioaren 18.1 artikulua jasotzen duen norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea [abenduaren 30eko F J) 292/2000 KAE].

Konstituzio doktrina hau beste batekin batera jarri behar da (233/2005 KAE). Ondorengoa ezartzen du:

Zentzu honetan, adierazi dugu, konstituzionalki babestua dagoen intimitatearen eremua ahalik eta gutxien urratzeko, KEko 18.1 artikuluekin bat etortzeko, lau betebeharrak beharrezkoak direla: lehenik, konstituzioaren aldetik legitimoa den helburu bat egotea; bigarrena, eskubidearen esku-hartzea Legeak aurreikustea; hirugarrena (arau orokor bezala soilik), konstituzioak babesten duen pribatutasunaren eremuko esku-hartzea motibatutako ebazpen judizial baten bidez adostea. Eta, azkenik, **proportzionaltasunaren** oinarria kontuan izatea, hau da, hartutako neurria egokia izatea bilatzen duen helburu legitimoa lortzeko, beharrezkoa edo nahitaezkoa izatea (**ez egotea bestelako neurri zuzenagorik edo ez hain erasokorrak eraginkortasun berarekin helburua lortzen lagunduko dutenak**). Eta azkenik, zentzu zehatzean proportzioduna izatea (neurtua edo orekatua, haietatik onura eta abantaila gehiago ateratzen direlako, tartean dauden interes orokorreko ondasun edo baloreen kaltean baino) (abenduaren 16ko 297/1996 KAE, 4.A eta 70/2003 10a A.). Beraz, betebeharrak guztiek batera jotzen dute ustezko honetan

Proportzionaltasunaren oinarri honek, gure ustez, kontsulta egin duen erakundeari behartzen dio Administrazioan dituen eskumenak aurrera eramanez ahal izateko behar dituen izaera pertsonaleko datuak lortzeko bide guztiak agortzera, batez ere betearazpen bidean dagoen esku-hartzearen espedientetik jaso baditzake.

Aurreko hausnarketa nabariago da urriaren 8ko Konstituzio Epaitegiaren Epaiaren ondoren. Epaiaren esanetan Administrazioak ahalguztiak egin behar dituela beste bide batzuetatik interesdunaren benetako helbidea lortzeko.

ONDORIOAK

Lehenengoa. Zuzenbide publikoko aldi exekutiboko zergak biltzeko eskumena duen erakundeak Zerga Administrazioak izaera pertsonaleko datuak lortzeko daukan eskumen bera du.

Bigarrena. EUSTATen bidez lortutako datuak soilik helburu estatistikoetarako erabiliko dira, apirilaren 23ko 4/1986 legearen Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikarena, eta 19. artikulutik 23ra arautzen diren estatistika sekretuko araudira lotuta daude. Honek esan nahi du estatistikoak ez diren beste helburuetarako datuak erabiltzea debekatua dagoela, eta edozein fasetan dagoen jarduera estatistikoaren baitan dauden langileek datu hauen inguruko sekretua gordetzera behartuta daude.

Hirugarrena. Foru Ogasunetik XXX Eusko Jaurlaritzako Zuzendaritzara izaera pertsonaleko datuak lagatzea ez da izaera pertsonaleko datuak babesteko araudiaren kontrakoa, irizpen honetan jasotzen diren terminoetan.

Laugarrena. Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak Eusko Jaurlaritzako XXX Zuzendaritzari izaera pertsonaleko datuak lagatzea ez da izaera pertsonaleko datuak babesteko araudiaren kontrakoa, irizpen honetan jasotzen diren terminoen arabera.

12. LANGILE FUNTZIONARIENTZAKO GORDETAKO LANPOSTUAK ESKURATZEKO LEHIAKETEN DEIALDIETAKO HAUTAGAIEI BURUZ JAKINARAZI DAITEZKEEN DATU IDENTIFIKAGARRIEN INGURUKO INFORMAZIO ESKAERA

EUSKO JAURLARITZAKO XXX SAILEKO XXX ZUZENDARI JAUNAK EGINDAKO KONTSULTA, KARRERAKO FUNTZIONARIOENTZAKO GORDETAKO LANPOSTUAK LORTZEKO LEHIAKETA DEIALDEN INGURUKOA

CN07-036

AURREKARIAK

2007ko azaroaren 2an, goian aipatutako gaiari buruzko kontsulta egiteko Eusko Jaurlaritzako xxx Saileko zuzendariaren idazkia sartu zen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan.

Bidalitako kontsulta idazkian ondorengoa adierazten da:

“Hurrengo egunetan langile funtzionarioei gordetako lanpostuak betetzeko hainbat lehiaketarako deialdia egingo da. Aipaturiko lehiaketak bi motakoak izango dira. Lehenengoa, lehiaketa orokorra izango da, eta horietan esperientzia, antzinatasuna, maila, prestakuntza etab baloratuko dira. Bigarrena, lehiaketa bereziak, proba praktikoen eta jokabidearen elkarriketa estrukturalen bidez gaitasunak baloratuko dituenak.

Guztien balorazioen emaitzak Jaurlaritzaren Intraneten edo Interneten publikatzea aurreikusi da; hainbat zentrok ez dutelako Jaurlaritzaren sare korporatibora sartzeko aukerarik edota egun, EAEko Administrazio Orokorrean lanean ez dauden langileek parte hartu dezaketelako.

Hori dela eta, Bulego honi eskatzen diogu prozesuaren fase bakoitzaren emaitzen ondoan ager daitezkeen hautagaien identifikazio mailari buruz berri ematea. Kontuan hartuta norgehiagoka batean garrantzitsua dela hautagaien identifikazioa agertzea, hauek daukaten erreklamazio edo errekurso eskubidea aurrera eramateko.”

Otsailaren 25eko 2/2004 Legeak, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoak, 17. artikuluan, Bulegoari honako funtzioak ezartzen dizkio

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen

babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea.

Datuak Babesteko Euskal Bulego honi dagokio, arestian aipaturiko araudiaren arabera, jasotako kontsultari erantzuteko txostena egitea.

GOGOETAK

I

Aurkezten den arazo nagusiaren izaera generikoa dela eta (fase bakoitzaren emaitzen ondoan ager daitekeen hautagaien identifikazio maila zein izan daitekeen), eta kontsulta igorri zen data kontuan hartuta, esan dezakegu arazo nagusiari erantzun zaiola (eta zuzen, gure ustez), Ogasun eta Herri Administrazioaren Sailburuaren 2007ko urriaren 26ko Aginduaren bederatzigarren arauari begiratzen badiogu. Agindu honetan, lehiaketa orokorren oinarri nagusietan onartzen dira,

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta erakunde autonomoetako karrerako funtzionarioei gordetako lanpostuak eskuratzekoan.

Edozelan ere, egindako kontsultari erantzun zentzudun bat ematen saiatzeko, 15/1999 Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko Lege Organikoaren, azaroaren 13koa, 4. artikulura jo behar dugu, "datuen kalitatearen" oinarria biltzen duena.

Jarraitu aurretik, izaera pertsonaleko datuak babesteko araudiak ematen duen ikuspuntutik komenigarria litzateke, kontsulta egin duenari kezkatzen dion arazoa, hau da, prozesuaren fase bakoitzean egin beharreko publikazioak, aztertzea.

Prozesuaren zehar nahitaez egin beharreko publikazioek Europar Parlamentuko eta Batzordeko KE 95/46 Zuzentarauaren 3. artikulua 1 paragrafoan, pertsona fisikoen datuen trataera babesteko eta datuen zirkulazio librearen buruzkoa eta 2/2004 LEGEak, otsailaren 25ekoa, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoaren arabera, datuen trataera osatuko dute.

Are zehatzago, eta aurretik aipaturiko araudiekin bat, datuen lagatze edo jakinarazpena izango da, interesduna ez den bestelako pertsona batek agertzen dituen unetik.

DBLOren 11.1 artikulua arabera, *"Dagokigun gaia dela eta, orokorrean, aipatu behar da 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearena. Bere 56.6b) artikulua arabera publikazioak notifikazioa ordezkatzeko du "Edozein motatako hautaketa prozesu bateko edo norgehiagoka bateko ekintzak direnean."*

Dagokigun balizko egoerarako, bestalde aipatu beharrekoa da azaroaren 26ko 30/1992 Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 59.6 b) artikulua. Horren arabera, argitalpenak jakinarazpena ordezkatzeko du *"Edozein motatako hautaketa-prozesu edo norgehiagoka-prozedurarako egintzak direnean."*

Izaera pertsonaleko datuen babesaren ikuspuntutik atera daitekeen lehenengo ondorioa (agerikoa izan daitekeen arren komenigarria da azpimarratzea), egin nahi den datuen "trataera", datu hauek publikazioen bidez "jakinaraztean edo lagatzean" oinarritutik, Legean babes nahiko aurkitzen du.

Ondorio berera iritsi daiteke funtzio publikoaren arautegitik aztertzen badugu.

Horretarako, Konstituzio Auzitegiaren doktrina gogoan izan behar da (221/2004 KAE, azaroaren 29koa). Doktrina honen arabera:

" Auzitegi honen jurisprudentziaren arabera, funtzio publikoan behin sartuta, babesa behar duten bestelako ondasun batzuk (Bizkartzainen Atalak betetzen dituen lanetan laguntzen dutela onar daitekeela), legeztatu dezakete modulazio bat, merezimenduaren eta gaitasun oinarrien balorazioaren hurrengo hautaketa prozesuetan. Adibidez, lanpostuak betetzeko izendapen askerako sistema erabiltzen denean (KAE 235/2000, urriaren 5ekoa, 12-13 oinarriak). Onartezina dena, aldiz, partehartzaileen arteko aukeren berdintasunaren urraketa da, "KEko 23.2 artikulua onartzen duen eskubiderik zehatzena" (KAE 107/2003, ekainaren 2koa) aipatzen duenean. Hau da, partehartzaileen gehienak, publikitate gabeziagatik, Bizkartzainen Atalean eta Informazioaren eremuan lana lortzeko, kanporatua prozedurara aurkezteko aukerarik.

" Aipaturiko jurisprudentziak kontuan hartu baitu, hain zuzen ere, izendapen askeko kasuetan, deialdien publikitatea aukeren berdintasunaren bermea dela (KAE 235/2000, urriaren 5ekoa, 12. oinarria). Eta azpimarratu du, berdintasunaren oinarriaren edukia "dagozkien deialdien publikitatearen bermearekin nahikoa babestua dagoela". Beste era batekoa da behin behineko funtzionarioen izendapena (Funtzio Publikoa zaharberritzeko Neurriak buruzko 30/1984 Legearen, abuztuaren 2koa, 20.2. artikulua), egiten dion erreferentzia (KAE 235/2000, urriaren 5ekoa, 3. oinarria) edo orain garrantzirik ez duten bestelako araubide bereziak.

Doktrina hau, zalantzarik gabe, esku artean dugun arazoarentzat ere egokia da.

II

Aurreko ondorioa lortu ondoren, ziurtzat jo daiteke, deialdia egin duen Zuzendaritzari dagozkion lege betebeharren ondorioz jakinarazitako datuen trataera, egokitu beharko dela izaera pertsonaleko datuen babesaren funtsezko eskubideak zuzentzen dituzten oinarri eta arauak. Une honetan, beraz, kontuan hartu beharko da aurretik aipaturiko oinarria.

Bulego honetan, lehenengo xedapenekin eta bestelako kontrol organoen eskarmentua hartuta, esan zen aipaturiko aginduak biltzen duen oinarriaren interpretazio egokia egiteko, zuzenean eramaten duela, nahi den helburua lortzeko, aurrera eraman beharreko trataeran proportzionaltasun eta zentzuzko irizpideak erabiltzera.

Aurkezten den kasuan, Bulego honen ustez, trataerak ezin du beste helbururik izan; hau da, honako prozesuetan bezala agintzen duen publizitatearen oinarria betetzea, goiko Konstituzioa Auzitegiaren epaian argi azaltzen den bezala. Eta epai honek laguntzen du, finean, kargu publikoetan eta funtzioetan berdintasun baldintzetan sartzeko eta mantentzeko funtsezko oinarria betetzera, publizitate honek parte hartzaileek prozesuaren kontrolatzen laguntzen duelako.

Irizpide orokor modura, beraz, ezarri daiteke publikazio helburua duten izaera pertsonaleko datuak, aipaturiko argitaratzearen helburua lortzeko baino beharrezkoak ez direnak agertuko dira.

Datuak Babesteko Euskal Bulego honek irizpide orokor hau ezartzea baino ezin du egin, bulego honi ez baitagokio tratatu beharreko datuak edo eremuak kasu zehatz bakoitzean zehaztea. Bai eta egingo duen modua ere, Administrazio bakoitzaren lana den arren prozesu bakoitzaren izaera eta ezaugarriak zehaztea. Era berean, Administrazio bakoitzari egokituko zaio prozesua zuzentzeko oinarriak ezartzea, bai eta orain dagokigunari ere, izaera pertsonaleko datuen trataera egokia izateko arauak ezartzea.

Bereziki esan den guztiagatik, txostenaren hasieran aipatzen zen, erantzuna, benetan, sailburuaren arauan aipatzen zela. Eta bulego hau bat dator eranskinean agertzen diren 9.4 eta 5. oinarriekin. Hurrengo adierazten dute:

“Onartutako eta ez onartutako izangaien behin-behineko eta behin-betiko zerrendak argitara ematea, gutxieneko datu pertsonalak agertuko dira eta lanpostuak betetzeko aukeraketa prozesua bukatzen den arte iraungo dute, eta denbora gehigarria errekursoak eta erreklamazioak egiteko.

“Ogasun eta herri-administrazioen sailburuaren Aginduaren argitaratzeak Euskal Herriko Aldizkari Nagusietan deitutako lanpostuen behin-betiko adjudikazioa onartuko du eta argitaratze oinarria betetzeko beharrezkoak diren gutxieneko datu pertsonalak agertuko dira.

Administrazioari dagokio, bestalde, fase bakoitzerako “gutxieneko” diren datuak zehaztea.

III

Bulego honek uste du badagoela gai bat, eta nahiz eta bere iritzia zehazki eskatzen ez den, interesgarria dena aipatzea, Internet bidez argitaratzen diren izaera pertsonaleko datuen berezitasunak, bide honetatik argitaratzea posible den premisatik abiatuta (“Kasu honetan, prozeduraren deialdiak, argitarapena egingo den iragarki taula edo komunikabidea zein den adierazi beharko du...” 30/1992 Legea, 59.6b) artikulua). Eta kontua harturik, 11/2007 zerbitzu publikoetara herritarren sarbide elektronikoko Lege berriak, ekainaren 22koa, teknologia berriei ematen dien bultzada handia.

Bultzada hau ez da oztopo bat legegilearentzat berearentzat, aipaturiko legearen Arrazoiaren Argibidean onartzen delako “... *irtenbidea eman behar zaien beste eragin asko...*”, eraginez “*lehenik...ematen diren datu batzuen pribatutasuna baino... bere erabileraren arazoa azalerazten du...*”

Hori dela eta, Arrazoen Argibideak berak, ezartzen du "Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien ezartzeak duen erronka garrantzitsuena ... konfiantza nahikoa sortze abere erabilerari lotuta dauden arriskuak ezabatu edo gutxitzeko"

Hori dela eta, eta kontuan hartuta izaera pertsonaleko datuak babesteko funtsezko eskubidearen gainean dagoen arrisku nagusia, Interneteko bilatzaileek norbanakoen gaineko informazio zati handi bat gordetzeko daukaten gaitasuna, eta Datuak Babesteko Lantaldeak 2000ko azaroaren 21eko lan bilerako agiriaren 29. artikuluan emandako gomendioak jarraiki, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak Interneten zerrenden argitalpenerako protokolo bat egin du, irizpen honi erantzen zaiona.

Azkenik, orain arte ikusitako bi puntuak lotzeko aukera ematen duen arazoa aipatu beharra dago, datuen kalitatearen oinarriarekin eta Internet bidez egindako argitaratzeekin lotura zuzena daukana

DBLak 4.artikuluko 5. paragrafoan honakoa aipatzen du:

Izaera pertsonaleko datuak ezereztu egingo dira, jaso edo erregistratu ziren xederako beharrezko edo egoki ez direnean.

Ez dira gordeko, interesduna nor den jakitea ahalbidetzeko moduan, datu horiek jasoedo erregistratzeko xedeak zein izan eta xede horiek betetzeko behar den denbora baino gehiago.

Erregelamendu bidez zehaztuko da, Megeria bereziaren arabera balio historiko, estatistiko edo zientifikoak aintzat hartuta, salbuespenez datu horiek oso-osoan gordetzea erabakitzeke prozedura.

Aurreko oinarria Internet bidez egindako argitaratzeetan ezartzeak, lehenik eta behin, DBLOren 3j) artikulua terminoetan Internet ez dela publikoa erraz eskura dezakeen informazio iturri bat kontuan hartzera behartzen gaitu. Eta honek esan nahi du ezarri daitekeen araubide juridikoa, orain dagokigunari, aldizkari ofizialetan ezartzen denaren ezberdina dela.

Hala, bada, Interneteko argitaratzeei ezarritako kalitatearen oinarriak argitaratutako datuak Interneten denbora mugarik gabe mantentzea galarazten du. Datuak ezeztatu beharko dira fase bakoitzaren epeak bukatzean, inolako helbururik ezin duelako epea luzatu behin egin beharrekoari aurre egiteko epea bukatu denean.

Aurretik aipatu dena dela eta, azaldutako 9.4 oinarriaren bigarren paragrafoan azaltzen den oharpenarekin ados egon behar da. Ondorengoa esaten du:

“Aipaturiko zerrendek klausula bat izan beharko dute eta horietan izaera pertsonaleko datuak dituela adieraziko da, orain indarrean dagoen datuak babesteko araudiarekin bat datozenak, eta bere helburu bakarra Lehiaren fase bakoitzaren emaitza ematearena da. Parte hartzaileei, era berean, paragrafo informatibo bat gehituko dute eta bertan adieraziko dute zerrendak ez direla publikorako informazio iturriak eta ezingo direla berrerabili, ez osotasunean ez eta zatika ere, ez eman ez erregistratu informazioa berreskuratzeko edozein sistemaren aldetik, interesdunen adostasuna izan ezean.”

ONDORIOAK

Kontsultan aurreikusten diren trataerak bat datoz izaera pertsonaleko datuak babesteko araudiarekin irizpidean agertzen diren terminoetan.

ERANSKINA

INTERNETEN ZERRENDAK ARGITARATZEKO PROTOKOLO OROKORRA

Datuen trataerari dagokionez bete beharreko protokoloak, hurrengo alderdiak jaso beharko ditu:

1.- Fitxategiak bete beharreko alderdi formalak:

DBLOren 20. artikuluan jasotzen direnak, hau da, izaera orokorreko xedapen batek arautzea, dagokion Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Segurtasun dokumentua egitea, DBLOren 9. artikuluan ezartzen denaren arabera eta 994/1999 Errege Dekretuan zehaztuta (Segurtasun Neurrietako Araudia).

Datuak Babesteko erregistroan inskribatzea, DBLOren 39. eta DBEBaren 18. artikuluetan ezartzen denaren arabera.

2.- Informaziorako eskubideari dagokionez:

XXX izen-emate orrian, antzeko beste dokumentuetan bezala, DBLOren 5. artikuluan jasotzen den informaziorako eskubidea jaso beharko da jasotako datu pertsonalak XXX fitxategian sartu eta tratatuko direla, XXX helbururako:

datuok ez direla lagako

fitxategiaren erakunde arduraduna XXX dela

interesduna eskuratze, artezte, ezeztatze eta aurkakotasun eskubideez baliatzeko helbidea XXX dela.

Egindako frogen emaitzak XXXeko iragarki taulan agertzea eta bere Web orrialdean agertzea, XXX prozesuan zehar beharrezkoa den epean, bai eta egin beharreko helegiteak egiteko

Informazio klausularen eredua:

“Jasotako datu pertsonalak XXX fitxategian sartu eta tratatuko dira, eta fitxategi honen helburua XXX da. Gainera XXX-i lagatzeko aukera egongo d, Legeak aurreikusten dituen beste lagatzeez gain. Fitxategiaren erakunde arduraduna XXX da eta interesdunak sartzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta kontra egiteko eskubideak XXX helbide honetan egin aurrera eraman ahal zango ditu. Hau guztia, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko 15/1999 Lege Organikoaren 5.artikuluan jasotzen da.”

3.- Web orrialdean azal daitekeen informazioari buruz, bertan jasotzen diren datuen izaera argi geratu beharko da. Horrela, azaldu beharko da *Web orrialdean jasotzen diren datu pertsonalak datuak babesteko araudiarekin bat datozela eta bere helburua zein den agertu beharko du.* (Matrikula adibidea: Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Erkidearen 30/1992 Legearen, azaroaren 26koa, 59.artikuluaren arabera, izangai bakoitzari maila frogaren emaitza jakinaraziko zaien, matrikulazio prozesuaren

Informazio paragrafo bat gehitu beharko zaio, hurrengo adieraziko duena: “zerrendak hauek ez dira publikorako informazio iturriak eta ezingo dira berrerabili, ez osotasunean ez eta zatika ere, ez eman ez erregistratu ere informazioa berreskuratzeko edozein sistemaren aldetik, interesdunen adostasuna izan ezean.”

4.- : Datuen kalitateari dagokionez, kasu honetan, frogaren mailarenak, DBLOren 4. artikuluan ezartzen denaren arabera erabiliko dira, eta zehatzago hirugarren puntutik bostera doazenak.

3. Izaera pertsonaleko datuak zehatzak eta eguneratutakoak izango dira, ukituaren gaur egungo egoerari zuzentasunez erantzuneko.

4. Erregistratutako izaera pertsonaleko datuak zehatzak izango ez balira, osotasunean edo zatika, ezeztatu eta ordezkaturako dira, arteztutako eta osatutako datuengatik, 16. artikuluan ukituei dagokien eskubideei kalterik egin gabe.

5. Izaera pertsonaleko datuak jaso edo erregistratu ziren helbururako beharrezkoak ez direnean ezeztatuko dira...”

13. DIPUTAZIO BATEAN LANPOSTU HUTSEN ZERRENDATA LAGATZETA

DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOAK EGINDAKO TXOSTEN JURIDIKOA KONTSULTA HAU DELA ETA: XXX FORU ALDUNDIAK XXX TALDE BATZARKIDEARI FORU ALDUNDIAK LAN EGITEN DUTEN LANGILEEN LANPOSTUEN ZERRENDATA ETA DATU PERTSONALAK ESKATZEN DITU.

CN07-038

AURREKARIAK

LEHENENGOA: Datuak Babesteko Euskal Bulego honetara Arabako Aldundiaren Diputatuak fax bidez bidalitako kontsulta idazkia iritsi zen. Goiburuan azaldutako arazoa dela eta txostena egiteko eskatzen du.

BIGARRENA: Kontsulta idazkiarekin batera ondorengo dokumentuak atxikitzen dira.

XXX Talde Biltzarkideak Foru Aldundiari egindako galderaren kopia. Kopia honetan, Foru Aldundiaren lanpostu hutsak agertzen dituen zerrenda bat egitea eskatzen da.

Informazio eskaera horren erantzunaren kopia. Ondorengo esaten du:

“XXX Talde Biltzarkidearen Lanpostuen Zerrenda eskaeraren ondorioz, hau jakinarazi nahi da:

Hasieran, Foru Aldundiaren Lanpostuen Zerrendaren barne dauden lanpostuok betetzen dituzten pertsonen izenen zerrenda bidaltzeko eskaera egiten da. Aipaturiko informazioa datuen babeserako indarrean dagoen araudiarengatik babestua dago. Beraz,

Edozein kasutan ere, eta eskatutakoa bete ahal izateko, Lanpostuen Zerrenda atxikitzen da. Karrerako funtzionarioen lanpostuei dagokienez, beren datu, egitura eta definizioa XXX. zenbakiko Foru Dekretuaren bidez egindako azken aldaketan onartu zen, eta geroztik ez da inolako aldaketarik izan”.

Azkenik, Aldundiko X diputatuari XXX talde Batzarkideko bozeramaileak aurkeztutako agertze eskaera atxikitzen da. Eskaera honen laburpen bat agertuko dugu:

“ Agertzea eskatzen da Aldundiak zehatz dezan Biltzar Nagusiei informazio hau ukatzean kontuan hartu duen ALHAOren bidez foru langileen izenak kaleratzen direla lanpostua eskuratzen dutenean. Horrezaz gain, Datuen Babeserako Lege Organikoak ezartzen du publikorako eskuragarriak diren iturrietan datu pertsonalak agertzen direnean ez duela zentzurik datu pertsonal hauek babesterik.

HIRUGARRENA: Otsailaren 25eko 2/2004 Legeak, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoak, honako funtzioa ematen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea.

Goian aipatutako arautegiaren arabera, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egindako kontsultari erantzuteko txostena bidaltzea

GOGOETAK

I

Kontsultaren helburua da Foru Aldundiak XXXT alde Batzarkideari Aldundiko lanpostuen langileen izen-abizenen zerrenda lagatzea datuen babesaren araudiari egozten zaion jakitea.

Izaera Pertsonaleko Datuen Babeserako 15/99 Lege Organikoaren 11. artikuluan arautzen dira datuen lagatzea eta ondorengoa ezartzen du.

Tratamenduaren objektu diren izaera pertsonaleko datuak hirugarren bati komunika dakizkioke soil-soilik datu-lagatzailearen eta datu-hartzailearen eginkizun legitimoekin zuzeneko lotura duten xedeak betetzeko; interesdunak aurretiaz horren inguruko adostasuna eman beharko du.

Arau honek esaten duenaren arabera, izaera pertsonaleko datuak lagatzea ukituen adostasuna eskatzen du eta lagatzea lagatzailearen eta jasotzailearen legezko helburu bati erantzuten behar dio. Hala ere, arau orokor honetan 11. artikuluan 2. atalean aipatzen denak salbuesten du. Eta salbuespen horien artean bi azpimarra ditzakegu: "legeak baimentzen duenean lagatzea" (11.2) eta jendearen esku dauden iturrietatik jasotako datuak direnean.

Honakoa aipatu ondoren, ez dago zalantzarik Foru Aldundiko langile publikoen izaera pertsonaleko datuak Biltzar Nagusietan ordezkaritza daukan talde politiko bati jakinaraztea, datu pertsonalen lagatze adela. Hori dela eta, txosten honetan erabaki beharreko arazoa hurrengoa da: aipaturiko datuon lagatzea datu pertsonalen babeserako araudian babesten ote duen.

II

Lehenik, eta datu pertsonalen trataeraren ikuspuntutik, lanpostuen zerrenden araubide juridikoa zein den ezagutu beharko litzateke.

.Zentzu honetan, uztailaren 6ko 6/1989 legeak, Euskal Funtzio Publikoarena, lanpostuen zerrenden publikotasuna ezartzen du, lege berdinaren 15.1 artikulua lanpostuen zerrendetan ez direla pertsonen datuak baizik eta lanpostuaren ezaugarriak agertu behar esaten duen arren. Hau da, datuak ezean, lanpostuaren deskribapena eta zein sail edo zuzendaritza zentzora atxikita dagoen, bere betebeharra (nahitaez dagokion hizkuntza perfila eta derrigorrezkotasun data agertu beharko da), zein Taldera, Kidegora edo Eskalara edo lan kategoriara atxikitzen den eta lanpostuaren maila, hornikuntza sistema eta berariazko osagarria agertu beharko dira, langile funtzionarioek bete behar dituzten lanpostuei dagokienez.

Era berean, abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen, Funtzio Publikorako Erreformatarako Neurriarena, 15.3. artikuluan lanpostuen zerrenden publikotasuna ezartzen da, baina bere 16b). artikuluan ez du ezta ere langile publiko bakoitzaren datu pertsonala agertzerik. Zentzu berean adierazten da apirilaren 12ko, 7/2007 legea, Funtzio Publikoko Oinarrizko Estatutuarena, 74. artikuluan.

Hemen adierazitakoaren arabera ikusten dugu lanpostuen zerrendak, legalki, lanpostuen zerrenda gisa eratzen direla, baina ez pertsonen zerrenda bezala.

Lanpostuen zerrenda publiko egiterakoan erreferentzia egiten dio soilik lanpostuen deskribapenari eta langileen izaera pertsonaleko datuei. Hau dela eta, araudiaren aipaturiko funtzio publikoaren araudiaren babespean datuen lagatzea eskatzeak ez luke tokirik aurkituko Lege Organikoaren 11.2a). artikuluan. Horregatik, ukituen adostasuna beharrezkoa izango litzateke.

Bestelako aipamena behar du aldizkari ofizialen publikotasunaren analisiak, bidalitako idazki bakoitzean, eskatzaileak honakoa argudiatzen duelako: "foru langileen izena publiko egiten direla ALHAOren bidez langileek lanpostua eskuratu dutenean eta Datuen Babeserako Lege Organikoak

ezartzen du datu pertsonalak jendeak eskuratu ditzakeenean ez duela zentzurik datuok babesterik”.

Egia bada ere, Aldizkari Ofizialeek publikorako eskuragarriak diren iturriak dituztela, DBLOren 3i). artikulua arabera, funtzionario publikoen izendapena dagokien aldizkariaren bidez egiten dela, eta aipatu behar da lanpostu guztiak ez dituztela karrerako funtzionarioek betetzen, ohikoa delako bitarteko funtzionario batek betetzea eta hauen izendapena ez dira aldizkariotik agertzen.

III

Biltzar Nagusiak Lurralde Historikoaren herri ordezkariaren eta parte hartzearen organo nagusiak dira. Eta zentzu honetan, beren araudi ahalean jarduten dute, foru aurrekontuak onartzen dituzte eta Foru Aldundiaren ekintza bultzatzen dute.

Bere kontrol funtzioaren barne, Biltzarkideek gai, gertaera edo Foru Aldundiaren politikaren bestelako alderdien buruzko informazioa bildu dezakete.

Lurralde Historikoaren Erakundearen Antolaketaren XXX Foru Arauak, 7. artikuluan honakoa ezartzen du.:

7. artikulua

1.- Araudiaren ekimena Foru Aldundiari, Biltzar Nagusien Prokuradoreei eta herritarrei dagokien herri araudiaren ekimena erabiltzean Foru Arauen ezartzen den terminoetan (martxoaren 25eko 6/86 Foru Arauak aldatua eta abenduaren 21eko 24/87 Foru Arauak berriz ere aldatua)

2.- Biltzar Nagusien kideek galderak, interpelazioak eta proposamenak egin ahal izango dituzte, araudiak ezartzen dituen terminoetan (abenduaren 21eko 24/87 Foru Arauak aldatua)

Horrez gain, Biltzar Nagusien funtzionamenduaren erregelamenduari buruzko Foru Arauan galderak egiteko eskubidea garatzen da 144. eta hurrengo artikuluetan. Kontrol-zeregin hori da Espainiako Konstituzioaren 23. artikuluan jasotzen den parte hartze politikorako eskubidea gauzatzea.

Ilido horretatik, Foru Arauak 49. artikuluan esaten du:

1.- Diputatu Orokorrak eta Foru Diputatuek, haiek eskatuta edo foru aldundiak ezarri duelako, eta Biltzar Orokorren Organoen Araudiak esaten duenaren arabera eskatzen dutenean, Udalbatzaren edo bestelako Biltzar Nagusien Batzordeen aurrean agertuko dira Aldundiak beren Sailaren inguruko politikari buruzko informazioa emateko. Bai eta politika honen zatikako ezaugarriak, gai zehatzak eta eskaera, galdera, interpelazio edo mozioei erantzuteko, Biltzar Nagusien Funtziorako Araudiak ezartzen dituen termino eta epeetan.

2.- Foru Aldundiak Biltzar Nagusien Prokuradoreei eta Batzordeei, Biltzar Nagusien Funtziorako Araudian ezartzen den modu eta epean egindako informazio eskaerari erantzungo dio.

Aipaturiko foru araudia izango litzateke, beraz, DBLOren 11.2a) . artikuluan gaitzen duen legea, ukituaren adostasuna salbuesteko.

Edozelan ere, gogoratu beharra dago aipaturiko konstituzio jurisprudentzia, hau da, funtsezko eskubide bat ere ez dela absolutua (KAE 156/2001, 70/2002). Eta bestalde, behin eta berriro aipatzen ari den doktrinak adierazten duelako funtsezko eskubideen erlazioa oreka eta proportzionaltasunean oinarritu behar dela. Eta ez funtsezko oinarri bat beste batengatik nagusitzeko hierarkia oinarri batean.

Hala, bada, adierazi beharko litzateke izaera pertsonaleko datuen babeserako funtsezko oinarri bat datuon kalitatearena dela, DBLOren 4.1. artikuluan jasotzen dena:

“Izaera pertsonaleko datuak tratatzeko bil daitezke bakarrik, bai eta tratamendu horren mende jartzeko ere, datu horiek egoki eta bidezkoak izateaz gain, gehiegizkoak ez direnean, datu horiek zein esparrutan eta zein xederekin lortu eta halakoei begira. Gainera, esparru eta xedeak zehatzak, argiak eta legítimoak izan beharko dira.

Gainera, proportzionaltasun oinarriak izaera pertsonaleko datuon tratamendua eragiten duen helburuaren arabera izatea eskatzen du. Konstituzio Auzitegiak hainbat epaitan ezarri du (66/1995, 207/1996) funtsezko eskubide baten neurri mugagarri batek proportzionaltasun oinarria gainditzen badu, beharrezkoa dela ondorengo hiru betebeharrak hauek betetzen dituela egiaztatzea: neurriak proposatutako helburua (egokitasun irizpidea) lor dezakeen; eraginkortasun berarekin helburua aurrera eramateko bestelako neurrizko biderik ez dagoenean beharrezkoa ote den, eta, azkenik, neurri honetatik onura eta abantaila gehiago lortzen diren interes orokorrerako, auzian dauden ondasun eta baloreen kaltean baino.

Proportzionaltasun irizpide honek uztartu behar ditu bai eskatzaileak informazioaren eskaera argudiatzeko eta lagatzaileak hauexek komunikatzeko aukerak. Biak oinarri hau errespetatzera behartuta baitaude, datu pertsonalen babeserako Funtsezko Eskubidearen oinarrizko funtsa dena.

Kasu honetan, Foru Aldundiaren zerbitzuek neurtu behar dute, eskatzailearen argudioak aztertu ondoren, datuen eskaerak aipaturiko proportzionaltasun irizpidea eta, beraz, eskatutako datuak egokiak diren edo eskaera legeztatzen duen eskubidearentzat gehiegizkoak ote diren, hau da, politikan parte hartzeko eskubidearena.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoa oso arretatsua izan behar den arren beren eskumenetik kanpo dauden arazoetan egon daitezkeen esku-sartzetan eta Foru Administrazioen autonomia errespetatzean, bere betebeharra ere bada datuen babeserako gaian jokabide arau batzuk ezartzen saiatzea.

Ildo horretatik, eta kolaboratzea baino beste asmorik izan gabe, adierazi behar da, ziurrenik, kasua askotan hobe formulatutako eskaera batek, gehiegizko datuen eskakizunetatik urrundu (argudiatzeko zailak bilatzen den helburuarentzako), nahi den helburua lor dezakeela datuen titulardunen funtsezko eskubidean eragina izan gabe.

Horregatik, behin datuen emate legalak datuen lagatze orokorrean ez duela txeki zuri bat suposatzen argi utzi ondoren, Konstituzio Jurisprudentiak ezartzen duen proportzionaltasun irizpidea arreta handiz aztertu behar da. Gure ustetan, datuen jakinaraztea eman zitekeen langile publikoen datu pertsonalen lagatzea neurri egokia eta kontrol politikorako ez gehiegizkoa izango balitz. Bestela, informazio hori egoki bereizita laga beharko da, DBLOren 3f) artikuluan agertzen den prozeduraren arabera. Edo datuak jasotzeko tituludunen adostasuna izan beharko da, berezia izango dena lagatzen diren datuak bereziki babestuta daudenean, DBLOren 7. artikularen arabera.

Bestalde, egiten den datuen komunikazioa, Foru Aldundiaren protokoloen barne egon beharko da (DBLOren 9 eta 20. artikulua ekainaren 11ko 994/1999 Errege Dekretuan izaera pertsonaleko datuak izango dituen fitxategi automatizatuen segurtasun neurrien araudian onartzen dena).

Aipaturiko eskubideen neurria hartzea, orekatutako politika parte hartzearen artean, Administrazio Publikoen gardentasunak eta datu Pertsonalen Funtsezko Eskubideak ez luke isilpeko betebeharraren oinarria hautsi beharko (DBLOren 10. artikulua) ez eta datuen segurtasuna (DBLOren 9. artikulua), lagatzaileek etorkizunean egin ditzaketen erabilerarengatik.

ONDORIOA

Talde Biltzarkideari Foru Aldundiko lanpostuen zerrenda lagatzea, lanpostua betetzen duten langileen datuekin batera datorrena, ez du izaera pertsonaleko datuen babesaren araudiaren kontra egiten, betiere txosten honen III. atalean agertzen diren gogoetak aztertzen badira.